

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

2212

33/2016 DEKRETUA, martxoaren 1ekoa, Izki (ES2110019) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (Hegaztientzako BBE) izendatzen duena eta hari dagozkion kontserbazio neurriak onartzen dituena.

Gobernu Kontseiluak 1997ko abenduaren 23an, 2000ko azaroaren 28an eta 2003ko ekainaren 10ean egindako bilkuretan hartutako Erabakien bidez, Hegaztientzako Babes Bereziko 6 Eremu (Hegaztientzako BBE) izendatu ziren, eta 52 gune proposatu ziren Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izateko. Proposamen hori Europako Batzordera eraman zen, eta han Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrenda (BGL) ontzat eman zuten, 2004/813/EE eta 2006/613/EE Erabakien bidez. Erabakiok Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoei dagozkie, hurrenez hurren, eta hortxe kokatzen da gure autonomia-erkidegoa. Horien artean, Izki (ES2110019) dago, Atlantikoko eskualde biogeografikoan. Gainera, Hegaztientzat izendatu diren sei BBEetako bat da.

Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora zaintzeari buruzkoa den Europako Kontseiluen 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren 4. artikulua eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. eta 46. artikuluek ezarritakoari jarraikiz, autonomia-erkidegoek, jendaurrean jarri ondoren, beren lurralde-eremuko BGL guztiak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu eta KBE eta Hegaztientzako BBEak behar bezala kontserbatzeko neurri egokiak ezarri beharko dituzte, kontuan hartuta lekuan lekuko habitat naturalaren eta espezieen berezitasunen arabera eskakizun ekologikoak. Kontserbazio-neurri horiek izango dira, batetik, kudeaketako planak eta baliabideak, eta, bestetik, erregelamenduzko neurriak, administratiboak edo kontratuzkoak.

Gobernu Kontseiluak 2000ko azaroan hartutako Erabakiaren bidez Izki (ES2110019) Hegaztientzako BBE izendatu denez, Izki eremuan bertako habitatak kontserbatzeko neurriak ezartzen dira, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basa-hegaztien kontserbazioari buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieen biziraupena eta ugalketa beren banaketa-eremuan ziurtatzeko, baita eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere.

Beraz, Dekretu honen bidez, Izki KBE izendatu eta haren kontserbazio-neurriak onartzen dira –eremua KBE eta Hegaztientzako BBEa izateagatik bete behar direnak–. Baina eremu horrek Naturagune Babestuen tipologia hirukoitza biltzen du, Parke Naturala (martxoaren 31ko 65/1998 Dekretuak izendatua) eta Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua zein Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua baita. Beraz, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren (NKLTB) 18. artikuluari jarraikiz, eremu hori antolatzeko mekanismoak koordinatu egin behar dira dokumentu bakar batean biltzeko; horrela, kategoria bakoitzean aplikatu daitezkeen araubide desberdinek osotasun koherente bat osatuko dute. Hainbat tipologiatarako dokumentu bakarraren legegintza desideratuma ezin da lortu Parke Naturalen kasuan, tipologia horiek Natura Baliabideak Antolatzeko Plan baten (NBAP) bidez (NKLTBaren 20. artikulua) eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plan baten (EKZP) bidez (NKLTBaren 27. artikulua) arautu behar baitira. Beraz, horrelako kasuetan, bi dokumentu egon beharko dira: bata Parke Naturalerako izaera bikoitza duen BNAPa eta KBERako helburu eta erregulazioak jasotzeko; eta, bestea, izaera bikoitza duen EKZPa eta kudeaketa neurriak jasotzeko.

Gainera, onartzean, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak eta foru-organismoek dituzten eskumen konkurrenteek koordinazio-ahalegin berezia dakartela. Izan ere, NBaren tipologia guztien deklarazioa Eusko Jaurlaritzari dagokio edonola ere (NKLTBaren 19.1 artikulua). Parke Naturalari dagokionez, NBAPa bideratzea eta onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 7.a) artikulua); EKZPrako, aldiz, prozedura bifasikoa jarraitzen da. Hau da, lehenik, foru-organismoek bideratzen dute eta organo horiek onartzen dituzte Parke Naturalaren kudeaketari dagozkion jarraibideak; eta bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak bideratzen du, araudiari dagokionez (NKLTBaren 29.e artikulua). Era berean, KBE eta Hegaztientzako BBEei dagokionez, helburuak eta araudiak onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 22.5 artikulua) lehen paragrafoa) eta jarraibideak eta kudeaketa neurriak foru-organoei dagozkie (NKLTBaren 22.5 artikulua) bigarren paragrafoa). Nolanahi ere, baliabide desberdin horiek guztiak EHAAan argitaratu behar izaten dira beti.

Horregatik, Dekretu honen helburua Izki Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea da, baita, KBE eta HBBE izanik, izendatze horrek eskatzen dituen kontserbaziorako helburu eta neurriak onartzea eta mugak ezartzea ere, hala baitagokio Eusko Jaurlaritzari. Geroago, Arabako Foru Aldundiak EKZPa (Dekretu honekin batera izapidetu dena) igorritakoan, Eusko Jaurlaritzak Plan horretako araudia onartuko du eta baliabide osoa EHAAan argitaratzeko aginduko du. Dekretu honen 3.2 artikulua aurreikusten duenez, EKZP horrek bi helburu izango ditu (arestian aipaturiko NKLTBaren 18.artikulua ezarrita): Parke Naturalaren EKZPa izango da eta KBEaren eta Hegaztientzako BBEaren kudeaketa-jarraibideak ere ezarriko ditu (22.5 artikulua) bigarren paragrafoari jarraikiz). Horrela, espazio honen araudia osatuko da eta 92/43/EEE Zuzentarauaren 6. artikulua osorik beteko da.

Horretarako, onartzen den Dekretu honek bi eranskin ditu. Lehenengoak KBE/Hegaztientzako BBEaren kartografia jasotzen du; bigarrenak NKLTBaren 22. artikulua ezarritako beharrak betetzen ditu, Eusko Jaurlaritzak KBE/Hegaztientzako BBEari dagokionez duen eskumena kontuan hartuta eta, horretarako, dagoeneko izendatu diren Natura 2000 Sareko gainontzeko espazioetan erabilitako planteamendu bera segituko da.

Dekretuaren Azken Xedapenetako Lehenean adierazita dagoenez, arau hau argitaratu eta gero Izkiko Parke Naturalaren NBAParen aldaketa abiarazi beharko da, II. eranskina txertatuko duena. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren eskumena den dokumentu bakarra lortu eta NKLTBaren 7. artikulua ezarritako prozedura luze eta konplexuko prozesu-izapidetzea beteko da, baina ordurako Europari begirako beharrak beteta.

Hori horrela izanik, 92/43/EEE Zuzentarauak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, Izki sakon aztertu da, eskala egokian irudikatu da Batasunaren intereseko habitaten banaketa eta haien kontserbazio-egoera ebaluatu da. Horretaz gain, gune horretako fauna- eta flora-espezie bereizgarrien banaketa eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

Izki eremuaren ezaugarria da Izki ibaira doazen erreka askok hondeatutako sakan txikiek zeharkatzen duten lautada hareatsu handi baten gainean kokatutako baso zabala. Izki ibaiak eremu hori mendebaldetik ekialdera zeharkatzen du. Dauden litologia eta orientazioek landare-formazio ezberdin asko sortzen dituzte; horien artean, ametzen basoa (*Quercus pyrenaica*) da azpimarratzekoa, Europako zabalenetako bat. Izkin, gutxienez, Batasunaren intereseko 30 habitat mota topatu dira, eta horietako 10ek lehentasunezko izaera dute. Habitat-aniztasun horrek intereseko landare- eta fauna-espezie asko hartzen ditu barnean.

Flora-espezieen artean, Olandinako urmaeleko nenufar zurien populazioa (*Nymphaea alba*) da nabarmentzekoa, EAeko bakarra eta Iberiar Penintsulako handiena baita. Faunari dagokio-

nez, Izkin diren ornogabe-espezieen artean, intsektu saproxilikoek eta odonatuen populazioak dira azpimarratzekoak. Izkin, besteak beste, 12 anfibio-espezie daude; horietatik hiru Espezie Mehatzatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Zerrendan daude jasota, hala nola baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*), apo lasterkaria (*Epidalea calamita*) eta hegoaldeko apo pintatua (*Discoglossus jeanneae*). Izki KBE/Hegaztientzako BBEan, ugaztunen artean, kiropteroak dira azpimarratzekoak, hala nola arratoi-belarri handia (*Myotis myotis*), Bechsteingo saguzarra (*Myotis bechsteinii*), saguzar biboteduna (*Myotis mystacinus*) eta ferra-saguzar handia (*Rhinopolus ferrumequinum*). Gainera, honako mustelido hauek daude: bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta igaraba (*Lutra lutra*).

Hegaztiei dagokienez, okil ertainaren populazioa (*Dendrocopus medius*) aipatu beharra dago, 750 indibiduotik gorako errola baitu eremu horretan; beraz, Izki eremuak hegazti mota horretarako garrantzi handia du iberiar penintsulan. Bestalde, Izki ugatz (*Gypaetus barbatus*), sai zuri (*Neophron percnopterus*) eta sai arrearentzako (*Gyps fulvus*) interes bereziko eremuen artean dago.

Izki KBE/Hegaztientzako BBEa kontserbatzeko baliabidea sortzeko lan teknikoak egin bitartean, egokitzen da Naturagune Babestua 470 hektareatan zabaltzea, eremuaren ipar-mendebalderantz, eta tipologia bien mugak bateratzea. Alderdi horretan, oso ondo kontserbatuta dauden Batasunaren intereseko habitata daude, zehazki, ameztiak, erkameztiak, txilardi kaltzikolak (4090) eta orkideak dituzten soropil lehor erdinaturalak (6210*). Besteak beste, eremu hori zabaltzeko, KBE/Hegaztientzako BBEan Onura Publikoko Mendien lursail guztiak sartzeko, BGLan partzialki baino ez baitzeuden sartuta.

Hegaztientzako BBEaren mugaketa berriaren onarpena administrazio honen eskumenekoa da; baita tokiaren izendapena justifikatzen duten hegaztiei asaldurarik ekiditeko eta habitata ez hondatzeko hartu behar diren neurriak finkatzea ere, Europako Batzordeak ezertarako esku hartu gabe. Alabaina, KBEaren mugaketa berriak Europako Batzordearen erabaki bidezko onespina behar du, benetan eraginkorra izango bada, eta horregatik ageri dira eremuaren bi mugaketa-lerroak KBEaren mugaketaren kartografian, Dekretuaren Azken Xedapenean agindutako eran gauzatuko baita mugaketa berria. Hala ere, KBEaren mugaketa berria geroago indarrean jartzeak ez du inolako ondoriorik kasu honetan; izan ere, KBEaren eta Hegaztientzako BBEaren mugak eta araudi eta helburuak bateratu direnez gero, Dekretuak Hegaztientzako BBEarentzat finkatzen dituen araudi eta helburuak Dekretua argitaratu orduko baitira aplikagarriak gunearen lurralde osoan.

Horretaz gain, xehetasun-lanei eta eskala doitu izanari esker lortu diren habitat moten azalerari buruzko datuak, zenbait kasutan, ez datoz bat Europako Batzordera –Euskal Autonomia Erkidegoko tokien zerrendaren proposamenarekin batera– igorri eta jakinarazitako datuekin. Gainera, xehetasun-azterketari esker habitat jakin batzuen interpretazioa zuzentzeko aukera izan da. Esate baterako, egiaztatu ahal izan da, eremu batzuetan, inprimakian adierazitako zenbait habitat-mota ez zeudela; eta, aitzitik, hasierako proposamenean adierazi ez ziren habitat-mota batzuk bazirela. Hori guztia Europako Batzordera bidaliko da, egunera dezan.

KBE izendatzeko eta KBE / Hegaztientzako BBEaren kontserbaziorako mugak, helburu eta arauak ezartzeko prozeduran parte-hartze sozialaren prozesua behar bezala bete da, ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraikiz. Prozesu horretan, interes sozial eta ekonomikoen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Parte hartzeko bideak zabalik egon dira izapidetze-prozesu osoan, publiko interesdunari komunikazioak helarazita horretarako prestatu den web-orrialdearen bitartez (<http://www.euskadi.eus/natura2000>); eremuari buruzko informazioa eguneratuta egongo da beti webgune horretan.

Izki KBE/Hegaztientzako BBEa kontserbatzeko baliabideak Europako Batzordeak ezarritako printzipioei jarraiki landu dira, 92/43/EEE Zuzentarauan eta 2009/147/EE Zuzentarauan jasotako eta eremuan topatutako habitat eta taxonen eskakizun ekologikoei erantzuna emateko asmoz.

Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 22.4 artikuluekin bat, Dekretuak izendapena bera, lekuaren eta bere mugaketaren kartografia, izendapena arrazoitzen duten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta flora-espezieak, horien kontserbazio-egoerari buruzko balorazio bat, lekuaren kontserbazio-helburuak eta jarraipen-programa bat ere jasotzen ditu.

Horrenbestez, alde batetik, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 19.1 eta 22.5 artikuluetan eta, bestetik, Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44, 45.1 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoarekin bat, jendaurrean jarri ondoren, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak –2016ko martxoaren 1ean egindako bilkuran– eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Izki eremua (ES2110019) Kontserbazio Bereziko Eremu (hemendik aurrera, KBE) izendatzen da, Arabako Lurralde Historikoan.

2.– KBE horren mugaketa Dekretu honen I. eranskineko kartografian dago jasota, eta bat dator Atlantikoko eskualde biogeografikoan Batasunaren Intereseko Lekuen zerrenda onartzeari buruzkoa den Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakian jasotakoarekin.

3.– Aurreko atalean jasotako KBEaren mugaketa I. eranskinean adierazitako muga geografikoetaraino zabalduko da, Europako Batzordeak onartutakoan.

4.– ES2110019 Izki izeneko Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren (aurrerantzean Hegaztientzako BBE) mugaketa I. eranskinean jasotakoa da, eta KBEarekin zein zabalduko eremuarekin bat dator.

5.– Onartu egiten dira KBE/Hegaztientzako BBEa kontserbatzeko II. eranskineko neurriak. Horiek bat datoz Dekretu honen 3. artikulua ezarritako edukiarekin.

2. artikulua.– Helburua.

1.– Arau honen xedea honako hau da: KBE/Hegaztientzako BBEan bermatzea Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak kontserbazio-egoera onean mantentzen direla edo egoera horretara berriro ekarriko direla. Habitat horiek ezarrita daude Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora zaintzeari buruzko 92/43/EEE Zuzentarauan. Horretaz gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion banaketa-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbazioari buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieena, baita eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztia- ren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzeko.

2.– KBE/Hegaztientzako BBEan, honako hauek ezarritako araubide orokorra aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentaraua, 2009/147/EE Zuzentaraua eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

3. artikulua.– Kontserbazio-neurriak.

1.– Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 22.4 artikuluekin bat, II. eranskinak KBE/Hegaztientzako BBEaren izendapena argudiatzen duten Batasunaren garrantziko habitat motak eta animalia- eta flora-espezieak, horien kontserbazio-egoeraren ebaluazioa, eremu horren kontserbazio-helburuak, kontserbaziorako araudiak eta jarraipen-programa jasotzen ditu.

2.– KBEa kudeatzeko jarraibideak eta neurriak Izkiko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean txertatuko dira.

4. artikulua.– Funtsezkoa ez den berrikuspina edo aldaketa.

II. eranskinean funtsezkoa ez den berrikuspen edo aldaketarik behar izanez gero, egoerak berak edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuak emango duen agindu baten bidez egingo da, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluetan eta 2009/147/EE Zuzentarauan ezarritakoa betez. Izan ere, helburua da kontserbazio eta kudeaketa moldaeraz, etengabe eta malgu baterantz jotzea. Prozedura horretan, bermatu egin behar da herritarren parte-hartzea benetako eta eraginkorra izango dela, ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak ezarritakoari jarraikiz; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturazaintza organoaren txostena jasoko da.

5. artikulua.– Arau-hausteen eta zehapenen araubidea.

Dekretu honi ezarri beharreko zehapen-araubidea, honako hauek araututakoa izango da: apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategina eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako tramite eta komunikazio guztiak egiteko, bai Estatuaren Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatu du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikulua ezarritakoa betetze aldera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Dekretu hau onartzen denean, Parke Naturalaren eta KBE/Hegaztientzako BBEaren mugak bat etortzeko prozedurari ekingo zaio, eta Parke Naturalaren NBAPa Naturagune Babestuen tipologia horiek arautuko dituen dokumentu bakar bihurtzeko prozedura ere abiaraziko da, 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ingurumenean eskumena duen sailburuak Izki KBEa (ES2110019) zabaltzeari buruz Europako Batzordeak hartutako Erabakia argitaratuko du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 1ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

MARTXOAREN 1EKO 33/2016 DEKRETUAREN I. ERANSKINA:

MUGAKETA MAPA

http://www.euskadi.eus/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_33_2016/izki.json&lang=eu

MARTXOAREN 1EKO 33/2016 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

INFORMAZIO EKOLOGIKOA, KONTSERBAZIO HELBURUAK, KONTSERBAZIO ARAUAK ETA JARRAIPEN PROGRAMA

1.- SARRERA

Martxoaren 31ko 64/1998 Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak Izkiko Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana onartu zuen. Plan hori Izki Parke Naturalaren baliabide naturalak planifikatzeko eta kudeatzeko tresna zen, Espazio Naturalak eta Basaflora eta Basafauna Kontserbatzeari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legean eta Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean aurreikusitako ondorioetarako. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak Izki aldea Parke Naturala izendatu zuen 1998ko maiatzaren 4an EHAAn argitaratutako martxoaren 31ko 65/1998 Dekretuaren bidez.

Izki eremua nabarmentzekoa da Izki ibaira doazen erreka askok hondeatutako sakan txikiek zeharkatutako lautada hareatsu handi baten gainean kokatutako baso zabala. Izki ibaiak eremu hori mendebaldetik ekialdera zeharkatzen du.

Lautada hori hainbat goragune eta kareharri mendiez inguraturik dago; haien artean Kapildui-San Cristóbal kareharrizko goi-lautada, Kapildui mendiak (1.180 m), San Justi (1.021 m) eta San Cristóbal (1.055 m) osaturikoa, nabarmentzen da eremuaren iparraldean. Ekialdean Mantxibio (939 m), Soila (989 m) eta La Muela (1.059 m) kareharrizko mendiak altxatzen dira.

Ingurunean dauden litologia, topografia eta orientazio ezberdinek landare-formazio desberdin asko sortzen dute; horien artean, ametzen basoa (*Quercus pyrenaica*) nabarmentzekoa da, Europako zabalenetako bat, eta eremuaren ertzeke h, hagin-basoak, zohikaztegiak edo ur karbonatutako iturburuak bezala.

Habitat-aniztasun horrek intereseko landare-eta fauna-espezie asko hartzen ditu barne; alde batetik, *Rhynchospora fusca*, Iberiar penintsulako populaziorik handiena hemen daukana; bestetik, okil ertaina (*Dendrocopus medius*) nabarmentzen da. Horrek 750 baino gehiagoko banako errolda daukan eremua eta Izkiri garratzi adierazgarria ematen dio Iberiar testuinguruan mokodun honentzako.

Hain zuzen ere, habitat eta espezieen aberastasun hori funtsezko irizpidea izan zen Eusko Jaurlaritzak Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) izendatzeko eta Batasunaren Garrantzizko Lekua (BGL) proposatzeko, «ES2110019 Izki» izendapenarekin, 2000. urteko azaroaren Gobernu-Kontseiluaren Akordioaren bitartez. Europako Batzordeak proposamena onartu zuen 2004ko abenduaren 7ko Batzordearen Erabakiaren bitartez, non Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauari jarraikiz, eskualde biogeografiko Atlantikoko Batasunaren garrantzizko lekuen zerrenda onartzen baita.

Hau guztiagatik, dokumentu honek bete egiten ditu habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzko 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauak (Habitat Zuzentaraua) ezarritako betebeharrak; izan ere, zuzentarau horren 4. artikularen arabera, Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu behar dira. Horretarako, behar adina kontserbazio neurri ezarriko dituzte, aipatu Zuzentarauaren I. eta II. Eranskinetan zehaztutako eremu horietako berezko habitat mota eta espezie mota guztien premia ekologikoei erantzuteko. Era berean, basa-hegaztiak kontserbatzeari buruzko 2009/147/EE Zuzentarauak (Hegaztiak Zuzentaraua) ezarritakoa betetzen du; izan ere, I.

eranskinean aipatutako espezieei kontserbazio neurri bereziak jarriko zaizkiela, bere habitati dagokiela, haien sakabanatze eremuan ugalketa eta biziraupena ziurtatzeko helburuarekin.

Dokumentuak eremuaren eta bere ezaugarri ekologikoen gaur egungo egoerari buruzko diagnostikoa jasotzen du, bere kudeaketa zehaztu edo eragina izan dezaketen baldintzatzaileak aztertuta. Eremuan agertzen diren balio naturalen azterketaren ondorioz, kudeaketarako giltzarriak diren osagai horiek aukeratzen dira eta hauen gainean habitat natural eta espezieen kontserbazio-egoera onuragarria lortu edo mantentzeko behar diren kontserbazio neurriak ardatzen dira.


2.- INFORMAZIO OROKORRA

2.1.- KOKAPENA ETA MUGAK

Natura 2000 ES2110019 Izkiko eremua Euskal Autonomia Erkidegoko hego-ekialdeko aldean kokatzen da, Arabako Mendialdeko eskualdean, eta Gasteizko Mendiek mugatzen ditu ipar-mendebaldetik, Berron ibaiak ekialdetik, Toloño mendilerroko beheko parteko ibarrek hegoaldeetik eta Trebiñuko konderriak mendebaldetik (Burgos, Gaztela eta Leon). Eremu hau Ihuda eta Ega ibaietako isurialde arroen barruan dago, Zadorra-Trebiñu eta Ega Unitate Hidrografikoei dagozkion hurrenez hurren eta biak Ebroren Demarkazioan.

KBEko eta HBBEko mugaketak guztiz bat datoz; mugaketak doitzeko xehetasun gehiagoko eskala erabili da. Bestalde, Europako Batzordeak onartu duen mugaketari buruzko aldaketak egin dira, erabilgarriko kartografiko jarduketa nahiz habitaten kontserbazio irizpide edo kontserbaziorako espezieen ondorioz. Aldaketa hauen bidez KBE/HBBEko azalera handiagotu da 470 ha-tan inguru BGLarekin konparatuz.

Aldaketa hauek burutzeko honako irizpide hauek ezarri dira: doitzearen hobekuntza, erkidegoaren mugak, lurralde historikoarenak eta Natura 2000 beste eremu batzuenak gainjartzeak ez agertzeko; Onura Publikoaren Mendieko (OPM) eta katastroko egungoena den bertsioko aldaketa eta berrikustea, eta KBE/HBBEaren lurzati-mugakideen inklusioa.



1. irudia. Izki KBE/HBBEaren eremuaren kokapena EAEn.


Mugak 1:5.000 eskalaren xehetasunera egokitzeko doitu ostean, honako hauek dira Izki KBE/HBBEaren ezaugarri diren oinarrizko parametroak:

1. taula. Parametro nagusiak.

Kodea	ES2110019
Leku mota	C
Izena	Izki
BGL gisa proposamen data	12/1997
HBBE gisa sailkapen data	11/2000
BGL gisa onarpen data	12/2004
Zentroaren koordinatuak	Longitueda -2,494107 Latitudea 42,703784
Azalera (ha)	9.482,10
Altitudea maximoa (m)	1.173,73
Altitudea minimoa (ma)	572,51
Batez besteko altitudea	805,29
Administrazio-eskualdea	ES211-Araba
Eskualde biogeografikoa	Atlantikoa

Halaber, 100 m-ko Babeserako Eremu Periferiko (BEP) bat ezarri da Natura 2000 gunearen inguruan; hiri-lurzoru klasifikatuak eremu horretatik kanpo geratzen dira. Gune horretan ezarriko da Izki aldea Parke Naturala deklaratzeko duen martxoaren 31ko 65/1998 Dekretuaren 4. artikulua aurreikusitako erregimena. Era berean, IBAn ezarriko da erregimen prebentibo bezala Habitaten Zuzentzaruko 6.2, 6.3 eta 6.4 artikuluek xedatutakoa.

Izki KBE/HBBEak hiru udalerrri eta 13 administrazio-batzar hartzen ditu barne. Jarraian, naturagune honetan azaleraren administrazio-banaketa azalduko da:



2. irudia. Izki KBE/HBBE aldea osatzen duten udalerriek.

2. taula. Izki KBE/HBBEaren azalera-banaketa udalerrien eta administrazio-batzarretan (azalera ez dira erabat bat etortzen, erreferentziako kartografiaren arteko desberdintasunengatik).

Kod.	Udalerrria	KBE/HBBEaren azalera		Administrazio Batzarra	KBE/HBBEaren azalera	
		(ha)	%		(ha)	%
01037	Arraia-Maeztu	3.611,31	38,12	Apinaiz	1.254,78	13,256
				Atauri	94,74	1,000
				Korres	1.332,55	14,070
				Maeztu	602,93	6,360
				Birgara Goien	320,06	3,383
01016	Bernedo	5.348,26	56,46	Arluzea	1.422,18	15,018
				Markinez	1.160,78	12,258
				Kintana	828,37	8,74
				Durruma Kanpezu	745,62	7,875
				Urarte	647,34	6,830
01017	Kanpezu	513,65	5,42	Antoñana	291,72	3,086
				Buxanda	215,08	2,273
Udalerriak guztira		9.473,05	100	Administrazio Batzarrak guztira	9.473,49	100

Bernedo zabalera handiena duen udalerrria da Natura 2000 sareko eremuan eta Arraia-Maeztu hurrengo da. Kanpezuk KBE/HBBEaren zabalera guztiaren % 5 bakarrik ematen du.

3. taula. Izki KBE/HBBEaren azalera udalerrietan eta administrazio-batzarretan

Kod.	Udalerrria	KBE/HBBEaren azalera udalerrietan (%)	Administrazio Batzarra	KBE/HBBEaren azalera
				administrazio-batzarretan (%)
01037	Arraia-Maeztu	29,39	Apellániz/Apinaiz	78,00
			Atauri	20,14
			Korres	100,00
			Maestu/Maeztu	53,92
			Vírgala Mayor/Birgara Goien	31,37
01016	Bernedo	40,90	Arluzea	87,58
			Markinez	47,09
			Quintana	68,73
			San Román de Campezo/ Durruma Kanpezu	58,00
			Urarte	52,41
			Urturi	58,80
01017	Campezo/Kanpezu	6,00	Antoñana	19,05
			Bujanda	55,98

Natura 2000 gunearen barruan dago Korresko administrazio-batzar osoa, bai eta Apinaiz, Maeztu, Arluzea, Kinta, Durruma Kanpezu, Urarte eta Urturiren erdia baino gehiago ere.


2.2.- JABETZA ERREGIMENA

Jabetza erregimenaren azterketa egiteko, Arabako Foru Aldundiaren 2015eko katastro-informazioa aztertu da.

Hurrengo taulak udal-banaketaren jabetza adierazten du eta lursail zein kale-sareak kontuan hartu dira. Ikusi ahal den moduan, azkeneko zabaleran ez dago orekarik, erabilgarria den kartografia digitalean zehaztugabetasun batzuk daude eta.


4. taula. Jabetza Izki KBE/HBBEaren eremuan, udalerrika.

Kod. EUSTAT	Udalerrria	Udal-azal. HBBEan (ha)	Nekazari lursaila		Hiri lursaila
			Azalera publikoa (%)	Azalera pribatua (%)	Azalera pribatua (%)
01037	Arraia-Maeztu	3.611,31	92,21	7,75	0,04
01016	Bernedo	5.348,26	81,49	19,73	0,00
01017	Kanpezu	513,65	98,54	0,27	0,00



3. irudia. Izki KBE/HBBEaren eremuaren jabetza erregimena. Nekazari lursaila pribatua (gorriz) eta hirikoa (beltzez) nabarmentzen da.

Izki KBE/HBBEaren lursail publiko gehienak Onura Publikoko Mendiak (OPM) dira, eta titularrak arestian adierazitako Administrazio-Batzarrak eta beste erakunde batzuk dira. Guztira, 34 OPMko lurrak daude eta 9.078,47 ha hartzen dituzte (Natura 2000 eremuaren %95,74).



4. irudia. Onura Publikoko Mendiak Izki KBE/HBBEaren aldean.

Ondoko taulan ageri dira Erabilera Publikoko Mendiak (EPM) eta zer azalera duten haiek KBE/HBBEan.

5. taula. Onura Publikoko Mendiak (OPM) Izki KBE/HBBEaren aldean eta zabaleren antolamendua.

OPM zk.	Deitura	OPMko azal. (ha)	OPMeko zabalera KBE/HBBEaren OPM (ha)	KBE/HBBEaren OPM (ha)
213-215	-	122,26	26,32	21,53
214	La Dehesa	244,77	244,77	100,00
217	Sasuralde	114,57	114,57	100,00
218	Sasuralde	668,84	668,84	100,00
228-230-231	-	185,15	184,67	99,74
229	Dehesa Boyal	209,34	208,90	99,79

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

OPM zk.	Deitura	OPMko azal. (ha)	OPMeko zabalera KBE/HBBEaren OPM (ha)	KBE/HBBEaren OPM (ha)
232-254-259	-	152,98	82,79	54,12
254	La Cuesta	142,99	142,54	99,68
256	Liendres	166,56	7,29	4,38
257	Matarral	276,77	269,40	97,34
260	Valdelopredo	17,84	0,00	0,00
261	Balzarra	20,60	20,60	100,0
262	La Dehesa	474,06	473,93	99,97
263-264	-	0,43	0,43	100,0
263-264-291	-	752,46	750,94	99,80
265	Gacical	15,05	14,99	99,60
266	Izquiz Bajo	1.747,89	1.747,89	100,0
267	Jupana	51,93	51,93	100,0
273-275-282	-	1.048,84	1.048,54	99,97
274-277-280	-	332,48	332,38	99,97
276	Larrea	548,56	13,35	2,43
278-279-283	-	195,78	194,98	99,59
289	La Dehesa	209,72	205,94	98,20
298	Larrintxo	12,85	12,66	98,55
298-294	-	88,05	84,62	96,10
299	Zabalea	511,74	0,15	0,03
387	Artadoya	45,29	44,98	99,32
388-389	-	355,17	355,17	100,0


OPM zk.	Deitura	OPMko azal. (ha)	OPMeko zabalera KBE/HBBEaren OPM (ha)	KBE/HBBEaren OPM (ha)
390-393	-	201,55	201,55	100,0
391-392	-	79,27	79,27	100,0
392	Larrabila	37,53	37,54	100,0
561-563-564	-	754,29	389,12	51,59
562	Izquiz Alto	1.095,43	1.093,74	99,85
Guztira			9.078,47	95,74

2.3.- BESTE BABES FIGURA BATZUK

2.3.1.- Izki Parke Naturala

Natura 2000 Izki eremuaren gehiena Parke Natural izendatu zen 1998an (65/1998 Dekretua, martxoaren 31koa, Izki aldea Parke Natural deklaratzeko duena). Bestalde, data horretan bertan, eremuko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) onetsi zen (64/1998 Dekretua, martxoaren 31koa) eta 2000. urtean Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP) ere bai. Bi planek Parke Naturalaren kudeaketarako jarduketak, arauak eta jarraibideak jasotzen dituzte. 2010. urtean II. EKZPa idazte-prozedura hasi zen eta gaur egun tramitazioan dago.

Izki Parke Naturalak 9.143 ha-ko azalera du eta ia KBE/HBBE bezalakoa da, salbu Olandinako urmaelaren inguruan (Apinaiz) eta espazioaren ipar-mendebaldean dagoen gune bat, Natura 2000 eremuaren barruan dagoena eta ez Parke Naturalarenean.



5. irudia. Izki Parke Naturalaren mugaketa (lerro berdea) Izki KBE/HBBEaren gainetik (urdina).

2.3.2.- Interes Bereziko Eremuak (IBE)

Izki KBE/HBBEaren aldea Interes Bereziko Eremua da Kudeaketa Plana indarrean daukaten katalogatutako basa-espezie batzuentzat; hori dela eta, aipatutako kudeaketa planen xedapenak aplikatu behar dira eremu horietan:

- 180/2003 Foru Agindua, apirilaren 1koa. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoan *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) Bisoi Europarra Kudeatzeko Plana onartzen da. IBE Markinez ibaiarekin edo Molino errekararekin bat dator, Izki Natura 2000 eremuaren mendebaldeko sektorean.
- 880/2004 Foru Agindua, urriaren 27koa. Honen bidez, *Lutra lutra* Igarabaren (Linnaeus, 1758) Kudeaketa Plana onartzen da Arabako Lurralde Historikoan. IBE Izki ibaiarekin bat dator.
- Beste alde batetik, Izki IBEetan barnean sartuta dago Batasunaren intereseko hegazti nekrofago hauentzat: ugatza, sai zuria eta sai arrea. Toki horiek hazkuntza-eremu historikoak izan direlako, edota espezie horiek bertan bizitzeko gaitasuna dutelako ezagutzen dira.

2.3.3.- Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana

Uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren arabera, Natura 2000 gunean honako hezegune hauek daude:

6. taula. EAEko Hezeguneen Inbentarioan dauden Izki KBE/HBEEko hezeguneen zerrenda:

Kod.	Izena	Taldea
B1A1_(01-54)	Arrizuloko zohikaztegiak eta Bernedoko beste zohikaztegi batzuk	I
B1A6_(01-46)	Arraia-Maeztuko zingiriak	I
B1A7_(01-09)	Kanpezuko zingiriak	I
B1A8_(01-09)	Kapilduiko zingiriak (Los Ríos-eko gunea eta beste batzuk)	I
EA1	Apinaizeko urmaela (Presilla)	I
EA5	Korreseko presa (Izkizeko putzua)	I
FA35_(01-03)	Kintanako ureztaketarako urmaelak	I
FA36_(01-03)	Urturiko ureztaketarako urmaelak	I
GA19_(01-11)	Izkizeko putzuak	I
B6A1	Olandinako urmaela	II
FA111_(01-02)	Birgara Goiengo urmaelak (2)	III
FA13_(01-04)	Maeztuko ureztaketarako urmaelak (4)	III
FA18_(01-03)	Apinaizko ureztaketarako urmaelak (3)	III

Olandina Urmaela hezegunea (B6A1) erabilera eta jardueren erregulazioaren menpean dago, bere zonifikazioaren arabera, Inbentarioko II. taldean izateagatik.

2.3.4.- EAEko Plan Hidrologikoko Gune Babestuen Erregistroa (GBE)

EAEko Plan Hidrologikoetan dagoen Gune Babestuen Erregistroak ingurune urtarrekin lotutako gunek, Europako araudiak edota beste araudi batzuek babestutakoak jasotzen ditu. Urari buruzko Esparru Zuzentarauaren (2000ko urriaren 23ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentaraua, zeinaren bitartez uren politikari dagokion esku hartzeko esparru komunitarioa ezartzen baita) 6. artikulua ezarritakoan oinarritzen da. Izki KBE/HBBEaren gunean Ur Agentziak (URA) hurrengo babestutako eremuak sartzen ditu:

7 taula. EAEko Gune Babestuen Erregistroan dauden Izki KBE/HBBEko lekuneak.

Kodea	Gune Babestuta	Mota
ES211013	Izki Parke Naturala	Beste Babes-Figura batzuk
ES2110019	Izki HBBEa	Habitat eta espezieen babes-eremuak
ES2110019	Izki KBEa	Habitat eta espezieen babes-eremuak
-	Izki ibaia	Ibai-erreserba naturala
ES091R073010	Ihuda ibaia - 1-2-4 tartea	Natura- eta ingurumen-intereseko ibai-tartea
ES091R073010	Markinez Ibaia - 1 tartea	Natura- eta ingurumen-intereseko ibai-tartea
B1A1	Arrizuloko zohikazteagiak	Hezeguneak
B6A1	Olandinako urmaela	Hezeguneak
B11A134	Los Rios-eko gunea	Hezeguneak
2308-5-0004	Carrantan iturburua, La Cruz	Hiri-hornidurako ura hartzeko guneak
2308-6-0004	Frías iturburua	Hiri-hornidurako ura hartzeko guneak
2308-6-0075	Guru Guro iturburua	Hiri-hornidurako ura hartzeko guneak
2308-6-0011	Del Cerro iturburua	Hiri-hornidurako ura hartzeko guneak
2308-6-0010	De la Carretera iturburua	Hiri-hornidurako ura hartzeko guneak
2309-1-0071	La Laguna	Hiri-hornidurako ura hartzeko guneak
2309-1-0070	Libaya	Hiri-hornidurako ura hartzeko guneak

2.3.5.- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala

2014an, EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala onetsi zen (177/2014 Dekretua, irailaren 16koa) nekazaritza eta basozaintzako erabilerak kudeatzeko eta balio agrologiko handiko lurra babesteko asmoz. Dokumentu honek nekazaritza eta basozaintzako lurrak kudeatzeko jarraibideak zehazten ditu.

2.3.6.- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Plana

Ibai-ibilguekin lotutako erabilerak eta aprobetxamenduak EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planean araututa daude (449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa).

2.3.7.- Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana

Bestetik, Araba Erdialdeko Eremu Lurraldearen Zatiko Plana (277/2004 Dekretua, abenduaren 28koa) eremuan onetsi da, berak KBE/HBBEaren gunean kokatutako udalerrien lurraldeak kudeaketa-jarraibideak jasotzen ditu.

2.3.8.- Paisaia Bikainen Katalogoa

Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Bikainen Katalogoari dagokionez, Izki KBE/HBBEan lau Paisaia Bikain daude: Mendiluzea-Jaundel-Luzaran, Hornillo-Orbiso-Izkiko Mendiak eta Ihuda, Aiago eta Berron ibaien sorburuak.

Bestalde, oro har Natura Sarea bera eta Arluzeako eremua, Urturi eta Gasteizko Mendi Garaien hegoaldeko mendi-magalak EAeko Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoan jasota daude.

2.3.9.- Important Bird Areas (IBA)

SEO/BirdLife-k Izki KBE/HBBE guztia Izki eta Gasteizko Mendien 0361 IBAan sartu du.

IBA honen azalera 18.579,07 ha-koa da eta Natura 2000 eremu honetaz gain, Gasteizko Mendi Garaiak eta , partzialki, Entzia, Ihuda ibaiertzak eta Ega-Berron ibaia ere jasotzen ditu.

2.3.10.- LAGetako Interes Naturalistikoa duten Eremuak

Izki KBE/HBBE-ak Izki eta Olandinako makua (Apinaiz) Lurralde Antolamenduaren Gidallerroetako (LAG) Interes Naturalistikoa duten Eremuak jasotzen ditu.

2.4.- NATURA 2000 SAREKO BESTE LEKUEKIN DUEN ERLAZIOA

Jarraian, ES2110019 Izki KBE/HBBEak bere inguruko Natura 2000 guneekin duen erlazioa deskribatuko da:


ES2110015 Gasteizko Mendi Garaiak KBEa: Izki KBE/HBBEaren ipar-mendebaldean kokatzen da, Okinako mendebaldean, 2.228 ha-ko azalarekin. Gune hau Izki KBE/HBBEarekin batera EAeko korrikore ekologikoaren barruan dago.

– ES2110022 Entzia KBEa: Izki KBE/HBBEaren ekialdean kokatuta dago eta Iturrieta mendiek eta Entzia mendiek eta bere mendi-adarrek osatzen dute. Gune hau Arabako erdialdeko mendilerroen korridore ekologikoaren barruan dago, Gasteizko Mendi Garaietatik Urbasa eta Andia mendilerroa (Nafarroan) doan mendikateari jarraitasuna ematen dio, non Izki KBE/HBBEa erdi-erdian dago.

– ES0000246 Arabako hegoaldeko mendilerroak HBBEa: Toloño, Kodes eta Lokiz mendilerroak Izki KBE/HBBEaren hegoaldean, hego-ekialdean eta ipar-ekialdean kokatuta daude hurrenez hurren eta HBBEa bera sortzen dute. Orobat, Toloño mendilerroa edo Kantabria BGL da (ES2110018). Gune hauek Arabako hegoaldeko mendilerroen korridore ekologikoaren barruan dago, ekialdera jarraituz eta Nafarroako Kodes eta Lokiz mendilerroekin lotuz.

– ES2200029 Kodes mendilerroa BGLa: Kodes mendilerroa BGLa Nafarroako Foru Erkidegoan dago, Izki KBE/HBBEaren hego-ekialdean. BGL hau korridore ekologikoaren parte bat Arabako erdialdeko eta hegoaldeko mendilerroetako mendi-sistemen artekoa da eta Nafarroako beste mendi-sistema batzuekiko lotura da ere bai.

- ES2110020 Ega-Berron ibaia KBEa: KBE honek Berron ibai zati bat, Izki KBE/HBBE zein Entzia KBEaren artean kokatuta dagoena; Izki ibai zati bat, KBE/HBBE homonimoaren hego-ekialde sektorean; eta Ega ibai zati bat, eremuaren hegoaldean, barne hartzen ditu. Natura 2000 Sareko gune hau interes bereziko tartea da Izki eta inguruko guneak, Entzia eta Arabako hegoaldeko mendilerroak batez ere, lotzen dituelako.
- ES2110012 Ihuda ibaia-Río Ayuda KBEa: Izki KBE/HBBEaren mendegadean kokatuta, Ihuda ibaia KBEa oso ibai-korridore garrantzitsua da eta mugakide diren Natura Sareko beste gune batzuk lotzen ditu.
- ES4120052 Ihudako Erriberak BGLa: Izki KBE/HBBEaren hegoaldean dago, Burgoseko probintzian (Gaztela eta Leon).



6. Irudia. Izki KBE/HBBEaren mugakide diren Natura 2000 Sareko guneak.

8. taula. Izki KBE/HBBEaren mugakide diren Natura 2000 Sareko guneak.

Kodea	Izena	Azalera (ha)	Eskualde biogeografikoa	Autonomia-erkidegoa
ES2110015	Gasteizko Mendi Garaiak	2.228	Atlantikoa	egoera
ES2110022	Entzia	10.006	Atlantikoa	egoera
ES0000246	Arabako hegoaldeko mendilerroak	18.529	Mediterranea	egoera

ES2110018	Toloño mendilerroa	18.515	Atlantikoa Mediterranea	egoera
ES2200029	Kodes Mendilerroa	4.571	Mediterranea	Nafarroako FE
ES2110020	Ega-Berron ibaia	226,45	Atlantikoa	egoera
ES2110012	Ihuda ibaia	66,36	Atlantikoa Mediterranea	egoera
ES4120052	Ihudako Erriberak	425	Atlantikoa Mediterranea	Gaztela eta Leon

3.- INFORMAZIO EKOLOGIKOA

Atal honetan, Izki KBE/HBBEan dauden Batasunaren zein eskualdearen intereseko flora eta fauna basatiko habitatei eta espezieei buruzko informazioa agertzen da. Kontserbazio-helburuen inguruko ezagutza osatu ahala, informazio hori ere zabalduz eta eguneratuz joango da Euskadiko naturaren informazio sisteman www.euskadi.eus/natura

3.1.- HABITAT NATURALAK ETA ERDINATURALAK

Jarraian, Izki KBE/HBBEan dauden habitaten estaldura deskribatuko da; Zuzentarauaren 92/43/EEE (BIH) habitatak aipatzen dira eta gainerakoei bere EUNIS baliokidetasuna eman zaie kodetzat, hots, Europako Ingurumen Agentziak bateratutako sailkapen-sistema.

Habitaten kartografia, hala BIH nola EUNIS, eskuragarri dagoen EUNIS base kartografikoari esker eta aldaketa txikiak eta habitaten ezagutzeko eguneratzeak eginez prestatu da. Doiketa eta eguneraketa horien bidez, guneetako habitaten inguruko informazioa eta interpretazioa hobetu ahal izan dira, Datuen Inprimaki Normalizatueta aipatzen ez ziren beste batzuk identifikatu dira eta bertan jasota zeuden baina interpretazioa okerra zena beste batzuk baztertuz.

Honako alor hauetako informazioa bildu da hurrengo taulan:

- Habitat Zuzentarauko Kodea: Batasunaren Interesdun Habitategi (BIH) dagokien kodea.
- EUNIS Kodea: habitat sailkapen honi dagokion kodea.
- Deitura: Batasunaren Intereseko Habitategiaren izena (Habitat Zuzentarauko I. eranskinean jaso ez diren habitategiaren kasuan EUNIS izena erabili da).
- Eskualdearen intereseko habitategiak (EIH): eskualdeko garrantzitsuak diren EAEko habitategiak.

- OPMeko zabalera KBE/HBBEan: BIH/EUNIS kode horri dagokion habitata, habitat nagusi gisa agertzen den poligonoen azalera osoa (ha-tan).
- KBE/HBBE eremuaren %a: BIH/EUNIS kode horri dagokion habitatak hartutako azaleraren ehuneko osoa Izki KBE/HBBEan.
- %a EAEko N2000San: BIH/EUNIS kode horri dagokion habitatak hartutako azaleraren ehuneko osoa Izki KBE/HBBEan, EAEko Natura 2000 Sarean hartutako guztiari dagokionez.
- %a EAE osoan: BIH/EUNIS kode horri dagokion habitatak hartutako azaleraren ehuneko osoa Izki KBE/HBBEan, EAE osoan hartutako guztiari dagokionez.
- Ordezkarritasuna: Batasunaren Intereseko Habitat motaren ordezkagarritasun-maila adierazten du, Natura 2000ko gune bati buruzko informazio-inprimaki bat dena eta Batzordeak hartutako Erabakiaren, 2011ko uztailaren 11koa, arabera.
- Lekuaren balorazio globala (SDF): lekuaren balorazio globala zehazten du hizpide den habitat motaren kontserbazioaren ikuspuntutik. Kasu honetan, lekuaren balorazio globala habitataren azalera erlatiboaren arabera EAE osoari eta Natura 2000 Sareari dagokionez.
- Kontserbazio-egoera Izki KBE/HBBEan: habitataren kontserbazio-egoera gunean, 17. artikulua irizpideen arabera.
- Kontserbazio-egoera EAEn: habitataren kontserbazio-egoeran EAEn, 17. artikulua irizpideen arabera.

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

9. taula. Izki KBE/HBBEaren habitaten osaera.

Kodea HZ/ EUNIS	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBBEan (ha)	KBE/HBBE eremuaren %a:	%a EAEko N2000San	%a EAF osoan	Ordezkarritasuna	Balorazio globala	Kontserbazio egoera KBE/HBBE	Kontserbazio-egoera EAFn
2330	Zelai irekiko duna kontinentalak (<i>Corynephorus</i> eta <i>Agrostis</i>)	-	5,3056	0,0560	118,4422	118,4429	A	A	A	D
3150	Magnopotamion edo Hydrocharition landareak dituzten laku eutrofitiko naturalak.	-	0,6314	0,0067	0,0733	0,0755	A	C	D	D
3170*	Aldi baterako urmael mediterraneokoak.	-	0,1033	0,0011	1,0895	1,2795	D		T	A
4020*	Zona epeletako txilardi heze atlantikoak (<i>Erica ciliaris</i> eta <i>Erica tetralix</i>)	-	0,1381	0,0015	0,0000	0,0000	C	C	T	D
4030	Txilardi lehor europarrak.	-	368,9172	3,8907	1,9585	5,7331	A	B	D	A
4090	Elorri-triska duten txilardi oromediterraneo endemikoak	-	703,8441	7,4229	4,3474	10,1225	B	B	D	A
5110	Malda arrokatsuetako <i>Buxus sempervirens</i> espeziearen formazio egonkor xerotermofiloak	-	107,4841	1,1335	6,5131	8,1562	C	B	A	D

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

Kodea HZ/ EUNIS	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBBean (ha)	KBE/HBBe eremuaren %a:	%a EAFko N2000San	%a EAF osoan	Ordezkarritasuna	Balorazio globala	Kontserbazio egoera KBE/HBBeN	Kontserbazio-egoera EAFn
6170	Kare-belardi alpetar eta subalpetarrak	-	0,8809	0,0093	0,0164	0,0225	A	B	A	A
6210	Belardi erdi-natural lehorrak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>)	-	180,2321	1,9008	5,5710	24,7427	C	C	D	D
6210(*)	Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>).	-	188,4512	1,9874			B	B	D	D
6220(*)	Substepako zonak: gramineoak eta urteko landareak (<i>Thero-Brachypodietea</i>), <i>Brachypodium retusum</i> -eko larrekin nahastuak.	-	17,2119	0,1815	0,2868	3,6328	B	B	A	D
6230*	<i>Nardus</i> formazio belarkarak, espezie ugariak, zonalde menditarreko substratu silizeoen gainean (eta Europa kontinentalako zonalde azpi-menditarrekoak)	-	63,9904	0,6749	0,9679	1,2643	C	C	D	A
7140	Trantsizio-zohikaztegiak eta istingak	-	9,1411	0,0964	6,2744	7,5600	A	A	D	D
7150	Zohikatz-substratuen gaineko sakonuneak	-	0,7225	0,0076	26,9730	26,9726	A	A	D	T

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

Kodea HZ/ EUNIS	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBEn (ha)	KBE/HBE eremuaren %a:	%a EAEko N2000San	%a EAF osoan	Ordezkarritasuna	Balorazio globala	Kontserbazio egoera KBE/HBEn	Kontserbazio-egoera EAFn
	(Rhynchonsporion)									
7210*	Kare-zohikaztegiak (<i>Cladium mariscus</i>) eta Caricion davallinae espezieak	-	1,1290	0,0119	40,7548	41,0906	B	B	A	D
7220*	Tofikoletako formazioak dituzten iturburu petrifikanteak (<i>Cratoneurion</i>)	-	0,0141	0,0001	1,3116	1,5617	A	B	D	D
7230	Lintzura alkalinoak	-	49,9297	0,5266	47,5892	54,3729	A	B	D	D
8130	Mendealdeko Mediterraneoko lur-jausi termofiloak	-	4,9368	0,0521	2,1566	2,3465	D		A	A
8210	Landaredi kasmofitikoak duten kareharrizko malgar arroksatuak	-	24,0578	0,2537	0,7029	0,8366	C	B	A	A
8310	Turistikoki ustiatu gabeko kobazuloak	-	-	-			C	C	A	D
9120	Pagadi azidofilo atlantikoak, oihanpeak dituztenak: <i>Ilex</i> eta batzuetan <i>Taxus (Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici fagenion)</i> .	-	565,0992	5,9596	2,5327	4,1678	B	B	D	T
9150	Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak	-	168,4047	1,7760	6,6350	8,1524	B	B	D	T

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

Kodea HZ/ EUNIS	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBBean (ha)	KBE/HBBe eremuaren %a:	%a EAFko N2000San	%a EAF osoan	Ordezkarritasuna	Balorazio globala	Kontserbazio egoera KBE/HBEn	Kontserbazio-egoera EAFn
	(<i>Cephalanthero-Fagion</i>)									
91D0*	Zohikaiztegi oihantsuak	-	7,1809	0,0757	89,7692	90,0617	B	B	A	D
91E0*	Baso alubialak: <i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> (Alno Padion, <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i>)	-	114,2237	1,2046	2,6823	9,9435	B	C	A	T
9230	Harizti galaiko-portugesak (<i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaica</i>).	-	3.683,4214	38,8460	39,9429	102,3989	A	A	D	T
9240	Harizti iberiarrak (<i>Quercus faginea</i> eta <i>Quercus canariensis</i>)	-	767,3475	8,0926	3,5242	11,0373	B	B	D	T
9260	Basoak (<i>Castanea sativa</i>)	-	5,2695	0,0556	1,2035	6,0101	C	C	T	T
92A0	Galeria-basoak (<i>Salix alba</i> eta <i>Populus alba</i>)	-	5,1128	0,0539	0,8912	1,2100	D		D	T
9340	T	-	99,3007	1,0472	0,4128	0,9981	C	C	D	T
9580*	Baso mediterraneokoak (<i>Taxus baccata</i>)	-	18,3975	0,1940	27,1181	27,2920	B	B	D	T

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

Kodea HZ/ EUNIS	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBBean (ha)	KBE/HBBe eremuaren %a:	%a EAEko N2000San	%a EAF osoan	Ordezkarritasuna	Balorazio globala	Kontserbazio egoera KBE/HBBe	Kontserbazio-egoera EAFn
C3.2	Helofito handien formazioak	EI	0,6812	0,0072	-	-	C	D	D	-
F3.15(X)	Ulex europaeus-en otadiak.	EI	164,0373	1,7300	-	-	B	B	A	-
G1.64	Pagadi basófilo edo neutroa	EI	1.082,3620	11,4148	-	-	A	B	A	-
G1.91	Urkiak	EI	30,2610	0,3191	-	-	B	B	D	-
C1	Ur geldi naturalen eta meandroen ur-laminak, landaredi baskulararik gabekoak	-	2,3877	0,0252	-	-	-	-	-	-
C1.(X)	Oligotrofiko, mesotrofiko edo distrofiko ur geldi iraunkorren landaredia	-	0,6037	0,0064	-	-	-	-	-	-
C2	Korrontedun ibaiak eta errekek	-	0,4438	0,0047	-	-	-	-	-	-
C3.21	Phragmites australis-lezkadiak	-	0,0594	0,0006	-	-	-	-	-	-
C3.22	Scirpus lacustris-formazioak	-	0,6736	0,0071	-	-	-	-	-	-
C3.23	<i>Typha</i> spp.-lezkadiak	-	0,3040	0,0032	-	-	-	-	-	-
D5.3	<i>Juncus effusus</i> eta beste ihi handiak nagusitzen	-	0,1327	0,0014	-	-	-	-	-	-

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

Kodea HZ/ EUNIS	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBBean (ha)	KBE/HBBE eremuaren %a:	%a EAEko N2000San	%a EAF osoan	Ordezkarritasuna	Balorazio globala	Kontserbazio egoera KBE/HBBEn	Kontserbazio-egoera EAFn
	diren ihidiak									
E2.11	Belardi larratuak eta manipulatu gabeko larreak	-	53,7165	0,5665	-	-	-	-	-	-
E2.11(X)	Ereindako larreak eta bazka-laboreen sailak	-	14,8624	0,1567	-	-	-	-	-	-
E2.13(X)	Albizi edo bestelako larre mesofilo bihurtzeko joera duten lugorriak	-	3,8325	0,0404	-	-	-	-	-	-
E2.6	Ereintzaz edo ongarri bidezko nekazal hobekuntzaz lortutako belardiak eta kirol-zelaiak	-	2,7865	0,0294	-	-	-	-	-	-
E3.41	Belardi-ihidi basofilo atlantiarrak	-	0,6489	0,0068	-	-	-	-	-	-
E5.31(Y)	Iratzedi atlantiar eta subatlantiar menditarrek	-	8,4987	0,0896	-	-	-	-	-	-
E5.6	Belarkara hostozabalak dituzten habitat antropogenikoak	-	0,4911	0,0052	-	-	-	-	-	-
F3.13	Lahardi azidofilo atlantiarra, elorriekin (<i>Rubus gr. glandulosus</i>)	-	0,4534	0,0048	-	-	-	-	-	-

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

Kodea HZ/ EUNIS	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBBean (ha)	KBE/HBBe eremuaren %a:	%a EAEko N2000San	%a EAE osoan	Ordezkarritasuna	Balorazio globala	Kontserbazio egoera KBE/HBEn	Kontserbazio-egoera EAEn
F3.17	Urritzia	-	0,1742	0,0018	-	-	-	-	-	-
F3.22	Elordi ez atlantiarra	-	29,0572	0,3064	-	-	-	-	-	-
F5.22	Maquis baxu mediterraniarra, <i>Erica scoparia</i> -rekin	-	17,3960	0,1835	-	-	-	-	-	-
F9.12(X)	Lurzoru ez harritsueto erreka bazterretako sahastiak	-	6,4706	0,0682	-	-	-	-	-	-
F9.2(X)	Ur inguruneen eta lurzoru lohitsuoen ertzetako sahastiak	-	1,5500	0,0163	-	-	-	-	-	-
F9.2(Y)	Magal hezeetako sahastiak, erreka bazterretakoak ez direnak	-	5,3393	0,0563	-	-	-	-	-	-
FA.3	Bertako espezieen heskaiak	-	4,0869	0,0431	-	-	-	-	-	-
G1.33	Ibaiertzeko lizardi mediterraniarra	-	4,3881	0,0463	-	-	-	-	-	-
G1.86	Quercus robur nagusitzen deneko baso azidofiloa	-	46,8650	0,4942	-	-	-	-	-	-
G1.92	<i>Populus tremula</i> -ren basoa	-	7,2743	0,0767	-	-	-	-	-	-

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

Kodea HZ/ EUNIS	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBBean (ha)	KBE/HBBe eremuaren %a:	%a EAEko N2000San	%a EAF osoan	Ordezkarritasuna	Balorazio globala	Kontserbazio egoera KBE/HBBe	Kontserbazio-egoera EAFn
G1.A1	Harizti-lizardi mesotrofoa	-	1,9821	0,0209	-	-	-	-	-	-
G1.C(Y)	Bestelako hostozabal hostoerorkorren landaketak	-	4,7838	0,0505	-	-	-	-	-	-
G1.C1	Populus sp.-landaketak	-	7,9835	0,0842	-	-	-	-	-	-
G1.C2	Quercus rubra-landaketak	-	7,8791	0,0831	-	-	-	-	-	-
G1.D(X)	Bestelako fruta-arbolen landaketak	-	1,3957	0,0147	-	-	-	-	-	-
G3.F(L)	<i>Pinus sylvestris</i> -landaketak	-	165,2344	1,7426	-	-	-	-	-	-
G3.F(Q)	<i>Pinus nigra</i> -landaketak	-	21,8396	0,2303	-	-	-	-	-	-
G3.F(S)	<i>Larix</i> sp.-landaketak	-	3,7946	0,0400	-	-	-	-	-	-
		<i>Primula farinosa</i>	Abeltzaintza eta basogintza bultzatzekoa	0,3322	4,6262	
			Kontserbazio Aktiboa	0,0588	0,8188	
		<i>Rhynchospora fusca</i>	Abeltzaintza eta basogintza bultzatzekoa	0,3322	4,6262	
			Kontserbazio Aktiboa	0,0588	0,8188	
		<i>Senecio carpetanus</i>	Abeltzaintza eta basogintza bultzatzekoa	0,3322	4,6262	
			Kontserbazio Aktiboa	0,0588	0,8188	
		<i>Spiranthes aestivalis</i>	Abeltzaintza eta basogintza bultzatzekoa	0,3322	4,6262	
			Kontserbazio Aktiboa	0,0588	0,8188	

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

Funtsezko Elementua	Habitatak	Lotutako espezieak	Izki P.N. zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremuko %a
		<i>Triglochin palustris</i>	Kontserbazio Aktiboa	0,0000	0,0003
	3150	<i>Isoetes durieui</i>	Kontserbazio Aktiboa	0,4670	73,9638
	3170*	<i>Littorella uniflora</i>	Kontserbazio Aktiboa	0,1033	100,000
	7220*	<i>Nymphaea alba</i>	Kontserbazio Aktiboa	0,0141	100,00
		<i>Utricularia australis</i>	Kontserbazio Aktiboa	93,1500	81,5505
		<i>Aeshna affinis</i>	Abeltzaintza eta basogintza bultzatzekoa	11,1726	9,7814
		<i>Coenagrion mercuriale</i>			
	91E0*	<i>Coenagrion meridionale</i>	Kontserbazio Aktiboa	5,7617	5,0442
		<i>Sympetrum meridionale</i>	Kontserbazio Aktiboa	3,8377	3,3598
		<i>Austropotamobius pallipes</i>	Kontserbazio Aktiboa	0,0687	0,0602
		<i>Alytes obstetricans</i>	Kontserbazio Aktiboa	3,7007	72,3799
		<i>Discoglossus jeanneae</i>	Abeltzaintza eta basogintza bultzatzekoa	0,6173	12,0741
		<i>Epidalea calamita</i>			
	92A0	<i>Hyla arborea</i>	Kontserbazio Aktiboa	0,0005	0,0090
		<i>Rana dalmatina</i>			
		<i>Mustela lutreola</i>			
		<i>Lutra lutra</i>			
Ibaiak eta ingurune erriparioak				0,2013	3,9370

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

Funtsezko Elementua	Habitatak	Lotutako espezieak	Izki P.N. zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremuko %oa
Harkaitzak eta antzeko inguruneak		<i>Arenaria vitoriana</i>	Kontserbazio Aktiboa	-	-
		<i>Armeria arenaria subsp. burgalensis</i>			
		<i>Genista eliasennenii</i>	Abeltzaintza eta basogintza bultzatzekoa	-	-
		<i>Potentilla fruticosa</i>			
		<i>Neophron percnopterus</i>	Kontserbazio Aktiboa	-	-
		<i>Gyps fulvus</i>			
		<i>Aquila chrysaetos</i>	Kontserbazio Aktiboa	-	-
		<i>Falco peregrinus</i>			
		<i>Bubo bubo</i>			
		<i>Pyrhacorax pyrrhacorax</i>			
		<i>Rhi. ferrumequinum</i>			
		<i>Rhinolophus hipposideros</i>	Kontserbazio Aktiboa	-	-
	<i>Myotis myotis</i>				
	<i>Myotis emarginatus</i>				
	<i>Pipistrellus pipistrellus</i>				
	<i>Pipistrellus kuhlii</i>				
	<i>Eptesicus serotinus</i>				

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

Funtsezko Elementua	Habitatak	Lotutako espezieak	Izki P.N. zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremuko %a
		<i>Plecotus austriacus</i> <i>Miniopterus schreibersii</i> <i>Tadarida teniotis</i>			
HAREATZAK	-	<i>Halimium lasianthum subsp. alyssoides</i>	Kontserbazio Aktiboa	-	-
Konektibitatea	-	-	-	-	-

5.- FUNTSEZKO ELEMENTUEN KONTSERBAZIO-EGOERA PRESIOAK ETA MEHATXUAK

Habitategi buruzko Zuzentarauaren arabera, «habitat baten kontserbazio-egoera» habitat naturalari eta bertan bizi diren ohiko espezieei eragiten dien arrazoen multzoa da, eta, epe luzera, lurraldeko ohiko espezieen kokapen naturalari, egiturari eta eginkizunei, baita bizirik irauperari ere eragin diezaike. Habitat natural baten «kontserbazio-egoera» «aldekotzat» joko da honelakoetan: a) berezko kokapen-ingurua eta horren barruan sartzen diren gainazalak egonkorrak badira edo handitzen badira, b) etorkizun hurbilean, epe luzean mantentzeko beharrezkoak diren egitura eta eginkizun espezifikoak egotea eta egoten jarraitzea, eta c) ohiko espezieen kontserbazio-egoera aldekoa izatea. Era berean, «espezie baten kontserbazio-egoera» espezieari eragiten dien arrazoen multzoa da, eta, epe luzera, lurraldeko populazioen banaketari eta garrantziari eragin diezaike. Eta espezie baten «kontserbazio-egoera» «ona» da baldin eta: a) haren populazioari buruzko datuek adierazten badute aurrera doala eta epe luzera funtsezkoa izaten jarrai dezakeela bere habitat naturaletan; b) haren banaketa-eremua ez bada murrizten ari eta ez badu murrizteko itxurarik etorkizunean, eta c) haren populazioak epe luzera mantentzeko adinako habitat bat badago eta etorkizunean ere egongo delako itxura badu.

Batasunaren intereseko habitat- eta espezie-mota guztien kontserbazio-egoera aldekoa lortzea da helburu nagusia; habitat- eta espezie-mota bakoitzak kalitate aldetik eta hedadura aldetik aurrera egiteko moduko egoera bat eta etorkizunean aurrera egiten jarraitzeko perspektiba onak agertzen dituen egoera bat. Helburu hau kontserbatu beharrekoak diren elementu guztientzako da.

Kontserbazio-egoerak (KE) KBeko elementuaren Keri egiten dio erreferentzia eta, hura zehazteko, bi baliabide hauek erabiltzen dira: batetik, Europako Batzordeak Habitategi buruzko Zuzentaria betetzeko eta jarraipena egiteko zuzentaria horren 17. artikuluan ezarritako betebeharrei erantzuteko garatutako metodologia; eta, bestetik, Espainian kokatutako Batasunaren intereseko habitat motak kontserbatzeko Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak garatutako aurretiko oinarri ekologikoak.

Era berean, **presioak eta mehatxuak** adierazten dira; lekuaren kontserbazioan eta kudeaketan modu positiboan edo negatiboan eragin dezaketen giza jarduerak eta prozesu natural guztiak. Haien finkatzeko, gunearen Datu Normalizatutako Inprimakiaren presio zerrenda eta kodeak erabili dira, Natura 2000 gune bati buruzko informazio-inprimaki bati lotutako Batzordearen 2011ko uztailaren 11ko Gauzatze Erabakian ezarritakoaren arabera.

Azkenik, **baldintzatzaileak** azaltzen dira, hau da, KBERako ezarritako kontserbazio-helburuak edo kontserbazio-egoera ona bideratzeko, hobetzeko edo lortzeko balio izan dezaketen beste faktore ekologiko, sozial, ekonomiko edo kultural batzuk.

1. KE.- Basoak**Kontserbazio-egoera****Harizti galaikoportugesak *Quercus robus* eta *Quercus pyrenaica*ekin -9230-**

Izki KBE/HBBEaren adierazgarriena den landaredia ameztia da. Ia azaleraren erdia betetzen du, itxura eta baldintza ezberdinekin baina etengabeko errezela sortuz. Beraz, gai hau aldekotzat jotzen da.

Gaur egun mantentzen diren erabilera tradizionalak izan ondoren (zura, egurra, abeltzaintza, historikoki erabilera asko eman zaion formazioa da, nahiz eta aprobetxamendu hau behera etorri azken hamarkada hauetan. Jaitsiera horrek bere hedapena eta sarritasun berria baldintzatu egin ditu, baita bere fisiografiko-eta kontserbazio-egoera ere.

Zentzu honetan, Izkiko amezti zabalaren barnean zuhaitziaren egoera kementsua eta kalitatezko masak, edo bata bakarrik edo biak eskasak diren masak aurki ditzakegu, bitarteko puntu guztiak aurkituz eta gehiegizko zuhaitzi dentsitateagatik menderatuta, ziurrenik aipatutako azken hamarkadetan gertatutako ustiapenaren jaitsieragatik.

Floristika aldetik pobretutako eta nitrifikatutako eremuak ere aurkitzen dira abere-hazkuntza tradizionalaren ustiapenaren ondorioagatik edo gaur egungo ustiapen okerragatik (azpiegituren okupaziok, etab.), eta hauetako batzuk ameztiarentzat oso kaltegarriak izan daitezke. Arrazoi hauengatik esan dezakegu egitura desegokia dela.

Baso horien funtzio ekologikoen jarduera kontrako alderdiekin topatzen da. Bere mesederako aipatu genituzke zabalera handia eta masen jarraipena, tokiko mailan edo beharbada eskualde mailan alderdi klimatiko edo mikroklimatiko eta konektibitatearen funtzionamendu bikaina lortzen dutelarik. Baina beste aldetik, bere egituraren heterogeneitatea, adina eta estratu begetalak, eta bere dentsitate eta dibertsitatearen urritasuna, flora naturala barne, gehienetan flora nitrofiloarengatik tokiz mugituta, aipatutako funtzioen garapen osoa mugatuz, desegokiak direla jotzen dugu.

Momentu honetan egindako ikerketek eta LIFE Pro-Izki (Izkiko ameztiaren Baso-Kudeaketa Plana) proiektuaren babesean dauden kudeaketa eta masen hobekuntzarako plan espezifikoaren abiarazteak, etorkizunerako aurreikuspenak aldekoak izatea eragin dute.

Kd. EB 9230	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala		X		

Pagadi azidofiloak -9120- eta Pagadi kaltzikolak -9150-

Pagadiak, oro har, baso trinkoak dira, zuhaitz altuez osatuak, argitasuna barrualdera sartzea zailtzen duen errezel itxi bat sortzen dutenak.

Habitati buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean eta Izki KBE/HBBEaren barnean dauden bi motatako pagadiak (9120 eta 9150) betetzen duten eremua ez da oso zabala, bien artean eremu guztia % 6a baino gutxiago lortuz; pagadi basofiloen kasuan bakarrik (EUNIS G1.64), Eskualdeko Interesa kontsideratuz, bere ordezkartza % 11 baino handiagoa da. Guztiek haien zabalera mantentzen dute, eta puntu batzuetan pixkanaka handitzen ari da sasien eremuaren kolonizazioaren mesedetan, beraz azalera aldekoa dela esan daiteke.

Pagadi hauen egitura barneko argitasun gutxiagatik baldintzatuta dago, dibertsitate floristikoa eta zuhaixken ugaritasuna murrizten duenak, adinen banaketa murriztuz, landaretzaren estratifikazioa simplifikatuz, eta egur hildaren erabilgarritasuna murriztuz. Jokaera hauek guztiak, masaren ebolutibo egoera gaztetzen dute eta egitura urriak gainezkatzen dituzte.

Komunitate hauen funtzio bereizgarrien kontserbazioari dagokionez, egitura eta dibertsitateari esker baldintzatuta daude, beraz, bi kasuetan desegokiak jo ditzakegu nahiz eta definizio zehatza lortzeko irizpideak ez egon.

Etorkizunerako aurreikuspenak etorkizunean jasango diren erabileren intentsitaren arabera datoz; beraz, egituraren hobekuntza errazteko planifikatutako eta ustiapen jasangarri batek baldintzatuta daude. Beste aldetik, abere-hazkuntzaren erabileraren jaitziera, eta amezti eta basoen zabalera, pagadien eremuaren azalerari mesede egiten dio, gai hori aldekotzat hartuz.

Kd. EB 9120	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala		X		

Kd. EB 9150	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			

Ebaluazio globala		X			
-------------------	--	---	--	--	--

Baso mediterraneoak *Taxus baccata* -9580-

Egitura eta konposaketari dagokienez komunitate oso aldakorak dira, gehienetan beste landareetan parte hartzen dutelako, beti ere, kokapen hauek ingurune-baldintza espezifiko batzuk betetzen dute lorzoru, orientazio, mikroklima etab. Baina sarbide zail eta toki maldatsuetan agertzearen arrazoia, ingurunearen eskakizunaren gozotasuna ez ezik, sua eta ingurunea erabiltzeko lortzen diren ustiapenak, hazkunde lasaia eta bitzta luzeraren emaitza da.

Izki KBE/HBBE barnean landare horiek betetzen duten eremua oso eskasa da, baina bere bakantasunagatik, bere hedapenarentzako egokiak diren inguruneen urritasunagatik eta, batez ere, eremuan gertatutako hedapenarengatik alderdi hau aldekotzat hartu behar da.

Izki KBE/HBBE barneko bi egitura hauen eraketak bi alderdi desberdin baina osagarri bereizten ditu, kartografiatutako populazio bat kareharrizko sustratoen gainean pagadi batez integratuta dagoenez, eta beste populazioa, Izki ibaiaren mugetan kokatuta dagoena, mendi-hegaletan iparraldera orientatuta, haritz, urki eta ameztiz beteta, sustratu azidoen gainean, eta populazio-dentsitate txikiak direnez, bi egitura desegokitzat hartzen dira.

Eraketa hauetako espero diren funtzioak, beste kasuetan bezala, komunitate-estrakturaren menpekoak dira, partzialak eta urriak ere bai, eraketa hauekin doazen espezieen falta adierazten den bezala, adibide moduan. Beraz, funtzio hauek desegokitzat hartzen dira.

Habitat horren etorkizunerako aurreikuspenak aldekoak dira batez ere haginaren dentsitatea handia den tokietan aziendaren baztertearengatik, baina baita eremuan gertatu den abere-hazkuntzaren presioaren jaitzierarengatik ere. Jaisiera horrek hagina bazterte eremuetatik kanpo agertzen den puntuei lagunduko die.

Kd. EB 9580*	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala		X		

Dryopteris carthusiana

Baso ospel eta hezeetako berezko iratzea, lurzoru putzudunak zein zingiratsuak nahiago dituena.

Pirinioetan baits mendiguneetan eta Kantauri kostaldeetan ere kokatzen da; EAEn Gipuzkoan eta Araban dago, Arabako Entzia eta Kantauri mendilerroetan eta Izki mendietan.

EAEko eremuan dauden lekuen kopurua murriztu dela dirudi. Alabaina, Izki KBE/HBBEan estatusa mantentzen da eta bere banaketa, ordea, aldekoa da.

Eremu honetan dagoen oraingo populazioaren handitu edo murriztu den ez dakigu. Jotzen badugu orain bizirik jarraitzen diren giroetan ez direla aldatu eta populazio hauek egonkorrak mantentzen direla eta, beraz, ez direla ailegatu bere «Aldeko Populazio-Erreferentzia»-ra, KBE/HBBEan bere populazioa desegokia dela jo behar dugu.

Habitataren eta bere eremuaren ezaugarriak direla eta, egonkortasun handiko inguru batean dagoela dirudi, non espeziearen aleak bizirik iraungo dira. Orduan, Izkin dagoen habitata aldekoa dela jotzen da.

Inguruneke hezetasun handiko zein ezaugarri edafikoak, baita baso-nemoral giroa ere, mantentzea oinarritzkoa da espezie horretarako. Bi baldintza horiek Izkin gertatzen dira; beraz, espeziearen etorkizunerako aurreikuspenak aldekoak dira.

Kd. EB -	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala		X		

Narcissus gr. pseudonarcissus

Biztanleriak ezagutzen duen landare handia da eta bere loraketa deigarria da. Ezaugarri horiek bere kontrandoaz oso bilketa-tasa handia daukalako.

Normalean, hiru azpiespezie aurkitzen dira talde honen barruan, baina bere zailtasun taxonomikoagatik elkarrekin hartzen dira. Izki KBE/HBBEan horietako bi azpiespezie aurkitzen dira. *N. pseudonarcissus* subsp. *Varduliensis*a gehien aipatzen dena eta EAEko ekialdeko aldean aurkitzen dena da. *N. pseudonarcissus* subsp. *nobilis*ek EAEko mendebaldeko aldean dauden populazio hoberena du.

Penintsulako taldearen banaketak Kantauriar mendikatea nagusiki inguratzen du; Pirinioetan eta penintsulako ipar-erdiko mendietan, bestalde, gutxiago aurkitzen da.

EAEEn maiz azaltzen den landarea da oro har, erdiko eta hegoaldeko mendilerroetan biltzen bada ere. Izkin ere, oso banaketa ona duen taldea da, babestutako azpiespeziea (*N.pseudonarcissus* subsp. *nobilis*) egon ez arren: 15 1x1 UTM aukietatik bakarrik bat dagokio espezie horri (30TWN4426).

Talde honen populazioak nahiko onak dira, batzuk oso zabalak, eta nahiz eta asmo edergarriekin loreak moztu, populazio irizpidea aldekoa da.

Espeziaren habitata baldintza nagusi onetan mantentzen da, hau da, bere egoera ere aldekoa da.

Etorkizunerako aurreikuspenak aldekoak dira, loreen eta batzuetan erraboilten mozketa agertu arren.

Kd. EB 1857	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Narcissus triandrus subsp. triandrus

Ia Iberiar penintsulako ipar-mendebaldeko koadrantean bakarrik topa daitekeen endemismo iberikoa da. Bere kokapenaren ipar-ekialdean EAEn eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko muga dauka.

Baso-soilgune eta baso argietan aurkitzen dira, gutxi gorabeherako harritsu eremuetan ere hazten dira, baina ez sarritan, eta bere populazioak ez dira handiak.

EAE barruko kokapenari dagokionez, Bizkaian populazio bat ezagutzen da, eta beste batzuk Arabako hego-ekialdean: Kodes mendilerroan (Yoar) bi ale aurkitzen dira, Izkin beste bat eta Hornillos mendian beste bat.

Beraz, gunearen barruan espezie honentzat gaur egun ezagutzen den eremua oso txikia da, baita espezie honen populazioaren tamaina ere. Horregatik, bi irizpide hauen arabera, desegokitza kalifikatzen dira.

Gaur egun hartzen duen habitata egonkorra dela dirudi, eta nahiz eta bere eboluzioa ez ezagutu, etorkizunerako aurreikuspenak desegokiak direla pentsatu daiteke baso eta sasien estalduraren handitzeagatik.

Kd. EB 1996	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Ebaluazio globala		X		

Sorbus latifolia

Jatorri hibridogenoko zuhaitz txikia, baso freskoetan eta substratu mota ororen gaineko heskaietan bizi ohi dena. Ia ez du sexu-ugalketarik; beraz, ekologiako ohiko zenbait kontzeptu eta, besteak beste, populazioari eta konektibitateari dagozkionak, itxuragabetuta geratzen dira.

Kokapen sakabanatua du penintsulan, eta kontzentrazio-puntuetako bat Burgos iparraldearen (Gaztela eta Leon) eta EAĒren artean du. Kodes mendilerroa da dispersio handieneko puntua.

Izki KBE/HBBEan Buxanda alboan dauden erkameztiko orletan eta pagadietan aipatu dira. Oro har, populazio murrizta da eta bere banaketa desagokizat hartu behar da.

Espezieak gunearen barruan erabilitako habitata bizirik jarraitzeko egokia da, baina eremuan noizbehinkako presentziari dagokionez, galtzeko arriskua ez da desagertzen.

Etorkizunerako aurreikuspenak desagokizat hartzen dira, populazioaren urritasunarengatik, dispersioarengatik, eta sexu-ugalketaren independentzia erlatiboak haien dispersioa edo ohiko bideen bitartez haien eremua zabaltzea zailtzen duelako eta, hortaz, aurreikusteko modukoa ez delako.

Kd. EB -	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Ebaluazio globala		X		

Kaprikornio handia (*Cerambyx cerdo*) - 1088

Kaprikornio handia (*Cerambyx cerdo*) koleoptero sapiroxiliko bat da, eta EAĒn duen habitat naturala bat dator arbolak kontserbatzen dituzten *Quercus* generokoek baso helduekin (*Quercus robur*, *Q. faginea*, *Q. pyrenaica*, etab.) Espeziearen errekerimendu ekologikoak direla eta, Izki KBE/HBBEak bizigarritasun-ezaugarri onak ditu espezie honentzat.

Ez dira ezagutzen beste ezaugarriak, hau da, eremuaren inguruan daukan banaketa eta populazio mailak ezezagunak dira.

Izki KBE/HBBEko etorkizuneko perspektibei dagokienez, aldekotzat hartzen dira, betiere, *Quercus* generoko zuhaitz urtetsuen aleak kontserbatzen badira.

Kd. EB 1088	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala				X

Arkanbelea (*Lucanus cervus*) - 1083

Arkanbelea (*Lucanus cervus*) ere *Quercus* generoko basoei lotuta dago (*Quercus robur*, *Q. faginea*, etc.), baina zuhaitz- nahiz zuhaixka-formako espezieez osatutako edozein motatako baso misto hostogalkor ere koloniza dezake: gaztainondoak (*Castanea sativa*), pagoak (*Fagus sylvatica*), lizarrak (*Fraxinus excelsior*), etab. Espezie hau ez da *Cerambyx cerdo* bezain selektiboa. Aldekotzat baloratzen da Izki KBE/HBBEko espeziearen habitat potentziala.

Aurreko intsektuaren kasuan bezalaxe, ezezagunak zaizkigu Natura 2000 gunean dituen kokapena eta populazio-mailak.

Bestalde, etorkizunerako aurreikuspenak aldekotzat hartzen dira, haren habitataren ezaugarriak kontserbatzen badira behintzat: zuhaitz urtetsuen babesaren eta deskonposizio-bidean den zur lodia-aren presentzia.

Kd. EB 1083	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala				X

Kakalardo adarluze alpetar (*Rosalia alpina*) - 1087

Pagadiekin lotura handia duen koleoptero saproxilikoa da. Bere laerak pago, haritz, lizar, intxaurren, etabarretan hedatzen dira, eta ale nagusiak berriz, lurlean dauden enborretan eta hilzorian dauden zuhaitzetan aurkitzen dira, mendekoak direnak. Izkin daukaten habitat potentziala aldekoa da.

Banaketa edo eremuaren populazio gertagarria ez da ezagutzen, KBE/HBBEan aipamen bakarra daukatelako, beraz, ezin izan da ebaluatu.

Espeziearen etorkizunerako eremuaren ikuspuntuari dagokionez, aldekoa da habitataren ezaugarriak mantentzen badira.

Kd. EB 1088	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala				X

Zingira-dontzeila (*Euphydryas aurinia*) - 1065

Zingira-dontzeila (*Euphydryas aurinia*) basoko lepidoptero bat da, ongi kontserbatutako oihanpeak, lianatan aberatsak (haietatik elikatzen da larba-aldian), bizileku gisa dituen. Ontzat hartu da Izki KBE/HBBEan duen habitata.

Izki KBE/HBBEko *Euphydryas auriniaren* kokapenari eta populazioari buruzko informaziorik ez dago apenas gaur gun eta, ondorioz, ezin da baloratu.

Gune hauek espezieetan aberatsak diren oihanpeetan izan arren, haien kokapenari eta populazio-mailei buruzko informaziorik ez dagoenez, tximeleta honek gune honetan dituen etorkizunerako aurreikuspenak ezin dira zehaztu.

Kd. EB 1065	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Zapelaitz liztorjalea (*Pernis apivorus*) – A072

Basoko harrapari bat da, soilgune handiak dituzten baso hostogalkorrei lotua (batez ere pagadiak eta hariztiak), baina gaztainondo, urki, pinu gorri, arte edo ibai-sastrakadiz osatutako basoetan ere aipatu da. Izkin espeziearentzako habitat potentzialaren kontserbazio-egoera aldekoa dela uste da.

Azterketa-eremuan udako espezie bat da, baina banakako batzuk edo talde txiki batzuk ere igarotzen dira uda-amaieran.

Espezie honen presentzia txikia baina egonkorra da, 5-8 ugalketa-bikoteekin Izkiko baso-lekuetan. Hau guztia dela eta, populazio-mailak zein KBE/HBBEko banaketa aldekoak dira.

Hala, gune honetako zapelaitz liztorjalearen ugalketa-populazioaren etorkizunerako aurreikuspenak aldekoak direla uste da, betiere, espeziearen ugalketa- eta larreratze-habitataren egoera kontserbatzen bada.

Kd. EB A072	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Miru gorria (*Milvus milvus*) – A074

Basoko hegaztia, filopatrickoa. Hegazti hau habiak egiteko eta elikatzeko substratuak dauden lekuetan egoten da (lotura du simaurtegien, abeltegien, zabortegien, abeltzaintza estentsiboaren etabarren presentziarekin). Gunean, habitata eta kokapena espeziearentzat egokiak direla uste da.

Izki KBE/HBBEan espezie sedentarioa da, baina askotan ikusten dira pasaeran edo migrazioan diren banakakoen kontzentrazioak, eta negutarrak ez dira horrenbeste.

Ugalketarako egungo populazio-datuak 2-4 bikote artean dabilta, 2001ean zenbatutakoa eta Izkiko Parke Naturalaren barruan.

Iberiar penintsulako populazioaren gaineko mehatxu nagusiak harrapakariak legez kanpo kontrolatzeko pozoinen erabilerari, linea elektrikoetako elektrokuizioari eta zabortegi eta simaurtegien itxierari lotuta daude. Ildo horretan, Izkin ia ez da miru gorriaren populazioarenganako afekziorik erregistratu. Hala ere, Arabako Lurralde Historikoan, ugalketa-populazioaren joera ez da oso ona; beraz, etorkizunerako aurreikuspenak ezezagunak dira.

Kd. EB A074	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Arrano sugezalea (*Circaetus gallicus*) – A080

Basoko harraparia, artadie, artelatz-basoei eta, neurri txikiagoan, hariztiei eta pagadiei lotua, betiere, gune irekiak badituzte, larreratzeko eremu gisa erabiltzen baitituzte. Errekerimendu ekologiko hauek direla eta, Izki KBE/HBBEko espeziearen habitat potentziala aldekoa dela uste da.

Guneak osatzen dituzten mendilerroetan udako ugalketa-hegazti bat da. Lau edo bost lurraldetan aipatu dira Kapildui, Arluzea, Apinaiz, El Encinar eta Buxanda aldeetan. Migrazio-paseetan gutxi erregistratzen dira. Beraz, haren kokapena zein populazioa ontzat hartzen dira Izkin.

Arrano honek Estatuan dituen mehatxu nagusiak honako hauek dira: linea elektrikoetako elektrokuizioak, nekazaritza-guneetako narrasti-populazioen murrizketa eta sastrakadiaren okupazioa haren larreratze-guneetan. Izkin ez da inolako gorabehera aipagarrikeri erregistratu espezie honentzat; beraz, guneetako etorkizunerako aurreikuspenak a direla uste da.

Kd. EB A080	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Aztoarea (*Accipiter gentilis*) – A085

Penintsulako lurralde osoan hedatzen den basoko espezie bat da, nagusiki mendiko gune oihantsuei lotua, baina baita nekazaritzari lotuago dauden eremuei ere. Izkin bertako habitataren ezaugarriak ontzat hartzen dira eguneko harrapariarentzat.

Eremuan gutxienez 6-8 habia egiteko toki daude, beti hedapen handiko baso helduetako masekin erlazionatuta; De los Rios, Los Molinos, Belabia, Los Arrancados, Picardula, Soila, San Pedro edo La Muela sakanetan dauden bezalakoak. Horrela, espezie honen hedapena eremuan aldekotzat hartzen da, baita erregistratutako populazio-mailak ere.

Aztoarearen penintsulako populazioak dituen mehatxu nagusiak honako hauek dira: elektrokuzioa, organokloratuen ondoriozko kutsadura, isileko ehiza eta piroen espoliazioa, eta baso-sailen ustiapen desegokia. Izki KBE/HBBEan ia ez da afekziorik aipatzen; beraz, haren etorkizunerako aurreikuspenak aldekotzat hartzen dira.

Kd. EB A085	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Arrano txikia (*Hieraetus pennatus*) – A092

Bereziki basokoa den hegazti bat da, eta soilgune eta gune irekiekin tartekatutako formazio oihantsuetan agertzen da (pinudiak, pagadiak, hariztiak, etab.) Errekerimendu ekologiko hauek direla eta, Izki KBE/HBBEko espeziearen habitat potentziala ona dela uste da.

Izki KBE/HBBEan udako ugalketa-hegazti bat da, eta inguruan 3 ugalketako lurralde gutxienez aipatu dira: Urturi, Ipurtika eta Antoñana. Migrazio-paseko ale gutxi batzuk ere erregistratzen dira. Arrano txikiaren banaketa nahiz ugalketa populazioa Izki KBE/HBBEan aldekoak dira.

Oro har, arrano honentzat aipatutako mehatxu nagusiak honako hauek dira: formazio oihantsuen desegitea eta degradazioa, isileko ehiza, habien espoliazioa, linea elektrikoekin talka egitea eta ugalketa-garaiko eragozpenak. Izkin ez da espeziearen gaineko eragin nabarmenik aipatzen, eta etorkizuneko aldeko perspektibak dituela uste da KBE/HBBEan.

Kd. EB A092	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			

Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Okil beltza (*Dryocopus martius*) – A236

Baso heldu hezeei lotutako espeziea, batez ere pagadi eta pinudiei (*Pinus sylvestris* eta *P. nigra*), baina baita harizti, amezti eta bestelakoei ere. Zenbait autorek koniferoen hautaketa positibo bat adierazten dute elikadura-substratu gisa. Habiak egiteko, aldiz, tamaina handikoak diren eta adarrik gabeko enborra duten pagoak hautatzen ditu nagusiki. Izki KBE/HBBEko espeziearen habitat potentziala aldekoa dela zehaztu da. Beraz, Izki KBE/HBBEko habitata ontzat hartzen da espezie honentzat.

Iberiar penintsulan bi azpipopulazio disjuntu deskribatu dira: bata Pirinioetan eta bestea Kantauri mendikatean. Hala ere, egin diren ikerketa berrien arabera, bi populazio horiek lotzen dituen gunean, EAEn, finkatuta dago espeziea. KBE/HBBEan soilik hegoaldeko muturrean aipatzen da, eremuaren banaketa, beraz, aldekoa da. Hala, ezin dira baloratu gunean duen kokapena eta populazio-mailak.

Etorkizunerako aurreikuspenak ezezagunak dira, espeziearen hedapena gertatu ondoren iberiar mailan, eta bere habitatean aldaketak ez baldin badira agertzen.

Kd. EB A236	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Okil ertaina (*Dendrocopos medius*) – A238

Okil ertaina Europako eta Ekialde Hurbileko klima kontinental bero eta epeleko guneetan aurkitzen da, eta Iberiar penintsularen iparraldea du munduko kokalekurik hego-mendebaldekoa.

Baso hostogalkor helduei lotua dago, eta elikadura-substratu gisa nagusiki *Quercus* hostogalkorren, *Fagus sylvaticaren* eta *Populus tremularen* ale biziak hautatzen ditu, 36 zm-tik gorako diametrodunak. Bestalde, habiak egiteko zuhaitz guztiak 18 zm-tik gorako diametroa duten *Quercus* ale hostogalkorrek dira, biziak zein erdi hilak edo hilak, bikote bakoitzeko 10-40 ha-ko okupazio-azalerekin. Hala, Izki KBE/HBBEan okil ertainaren habitata aldekotzat baloratzen da.

Gunean duen kokapenari dagokionez, amezti eremuetan aurki ahal da, erkamezti lursaileko ugalketa guneak

ez aurkitu arren. Beraz, kokapena ontzat hartzen da.

Populazio-mailei dagokienez, 340 lekukoa eta 320 bikotekoa da, Iberiar penintsulan populazio-nukleo guztien arteko garrantzitsueneko bat izaten, hau da, aldeko egoera da.

Etorkizunerako aurreikuspenak ere aldekoak dira habitaten baldintzak mantentzen badira.

Kd. EB A238	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Okil txikia (*Dendrocopos minor*) – A240

Okil txikia espezie paleartiko bat da, Iberiar penintsulan kokapen etena duena, hiru gune nagusirekin: bata mendebaldeko Sistema Zentralean, beste bat ipar-ekialdeko sektorean eta hirugarrena EAEn, Nafarroan eta Errioxan.

Deskonposatzen ari den zur hil askoko baso hostogalkor helduetan egoten da; espezie honen habitataren egoera Izkin, beraz, aldekoa da.

Gunean duen kokapena zabala da eta batez ere pagadi eta hariztietan topatzen da. Beraz, okil txikiaren banaketa KBE/HBBEan aldekoa da.

Bestalde, 5-10 arteko ugalketarako bikoteak aurkitzen dira, beraz, datu hau aldekotzat hartzen da, baita espezie honen etorkizunerako aurreikuspenak ere.

Kd. EB A240	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Bechstein saguzarra (*Myotis bechsteini*) - 1323

Soil-soilik basoetan ibiltzen den kiropteroa, batez ere bailara-hondoetako baso hostogalkorrei lotua (gehienbat *Quercus robur* eta *Quercus pyrenaica*).

Ugalketa-koloniak hilzorian edo zahartuta dauden zuhaitzen zuloetan kokatzen dira (nagusiki pizidoek eraikiak), baina habia-kaxa artifizialetan ere egiten dute beren txokoa. Bestalde, ar sedentarioak mota guztietako zuloetan (adar hiletako zartadurak, etab.) babesten dira.

Larreratze-eremua 5-10 ha inguruko azalera batean kontzentratzen da, batzuk besteekin gainjartzen dira eta behar-beharrezkoak ditu ur-masak. Hortaz, gunetako espeziearen habitat potentziala ontzat hartzen da, hainbat ugalketa eremuak daudelako Izki KBE/HBBEan.

Hazkuntza-koloniak talde sozial itxiak dira, etengabe banantzen eta berriro taldekatzen diren eme ahaidetuek osatutakoak, eta beren artean hurbil dauden zenbait aterpe har ditzakete aldi berean. Izkin ez dakigu zehazki zenbat dauden, baina 2008an lehenengo espeziea aurkitu zen eta hemendik aurrera laginketa lanak handiagotu ziren eta bi urte ondoren hiru aterpe aurkitu ziren.

Banaketa eremuan aldekoa da, adineko zuhaitzetan aurkitzen baitira eta ur-masak baitaude.

Aurreko guztia kontuan hartuta, espezieak Izki KBE/HBBEan dituen etorkizunerako aurreikuspenak ez dira ezagutzen.

Kd. EB 1323	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Saguzar biboteduna (*Myotis mystacinus*) - 1330

Soil-soilik basoetan ibiltzen den espezie hau baso-sail trinkoko mendiguneetan kokatzen da; batez ere zuhaitz hostotsuen baso helduetan (pagadietan nagusiki, baina baita koniferoetan ere). Udan zuhaitzen zuloetan, habia-kaxetan, arroka-zartaduretan edo teilatupeetan babesten da. Neguan, aldiz, nahiago ditu haitzulo hezeak eta zubipeko zuloak. Izki KBE/HBBEko bere habitat potentzialaren ezaugarriak aldekotzat hartzen dira.

Ezezagunak zaizkigu guneko espeziearen populazio-mailak eta etorkizunerako aurreikuspenak.

Haren kokapena aldekotzat hartzen da; nagusiki eremuaren erdiko eta hegoaldeko sektorean.

Kd. EB 1330	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Saguzar bibotedun txikia (*Myotis alcahoe*) - 5004

Saguzar bibotedun txikia saguzar kriptikoen artean kokatzen da, teknika molekularren ezarpenaren ondoren horrela ezagutu izan zen. Beraz, Iberiar penintsulako iparraldean kokatzen dira: Galizia, Errioxa, Nafarroa eta Euskal Herrian (gaur egun ezagututako populazio bakarra Izkin kokatzen da).

Basoko espeziea da, pagadien baso hostotsuei elkartuta, bere zelai eremuak ezartzen dituen lekuetan, beti ur-masa hadiekin loturik. Ugalketa koloniak *Quercus robur* eta *Quercus petrae* helduen arrail eta zulguneetan bereziki ezartzen dira, baita harrien fisura edo habi-kutxetan. Beraz, espezie honen habitata aldekotzat hartzen da KBE/HBBEan.

Izkin, El Raso de los Espinos eta El Bardal eremuen inguruneetan deskribatu egin dira eta bere banaketa-eremuan aldekotzat ere baloratu da.

EAEan ezagutzen den ugalketa populazio bakarra Izkin dago, baina etorkizunerako aurreikuspenak ezezagunak dira KBE/HBBEan.

Kd. EB 5004	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Natterer saguzarra (*Myotis nattereri*) - 1322

Saguzar hau hainbat biotopori lotuta dago; gunee basotsu itxietatik hasi eta landaredi zuhaizkara urriko leku irekiagoetan ere aurki daiteke, betiere, kontserbazio-egoera onean badaude; zuhaitz-sail zabalarekin,

bereziki, hostogalkorrak. Aterpe gisa haitzuloak, meatzeak, tunelak, zuhaitzen zuloak, hausturak edo zubiak hartzen dituzte. Aldekotzat hartzen da Izkin naturagune babestu honetako espeziearen habitat potentziala.

Gaur egun, ez ditugu bere populazio-mailak ezagutzen, baina Izkin kolonia bat ibiltzen dela dirudi.

Beraz, KBE/HBBEan gunetako banaketa aldekotzat hartzen da, eremuaren erdiko eta hegoaldeko sektoreetan aurkitu baitira.

Etorkizunerako aurreikuspenak ezta ere izan dira ebaluatu, informazio-faltagatik.

Kd. EB 1322	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Daubenton saguzarra (*Myotis daubentonii*) - 1314

Urbide edo ur-masei lotua (urmaelak, ibaiak, errekek, etab.), Daubenton saguzarrak hainbat aterpe hartzen ditu; zuhaitzak eta arroketako, zubietako zein haitzuloetako pitzadurak, besteak beste. Izki KBE/HBBEko bere habitat potentziala aldekotzat hartzen da.

KBE/HBBEan dagoen ohiko espezie bat da, hezegune mota askotan aurkitzen dena eta aldekotzat hartzen den banaketa daukana.

Guneetan espezie hau ohikoa izan arren, ez dakigu zenbateko populazioa duen ezta etorkizunerako zer aurreikuspenak ere.

Kd. EB 1314	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Gau-saguzar txikia (*Nyctalus leisleri*) - 1331

Basoetan ibili ohi den espezie hau, batez ere zuhaitz hostotsuez eta koniferez osatutako eta orografia irregularreko basoetan bizi da, baina parkeetan eta hiriguneetan ere topatzen da. Zuhaitzetako zuloetan babesten da, baina baita habia-kaxa zein eraikinetan ere, eta gune irekiekin tartekatutako gune basotsuak ditu larreratzeko eremutzat. Guneo habitata aldekoa da berarentzat.

Ohikotzat hartu arren, ez dakigu zenbateko populazioa duen. Eremu-banaketa aldekoa da, ordea, honen eta bere eremuaren puntu ezberdinetan kokatuz.

Etorkizunerako aurreikuspenak ere ezin izan dira ebaluatu, informazio-faltagatik.

Kd. EB 1331	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Gau- saguzar ertaina (*Nyctalus noctula*) - 5766

Baso-saguzarra da, zuhaitzen zuloetan ezkutatzen dena urte osoan zehar, nahiz eta eraikin, zubi edo harresien zuloetan edo kabi-kutxetan ere aurki ditzakegu. Haien larreratze habitata eremu irekietan kokatzen da, parke edo basoak muga dutelarik eta beti ur eremuz integratuta, ehizatze lekuetan. Ondorioz, Izki KBE/HBBEan habitata aldekotzat hartzen da.

Nahiz eta eremuan modu egokian banatuta egon, populazio kontingentea ezezaguna da, etorkizunerako aurreikuspenakbezala.

Kd. EB 5766	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Baso-saguzarra (*Barbastella barbastellus*) - 1308

Mendiguneei lotutako basoko kiroptero bat da, eta ongi kontserbatutako sail helduetan jartzen ditu hazkuntza-koloniak, zuhaitzen azal soltearen azpian (batez ere pago zaharretan edo hiltzeko zorian daudenetan). EAEn habia-kaxetan, haitzuloetan eta eraikinetako pitzaduretan ere aurkitu dira hazkuntza-koloniak. Lurpeko babeslekuetan hibernatzen du; haitzuloetan, bunkerretan, tuneletan eta sotoetan, besteak beste. Izki KBE/HBBEko habitata espeziearentzat aldekoa dela uste da.

Ez dakigu zenbat dauden Izki KBE/HBBEan, eta ezezagunak zaizkigu espezieak gunehauetan dituen etorkizunerako aurreikuspenak. Baina bere banaketa aldekoa dela dirudi, pagadietan aurkitzen baitira.

Kd. EB 1308	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Ipar belarrihandia (*Plecotus auritus*) - 1326

Habitat-dibertsitateari lotutako basoko kiropteroa. Batez ere baso hostogalkorrak hautatzen ditu larreratzeko eta ehizarako. Udan zuhaitzetatik hurbil dauden eraikinetako teilatu eta ganbarak hartzen ditu, baita zuhaitzetako zuloak edo habi-kaxak ere. Bestalde, neguan haitzuloak eta meatzeak batez ere hautatzen ditu, baita zuhaitzetako zuloak ere. Beraz, bere errekerimendu ekologikoetan oinarrituta, Izkin dagoen habitata aldekoa da espeziearentzat.

Izkin bere kokapena aldekotzat hartzen da; gunehauetako populazio-mailak ezagutu ez arren.

Etorkizunerako aurreikuspenak ere ezin izan dira ebaluatu, informazio-faltarengatik.

Kd. EB 1326	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X

Ebaluazio globala				X	
Presioak eta mehatxuak					
<p>- <u>Artzaintza (A04)</u>: abere-hazkuntza tradizionalen ustiapenaren ondorioak ameztien erregenerazioan oihanpearen kantitate eta dibertsitatean, ugari eta era askotarikoak direnak, islatu egiten da.</p> <p>- <u>Artzaintza intentsiboa (A04.01)</u>: Izki KBE/HBBEan kokatutako mehatxu zehatz bat da, amezti eremu konkretuei kalte egiten diona eta urte osoan zehar abereen presentzia iraunkorra dena, eremu eta denbora erregulazioak ez baitaude.</p> <p>- <u>Artzaintza ez intentsiboa (A04.02)</u>: etxeko ganaduaren zein basoko unglatuen belarjaletasunak nabarmen eragiten dio haginaren birsorkuntzari, eta baldintza garrantzitsua izan daiteke habitat honen bilakaerarako eta kontserbaziorako, baita pagadietan edo bestelako baso-formazio batzuetan espeziearen presentzia izateko ere.</p> <p>- <u>Artzaintzaren sistemen bertan behera uztea, artzaintzen falta (A04.03)</u>: Izkin, zuhaixka-estratuaren dibertsitate ezari, lahar eta beste espezie nitrofilak gehitzen zaie, ugariak edo menderatzaileak direnak abere-hazkuntz presio gutxi daukaten eremuetan. Beste aldetik, eremu hauetan, pagadien hedapena ikus daiteke larre irekien kontura, batez ere sasiak, baina baita ameztien baso formakuntzen kontuan pagadi azidofiloen kasuan.</p> <p>- <u>Bioziden, hormonon eta produktu kimikoen erabilera (A07)</u>: baso-sailei erantsitako nekazaritza-laborantzetan biozidak eta produktu kimikoak erabiltzeak eragiten du presio hau, eta batez ere gune hauek elikatzeke eremu gisa erabiltzen dituzten basoko kiropteroen populazioari eragiten die.</p> <p>- <u>Landa irekiko baso-sartzea (B01)</u>: mehatxu positiboa da, batez ere 9120 eta 9150 BIHei zuzendua. Izan ere, energia-iturri gisa egurra eta ikatza erabiltzetik erregai fosilak erabiltzera igarotzeak habitat hauen gaineko presioa nabarmen txikitzea ekarri du. Hala, egitura eta dibertsitatea aberastu egin dira pixka bat, hariztien kasuan batez ere.</p> <p>- <u>Basoak eta landaketak kudeatzea (B02)</u>: egungo erabilera tradizionala eusteak, iraganekoa baino urrikoa den arren, eta, bereziki, egurraren eta zuraren aprobetxamenduak jarraitzen dute baso-habitaten egitura eta funtzioak baldintzatzen. Hala, ameztiaren kasuan zuhaitzen edadeak, tamainak eta dentsitateak oso desberdinak dira oro-har; hala ere, ertain-txikiko diametroko zuhaitzak, ale-dentsitate handikoekin, ugarienak dira eta horrek zurtoinen garapenari eta berezko lehengoratzeari traba egiten die, zuhaitzen arteko eragindako lehiaketagatik. Horrela, tamaina handiko zuhaitz gutzi eta egur-hil gutxiarekin, lurzoruan zein zutik, dago.</p> <p>- <u>Oihanpea kentzea (B02.03)</u>: <i>Euphydryas aurinia</i> eta <i>Callimorpha quadripunctaria</i> basa-lepidopteroen kasuan, orla arantzatsuak eta oihanpea kentzea da, bereziki, mehatxu nagusietako bat.</p> <p>- <u>Zuhaitz hilak edo kaltetuak kentzea (B02.04)</u>: faunaren kasuan, mehatxu nagusiak basoetan egur hil gutxi izatean datzate.</p>					

- Baso-garbiketak (B02.06): batez ere hagin-basoei zuzendutako mehatxua, izan ere, hazteko denbora asko behar dutenez, epe luzera basoko zenbait jarduketek kaltetu ditzakete (beste zuhaitz-formazio batzuetan positiboak direnak edo kaltegarriak ez direnak).
- Bioziden, hormonon eta produktu kimikoen erabilera (basogintza) (B04): intsektu-izurrien aurkako aplikazioetan espektro zabala duten konposatu kimikoak erabiltzea da erregistratutako beste mehatxu faktoreetako bat, batez ere intsektu saproxilikoan, basoko pizidoen eta kiropteroen populazioarentzat.
- Linea elektrikoak eta linea telefonikoak (D02.01): presio positibo bat da, izan ere, 2004an, Araban Bonelli arranoa berreskuratzeko LIFE-Natura proiektuaren bidez, linea elektrikoak zuzendu ziren, 1,8 km-tan eta 13,2 kv-takoa Korredera bidean.
- Tranpekin egindako harrapaketak, pozoia eta isileko ehiza (F03.02.03): Izkin basoko harraparietarako afekzio garrantzitsuak aipatzen ez badira ere, legez kontrako pozoiak erabiltzagatik eragiten den hildakoen aleak populazioari kalteak zor diezaioke.
- Lurzoruko landareen bilketa eta ezabapena, orokorra (F04): *Narcissus gr. pseudonarcissus* landareen ikusgarritasunak, mendizale eta txangozaleen bilketa areagotzen du, baita biztanleria landatarraren erraboiaren bilketa landatzeko, populazioa bai ugalketa gertatzeko aukerak murriztuz.
- Ekosistemen beste aldaketa batzuk (J03): kiropteroen kasuan, aurreko mehatxuei ur-masa edo -puntu egokien urritasuna gehitzen zaie (eme bular-emaileentzat batez ere).
- Habitaten konektibitatea murriztea, kausa antropogenikoengatik (J03.02): Izkin Elkartzean dauden pagadien duintasun txikiagoa adierazi daiteke eta Izki KBE/HBBEaren barruko xatiketa handiagoa ere dago. Hau da, arreta bereziko izan behar dena.

Baldintzatzaileak

Ameztien artean agertzen diren zuhaitz-espezieen agerpena, modu isolatuan edo taldeak osatuz, beste formakuntza haltzadi, sasiak eta larreek besala, dibertsitate ekologiko eta biologiko handia ematen diote multzoari, KBE/HBBEan elementu faunistiko bereizgarrietan isladatzen direnak. Modu berdinean, taxon faunistiko batzuei, kontuan hartu beharreko baldintzatzaile batzuk sartzen dituzte ameztietan eta habitat orokorren arauak, zuzentzaile eta kontserbazio/kudeaketa arauak ezarteko momentuan.

Hagin-basoei dagokionez, haginaren agerpen sakabanatua KBE/HBBEaren baso gehienetan, eta espeziearen nukleo-kontzentrazioen izatea, espezie honen eta bere komunitatearen finkatzearen potentzial garrantzitsua adierazten du.

Habitat honen baldintzatzaile egokia bezala, itxituren instalazioak bezalako kontserbazio jokaerak egiten ari dira.

Horrela, hagin agerpena ugaria den astiganeko erkamezti baten barruko kokapena batean izaerari buruzko informazioa dago. Nahiz eta kartografian eremu honetan habitat honen presentzia ez agertu, habitataren indartzeko puntua izan daiteke, "mediterraneoko hagin-basoko" baldintzatzailearekin hobetu konplutuko

lirateke, gaur egungo hagin-basoak guztiz atlantiko diren eremuetan aurkitzen baitira.

Beste aldetik, eta baldintzatzaile egokia bezala, esan daiteke 2010ean LIFE Naturaleza proiektua hasi zela «LIFE+PRO Izki: Izkiren ameztien kudeaketa ekosistemikoa eta habitat eta komunitate-interesa duten espezieekin erlazionatutakoa (LIFE10NAT/ES/000572)», Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Saila honen onuradun eta koordinatzailea dena. Proiektu hau 48 hilabeteko iraupena dauka, eta 2010 urriaren 1etik 2015eko irailaren 30ra arte iraungo du.

LIFE-hautagaitzarako inprimakian agertzen den moduan, proiektu horrek ameztia eta bere barneko zona-habitat ez diren habitatak hobekuntza suposatuko du, hainbat ekintzaren bitartez. Ekintza horiek tokiaren barne-konektibitatea erraztu nahi dute, enblematikoa den fauna eta floraren populazioen hedapenaren nitxo ekologiko egokiak lortuz, batez ere, okil ertainarena, Bechstein saguzarrarena eta baso-igel jauzkariarenak.

Garatuko diren akzio garrantzitsuen artean hauek daude (www.izkilife.com):

- Izkiko ameztien Baso Kudeaketa Plana egitea, habitat hauen silbopastoral kudeaketa jarraibideak edukiko dituen, baita jarduera-estrategia ere, 2012 eta 2026 arteko aldirakoa.
- Izki KBE/HBBEan okil ertainaren populazioaren (eta zuloen) ezaugarri ekologikoen inbentarioa, Izkin espeziearen populazio dinamikoaren jarraipenarako jarduera-protokolo bat garatuz. Horrela, ekintza honek irrazi-igorgailuen ekipamendua eta banakoaren markaketa egiteko balio du, eta banakoen habitataren aukeraketarako irizpideak zehazteko erabiliko da.
- Ur-iturrien eta Bechstein saguzarraren kokapenaren gainezarpn kartografikoa, eta ameztietan ur-puntuen eraketa.
- Okil ertainaren elikadurarako eta nidifikaziorako egokiak diren baso elementuez osatutako baso estruktura birsorkuntza, espeziearen behar ekologikoak egokituz, 50ha-ko amezti selekzioaren bitartez. Horretarako, egur lodia sortzeko oin batzuen erantzunduna egin behar da, baita habia egiteko leku egokietan eremu irekiak egin ere.
- Bechstein saguzarrentzako babes-kutxak kokatu, eta kutxa hauen berrikusketa.
- Izkin abere-hazien ustiapena daukaten pertsonentzako partaidetza tailerra.

2. KE.- Larreak

Kontserbazio-egoera

Belardi erdi-natural lehorrak -6210(*)

Tamaina ertaineko hainbat gramineo-espezie nagusi dituzten larre mesofiloak dira. Substratuen basiko,

trinko samarrak eta nahiko sakonetan garatzen. Horien artean eta abeltzaintza-presioaren arabera, irekiagoak zein ez hain irekiak diren sasi-mosaikoak garatu ohi dira.

Kartografiako zehaztasunarekin zalantzak daude orkidea populazioa ugaria den ala ez. Hau guztia dela eta, azalera ezezaguna da.

Komunitate hauen egitura aldatzen da konposaketa, larrearen bilakaera-egoera eta bertako sastrakadien ezaugarrien arabera. Sastrakadi hauek, hauetako beste batzuk (normalean, 4090 habitatekoak) eta komunitatearen flora-osaketa baldintzatzen dituzte.

Eginkizun naturalen garapenari dagokionez, ingurune hauek urte batzuk behar ditu flora-potentzial handia eta orkideen ugaritasuna zein aberastasuna ikusteko. Alderdi hau alde batera utzita, beste eginkizunak, lurzorua babesa, adibidez, aldeko egoeran mantentzen dira.

Zaila da komunitate hauen etorkizunerako aurreikuspenak zehaztea, izan ere, beren bilakaera aurkako bi indarren artean dago: alde batetik, basoaren eta gunee hauek kolonizatze joera duen landaredi naturalaren presioa, eta, bestetik, abeltzaintza-presioa, larrea irekita mantentzen duena. Hala, bere intentsitateak eta aprobetxamendu-garaiak habitataren bilakaera baldintzatuko du, haren azalera mantenduz edo murriztuz, baita bertako flora-dibertsitatea ere, eta, besteak beste, orkideen presentzia handia edo txikia (dirudienez, orkideen bizitza-zikloen arteko harreman zuzenaren, larrearen aprobetxamendu-garaien eta abelburu-kopuruaren menpe daude).

Kd. EB 6210(*)	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Egitura eta funtzio espezifikoak	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Ebaluazio globala		X		

Larre azpiestepikoak -6220*

Nahiko barbanak diren larreak dira, urteroko gramineoak eta zenbait bizikor normalean oinarrizkoak izaten diren lurzorua hartzen dituzten mulu txikiekin nahasita (askotan gutxi egituratutakoak edo guztiz moztuta), klima epel eta lehorretan aurkitzen dira. Udaberrian garatzen diren komunitate iragankorrak izaten dira, prezipitazioen erregimenak eta bolumenak asko baldintzatzen ditu; horregatik, estaldura eta tamaina txikia izan arren, askotariko komunitateak osatzen dituzte, eta espezie interesgarriak (batzuk endemikoak) agertzen dira bertan.

Izki KBE/HBBEan lekukotasun-agerpena daukate bere biogeografikoko eremutik urrun daudelako. Normalean hegoaldera edo hego-ekialdera begira dauden inguruneetan aurkitzen dira, kokapen lehorretan eta beroetan. Era berean, aldeko azalera dauka eremua nahiko egonkorra baita.

Komunitate hauen egitura nahiz funtzioak nahiko sinpleak dira prezipitazio eta konfigurazio-topografikoaren menpean daudelako.

Etorkizunerako aurreikuspenek, epe luzera, komunitate hauen presentzia areagotzeko joera adierazi dezakete, aldaketa klimatikoaren prozesuen ondoriozko berotze handiagoak eta prezipitazio txikiagoek on egiten dielako. Edozein kasutan, presentzia galtzea ez da erraza bizi diren lurretan nahiko andeatuta dagoelako.

Kd. EB 6220(*)	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Nardus formazio belarkarak -6230*

Kokapen-eremua edo tartea	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala				X
Kokapen-eremua edo tartea		X		

Bertako karramarroa (*Austropotamobius italicus*) -1092-

Espezieak Iberiar penintsula osoan, 60-70eko hamarkadan, jasan zuen populazio-hondamendi orokorraren ostean, «galtzeko arriskuan daudenak» kategorian sailkatuta dago EAEn, eta «kalteberak» kategorian Iberiar penintsulan.

KBE/HBBEan duen banaketa orokorra oso txikia da. Kontuan hartuta guneko ia ibai- eta putzu-sare osoa izan daitekeela espezie horren banaketa-eremua, banaketaren balorazioa txarra da. Populazio-mailei buruz eskuragarri dauden datuei jarraiki, gunearen balorazioa desegokia da.

Uren kalitatearen harira, bertako karramarroarena izan daitekeen habitataren ezaugarriak nahikoak dira guneeetan. Alabaina, arriskua honako espezie exotiko inbaditzaile hauen presentziak dakar: karramarro gorria (*Procambarus clarkii*) eta karramarro seinaleduna (*Pacifastacus leniusculus*). Horrez gain, espezie horiek

bertako karramarroari transmititzen dioten onddo-gaixotasuna ere arriskutsua da, hots, *Aphanomyces astaci* onddoa. Hori guztia aintzat hartuta, espeziearen habitata desegokitzen jotzen da.

Beste alde batetik, ustea da ezen, karramarro gorriaren zein amerikarraren populazioek KBE/HBBEko ibai-sarean jarraitzen duten bitartean, bertako karramarroaren etorkizunerako aurreikuspenak txartzat baloratu behar direla.

Kd. EB 1092	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea			X	
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Ebaluazio globala			X	
Kokapen-eremua edo tartea			X	

Txantxiku arrunta (*Alytes obstetricans*) - 1191

Ingurumen mota guztiei lotutako espeziea da, baldin eta ur-mailei beren horretan eusten bazaie; hori dela eta, urmaeletan, asketan, iturrietan edo ureztaketarako urasketan aurki daiteke. Beraz, Izki KBE/HBBEko habitata espezie honentzako ona dela uste da.

Txantxiku arrunta espazio gehienetan agertzen da, baina ez dugu bere populazio-mailei buruzko informazio zehatz eta berririk. Beraz, banaketa zein populazio-mailak eremuan aldekoak dira.

Bestaldetik, habitaten gaineko eraginak aipatzen ez badira, etorkizunerako aurreikuspenak ere aldekoak izango dira KBE/HBBEan.

Kd. EB 1191	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			
Kokapen-eremua edo tartea	X			

Hegoaldeko apo pintatua (*Discoglossus jeanneae*) - 1195

Hegoaldeko apo pintatua (*Discoglossus jeanneae*) endemismo iberiko bat da, Iberiar penintsularen ekialdeko erdi osoan kokatua; Izki KBE/HBBE eremua bere iparraldeko muturrean dago kokatuta.

Apo hau ur gelditan egoten da, beraz, ibai eta erreka txikitan, iturrietan, urasketan eta edanlekuetan agertu ohi da.

Nahiz eta Izkin eremu oso egokiak egon (putzu txikiak dituen lurzoru higroturbosoen gaineko larre txikiak), bakarrik hiru hezegune aurkitzen dira: Marizurieta, Raso de los Espinos eta Fuente Honda. Eremuan espezie urria da eta banaketa nahiko kokatuta dago.

Egungo banaketa ez da zehazki ezagutzen Natura 2000 eremuan. Baina desegokitzen hartzen da ia ez direla espezie honen erregistrorik ezagutzen hezegune- eta putzu-sareetan. Arrazoi hau baldintzatuta dago eremuaren kokapenagatik, banaketa eremuaren mugan, zein beste arrazoiengatik (igel arruntarekin dagoen konpetentzi interespezifikoak edo aziendaren eraginak).

Bestalde, Izkin dauden populazio-mailak ez dira ezagutzen eta habitatari dagokionez, aldekoa izan litzateke, baina lehen aipatutako baldintzatzaileekin ezin dira ebaluaketa edo etorkizunerako aurreikuspenik egin.

Kd. EB 1195	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak				X
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X
Kokapen-eremua edo tartea		X		

Apo lasterkaria (*Epidalea calamita*) - 6284

Apo lasterkaria ia Iberiar penintsula osoan aurki daiteke, baina urriagoa da iparraldean.

Nonahiko espeziea da, gunere irekien eta basoen zati handi bat hartzen duena. Ugalketarako habitat gisa aldi baterako urmaelak, zohikaztegiak, putzu bihurtutako errekek, belardi hezeak eta halakoak erabiltzen ditu. Jatorri antropikoko habitatetara ondoen egokitzen den espezieetako bat da, beraz Izkin dagoen habitata aldekotzat hartzen da.

Izki KBE/HBBEko banaketa zabala da eta nahiko aldekoa da Etorkizunerako aurreikuspenak ere aldekotzat hartzen dira.

Kd. EB 6284	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			

Egitura eta funtzio espezifikoak	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			
Kokapen-eremua edo tartea	X			

Zuhaitz-igel arrunta (*Hyla arborea*) - 1203

Zuhaitz-igel arrunta Iberiar penintsularen erdialdean, mendebaldean eta iparraldean kokatzen da, baina ez da horren ohikoa Kantauriar mendikatean. Izkin banaketa zabala du, beraz, aldekotzat hartzen da.

Populazio-mailei dagokionez, dentsitate altuak lortzen ditu eta udaberrian gau-abetesatzak nahiko bereizgarriak dira, El Raso, Las Rozas, Luneta, La Dehesa eta La Laguna putzuetan. Hau dela eta, kontserbazio-egoeraren balorazioa aldekoa da.

Habitatari dagokionez, igel txiki honek habitat hezeak eta landaredi askokoak behar ditu; hala, egunez, ale helduek ur-masa iraunkorreko guneetatik gertu hartzen dute babes, lezkadietan, ihietan eta landa askoko guneetan. Izkin dagoen habitata aldekoa da espezie honentzat.

Ia ez dira aipatzen espezie honentzako eraginik, beraz, etorkizunerako aurreikuspenak aldekoak dira, gaurko populazioaren zein habitataren egoera mantentzen badira.

Kd. EB 1203	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			
Kokapen-eremua edo tartea	X			

Baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*) - 1209

Baso-igel jauzkaria Europa osoan barrena aurki daiteke. Populazio iberikoek osatzen dute bere kokapen-eremuaren hego-mendebaldeko muturra eta, bertan, Arabako eta Nafarroako eremuetan bakarrik agertzen dira. Bestalde, Araban, populazio ugariak Altubeko harizti pedunkulatuetan eta Izki inguruko ameztietan aurki daitezke; hain zuzen ere, populazio honek dentsitate handienetakoa du Iberiar penintsulan.

Izkin anfibio arrunta da eta harizti- zein pagadi-baso hostolgakorretan eta hezegune baita zuhaixka-formako

eta belarkarako oihanpeetan aurkitzen dira (La Dehesa, Lakanduz, Raso de los Espinos, El Rao, Marizurioeta eta Fuente Honda urmaeletan bezala). Beraz, habitataren baldintzak eremuan eta banaketa aldekoak dira.

Populazio-mailari dagokionez, 2001ean eta 2002an egindako balioespenetan 80 eta 110 banako 100 ha-ko agertu ziren. Gaur egun ez dira ezagutzen espeziearen populazio-mailarik eremuan.

Etorkizunerako aurreikuspenei dagokionez, desegokia da bere banaketa-eremua Izki hego-mendebaldeko muturtuan dagoelako zatikatutako populazioekin Araban eta Nafarroan. Beste alde batetik, zenbait urmaeletan lohiz betetze ugari daudenez, habitataren kontserbazioari kalte egiten dio.

Kd. EB 1209	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak				X
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala				X
Kokapen-eremua edo tartea				X

Bisoi europarra (*Mustela lutreola*) – 1356

Bisoi europarra Arabako Lurralde Historiko osoan banatuta dago, baina populazioen egoerak ezberdinak dira. Izki KBE/HBBEan, banaketa desegokia da, eta guneko ibai-sareko puntu gutxitan daude. Baina, dirudienez, ez da modu egonkorrean ezarri, eta populazioa desegokia dela uste dugu.

Arabako hegoaldeko mendilerroetako bisoi europarraren populazioak dituen mehatxu nagusiak bisoi amerikarrarekin lotuta daude Izki aldetik, baita habitata aldatzearekin ere, bai ur-masen kutsaduragatik, bai denborazkotasunagatik. Habitata aldatzearen harira, guneen zatikatzea nabarmendu behar da, eta bide-azpiegituren edota erriberetako zuhaixka- eta zuhaitz-estalkiak desagertzearen ondorioz gertatu da hori. Hori oinarri hartuta, egungo baldintzak aldatzen ez badira, gunen horren habitataren egoera desegokitzat hartuko da bisoi europarrarentzat KBE/HBBEan.

Hala, espeziearen etorkizunerako aurreikuspenak txarrak dira, eragiten dioten erregresio-faktoreak kontrolatzea zaila delako.

Kd. EB 1356	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		

Ebaluazio globala			X	
Kokapen-eremua edo tartea			X	

Igaraba arrunta (*Lutra lutra*) - 1355

Penintsulan, igaraba ia lurralde osoan banatuta dago, Mediterraneo aldean izan ezik. Araban, gainbehera handiko prozesua gertatu ondoren, lehengoratzeko-prozesu geldoan da, eta isurialde mediterraneoko ibai nagusietan dago kokatuta; isurialde kantauriarreko ibairen batean ere agertu da. Espeziea gero eta maizago agertzen da Izki KBE/HBBEan, beraz, banaketa aldekotzat hartzen da.

Populazio-mailei buruz, ez dago ebaluatzeko moduko informazio nahikoa.

Igaraba landare-estalki dentsoa duten ibai-ibilbideetan, lakuetan, urtegietan eta kostako uretan bizi da; dena den, mugarik handiena elikagaien eskuragarritasuna da. Dietaren oinarria arrainak dira, batik bat, eta beste harrapakin batzuekin osatzen dute, esaterako, karramarroak, anfibioak, etab. Espezie lurraldekoa da, dentsitatea 2-4 alekoa da 10 km-ko, eta arrek hartutako eremu gehiago daude, emeek hartutakoen aldean. Eskakizun ekologiko horiek abiapuntutzat hartuta, irudipena da espeziea Izki KBE/HBBEan egon daitekeen habitata aldekoa dela.

Hortaz, igaraba-populazioa Arabako Lurralde Historikoan handitzen ari omen denez, etorkizunerako aurreikuspenak ere aldekoak dira.

Kd. EB 1355	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak				X
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			
Kokapen-eremua edo tartea	X			

Presioak eta mehatxuak

- Laborantzak (A01): Olandinako urmaela 3150 BIHarekin erlazionatuta dago, laborantza lurzoruen artean kokatzen da, hau da, bere kontserbazioa baldintzatuta dago.

Nekazari-ekintzak uraren kalitatea baldintzatzen du, honen nitrifikazioa bistakoa da landare-komunitate higronitrofila ugari daudelako eta denboraldiko uholdeen gerrikoak estaltzen dituelako. Baldintza horiek aldekoak direla dirudi *Nymphaea albako* espeziearen iraunkortasunarentzat, bestalde, arrisku batzuk ekartzen ditu fitosanitarioen kutsaduragatik edo kubetaren lurrez betetzeagatik. Zurezko eta belarkarazko landarearen orlak, ondorioz, *Nymphaea albako* lokalizazio berriek ez duten oztopo on bat osatzen dute, ezta

Kintanako urmaelak ere.

Baldintzatzaile positibo bat: Olandinako urmaela EAeko Hezeguneen Lurraldeko Plan Sektorialak dion bezala erabileraren erregulazioak edukiko ditu.

Haltzadi, sahasi eta larratzeen kasuetan, nekazaritza mehatxu nagusienetariko bat da, eta sahasiaren kasuan, bereziki, egitura eta konposaketak aldatzen dira presio ezberdinen arabera.

- Artzaintza (A04): Raso de los Espinoseko urmaelaren kasuan eta 3150 BIHarekin lotuz abeltzaintzak baldintzatzen du bere kontserbazioa. Parekoa gertatzen da 3170* BIHarekin, lurzoruaren nitrifikazioa espezieen sarrera errazten duen arrazoa delako, beraz, habitat horien originaltasuna nahiz aniztasuna murrizten dira.

Abeltzaintzak baldintzatzen du haltzadi zein sahasiaren kontserbazioak, nagusiki.

Denboraldiko urmaelen flora-espezieak eremu txiki eta ikusteko zailtan daude, bereziki sasoia ez bada. Beraz, Izkin oso zaila da presentzia eta biziera baloratu nahiko sakabanatuak aurkitzen direlako. Hedapena honen ondorioz, neurrizko-intentsioko abeltzaintza batekin bizi dira, beste alde batetik, karga txikia mantentzen badu ondorio positiboak lortzen ditu, badirudi, baina igotzen bada negatiboa ere izango da. Aziendaren zapalketak direla medio hezegune horietatik, lurzoruaren erliebea aldatuko izango da, baina garai lehorretan ia ez da ezer nabaritzen, espezie horien ziklo-bitala urez betetzen den garaian delako.

Aziendaren presioa aipatzen da *Utricularia australis*entzat sakonera mugitzen baitu. Gorotzek ura eutrofizatu dezakete, beraz, beste fanerogamo motak eta algak agertuko dira eremua zein argia bilatzeko asmoz espezie hau mugitzen.

Bertako karramarroa, odonato- eta anfibio-komunitateen lehenengo eragina da ere bai eta agorraldiko hezegunetan nagusiki eginez. Garai hauetan, ur asko ez badago, aziendaren presentzia handitzen da, beraz, ur-landarea murrizten da eta ezaugarri fisiko-kimikoak aldatzen dira uhertasunaren eta elikagaien igoerarekin. Udaberrian zehar, espezie horien ugalketa-zikloa den momentuan, aziendaren eraginak baldintzatu dezake ugaltze-arrakasta.

- Animaliak tranpen bidez eta pozoiaren bidez harrapatzea; isileko ehiza (F03.02.03): legez kontrako arrantza da bertako karramarro populazioaren mehatxu nagusienetarikoa.

- Kirola aire zabalean eta aisia-jarduerak, antolatutako olgeta-jarduerak (G01): arroila-jaitsiera bezalako beste jarduerak mehatxu garrantzitsua da 7220* BIHarentzat.

- Basoko eta nekazari-jarduerak sortzen duten gaineko geruzako uren kutsadura (H01.05): uren kalitatearen eraldaketa eta urmaelak elikatzen duten kutsadura, isuri zuzenetik nahiz ustekabekoetatik, mehatxu garrantzitsuenetarikoa da espeziearen habitat bai espezieentzat.

Izki KBE/HBBEan dauden karramarro autoktono, odonato eta anfibioen habitataren aldaketa batzuk aziendaren presentziaren ur-puntuetan eta inguruetik daudenetan, pestiziden eta ongarrien erabilera nekazari-eremuen inguruneetan oinarritzen dira. Konduktibitatearen, pH-ko aldaketak, nitrato, amonio eta sulfatoen kontzentrazio handiak, edota oxigeno-mailen murrizketen areagotzea aurkitu dira zenbait

urmaeletan baita ur-sarean ere. Eragin hauek agorraldi-egoeretan asko salatzen dira.

Eremuaren toki batzuetan, eutrofizazio eta narriadurak sortutako kalteak agertzen dira. Honen kausa, aziendaren zapalketa eta ongarrrien akumulazio da, urmael, zohikaztegi eta ibaien ibilguetan.

- Espezie inbaditzaileak eta espezie aloktonak (I01): Olandinako urmaelaren kasuan, karramarro gorriak eta seinaledunak presio handia eragiten dute ur-landareen komunitateena

Beste espezie inbaditzaileak, urrearraina (*Carassius auratus*) edo tenkaren (*Tinca tinca*) kasuan bezala, erasaten diete beste odonato- eta anfibio-populazioei.

Bisoi europarraren kasuan, mehatxu nagusia bisoi amerikarren presentzia da.

- Baldintza hidraulikoen aldaketak (J02): gaur egun 7220* BIH kontserbatzeko arrisku nagusiak ur-jarioa eta bere kalitate zein konposaketaren aldaketatik etorriko lirateke.

- Hondakindegia, lurzorua berreskuratzea eta lehorketa, orokorrean (J02.02): udako lehorketa luzeak, populazio horien joera naturalaren beste alderdi bat da *Nymphaea* bezalako espezieak prest egoteko. Kalte handiak ez ditu pairatuko, nahiz eta udarako lurrunketek handitu kutsatzaileen kopurua eta uren dagoen O2a desagertu. Alderdi hauek beti negatiboak izango dira.

Anfibioen kasuan, baldintzatzaile negatiboak habitataren eraginetan oinarritzen dira nagusiki, ur-lehorketa puntuetan bezala eta horietako solidoen lohiz betea.

- Kanalizazioak eta ur-desbideratzeak (J02.03): karramarro aloktonentzako presioen artean habitati buruzko eraginak daude (ur-kanalizazioak eta habitataren desagertzea).

Mehatxu hau ere deskribatzen da bisoi europarra eta igarabarentzat, bizi diren habitaten narriadura handiarekin (ur-lasterraren iragankortasuna, eribera-habitaten zatiketa, baliabide trofikoaren murrizketa, etab.)

- Habitaten konektibitatea murriztea, kausa antropogenikoengatik (J03.02): 3170* BIH oso habitat makala da eta bere muga biogeografikoetan kokatzen da, beraz, nahiz eta eraginak txikiak izan, desager daiteke.

Isoetes durieui eta *Littorella uniflora* haretsu-sakonunean aurkitzen dira, neguan eta udaberrian urez betetzen dira eta udan lehortzen dira. Mikrohabitatakat sortzen dute eta giro-baldintza zehatzak ematen dituzte espezie horien garapena lortzeko. Bestalde, era berean, ziklo-luzeko beste espezieei murrizten die haziera.

- Prozesu abiotiko naturalak (motela) (K01): 7220* BIHaren oraingo dinamika, toba sortzeko baino higaduratsuegia da. Errekaren mehartzearen arabera, prozesu hori orain dela denbora asko hedatzen ari da. Habitataren dinamikan fase naturala da eta toba sortzeko aldiekin eta beste higaduratsu aldiekin aldizkatuz.

- Lehiaketa (K03.01): *Discoglossus jeanneaeren* kasuan ere aipatu da ur-igel arruntarekiko interes espeziifikoa den lehiaketa. Ondorioz, apo populazioaren desplazamendua ager daiteke.

- Gaixotasunen sarrera (K04.03): hasieran Galizian detektatu ziren urbazterreko haltzadien heriotza-tasa

handiak eta gero Kantauri mendilerrotik zabaldu zen, baita Portugal eta Gaztela eta Leon ere. Beraz, mikosi agertzeko arriskuan dago. Patologi hau agertzen da *Phytophthora alni* onddogatik. Gaur egun tratatzeko metodo argirik ez dira ezagutzen, baina lurzoruaren mugimenduek onddo honen zabalera errazten du.

Afanomikosisen sarrera bertako karramarroaren mehatxu nagusia da. Gaixotasun hau karramarro seinaledun eta karramarro gorriaren bidez kutsatzen da.

Baldintzatzaileak

Natura 2000 eremuan ingurune eta espezie hauen kontserbazio-baldintzatzailearen bat urte osoan zehar aziendaren presentzia da , gaur egun erregulaziorik egon ezik.

Baldintzatzaile positibo bezala eta Olandinako urmael kasuan bezala, EAEko Hezeguneek Lurraldeko Plan Sektorialearen II. taldeko inklusioa aipatu behar da.

3170* BIHaren kasuan, komunitate horien ikusgaitasun txikiak, zabalera txikiak eta bere ziklo-biologikoen iheskortasunek zailtzen dute bere kokapena. Beraz, habitat hau lurraldearen kartografian aurkitzen ez diren beste puntuetan dago, baina zenbait puntu horiek ager daiteke bereizgarri diren espezieen aipamenaren ondoren.

7220* BIHaren dinamika abiotiko diren bertako edo eskualdeko faktoreekin baldintzatuta dago eta prezipitazioaren, kareharrien desagerpena eta erreken iturburuaren presentziatik datozke. Hau guztia dela eta, ez dira posible erraztuko duten jokoerarik harri-sorkuntzarako, bestalde, prebentzio-aldaketak agertzeko bai.

Izki KBE/HBBEko bertako karramarroaren populazioari dagokionez, espeziea ibai-sarean eta hezeguneak hedatzeko tokia duen ekimen orok aintzat hartu behar du ez dela bateragarria populazio astazikolak egotea Funtsezko Elementutzat jotako anfibioen eta odonatoen kontserbaziorako intereseko puntuetan.

Baldintzatzaile positibo bezala Izki KBE/HBBEko anfibioentzat, baso-igel jauzkaria bereziki, «LIFE+PRO Izki» proiektua dago. Proiektu honen barruan baso-igel jauzkariaren (*Rana dalmatina*) kasua dago, Izkin bere habitata kontserbatzeko arauekin.

Era berean, bai bisoi europarrak bai igarabak Arabako Foru Aldundiak onetsitako kudeaketa-planak dituzte Arabako Lurralde Historikoan: bisoi europarraren kasuan, azaroaren 7ko 322/2003 Foru Aginduaren bidez egin zen (ALHAO, 142. zk., 2003ko abenduaren 5koa); eta igarabarena, urriaren 27ko 880/2004 Foru Aginduaren bitartez onetsi zen (ALHAO, 136. zk., 2004ko azaroaren 24koa). Kudeaketa-planek espezie horien gaineko mehatxuak ezabatzen saiatzeko beharrezkoak diren jarraibideak eta neurriak ezartzen dituzte, eta espezieok lehengoratzeta eta kontserbatzea sustatzen dute.

Kudeaketa-plan horiei jarraituz zehaztu da bisoi europarrarentzat Interes Bereziko Eremua (IBE) den Markinez ibaian edo Del Molino errekan, KBE/HBBEaren mendebaldeko sektorean kokatuta. Ibai hori bera, Izki ibaiarekin batera, IBE gisa izendatua dago igarabarentzat.

Bestalde, bisoi amerikarri dagokionez, Arabako Foru Aldundiak 2003. urtetik Arabako ur-sarean erazte-kanpainak egiten ditu.

Beste alde batetik, Arabako Foru Aldundia «Bisoi europarra Espainian kontserbatzeko ikuspegi berriak» LIFE Naturaleza (LIFE LUTREOLA SPAIN) proiektuaren onuradun suertatu da duela gutxi, Estatuko beste administrazio eta erakunde batzuekin batera. Proiektu horrek kontserbazio-ekintzak biltzen ditu bisoi europarraren populazioarentzat eta Arabako Lurralde Historikoko zenbait tokitako habitatetarako, horien artean, Berron ibaiko, Izkiko Natura 2000 eremuaren ekialdean kokatuta.

5. KE.- Harkaitzak eta antzeko inguruneak

Kontserbazio-egoera

Arenaria vitoriana

Keharrizko mendietan aurkitzen den espeziea da, batez ere eragindako lurretan agertzen da, elurra, kontinentaltasuna eta krioturbazioa jasaten duten eremuetan.

Banaketa naturala Kantauriko erlaitzaren ekialdeko herenean bakarrik aurki daiteke, baita gaztela-mantxako iberiar mendilerroetan ere. EAEn ekialde zein mendebaldeko Arabako mendilerroetan agertzen da eta arazorik gabe mantendu ohi da. Beraz, banaketa aldekotzat hartzen da Izkin.

Espezie honen populazioak beti bakanak dira eta bere agerpenak oso mugatuak. Izkin ipar-mendebaldeko mugan ixten duen eremuaren gailurretako lerroaren zenbait puntuetan agertzen da. Egonkorak dira esku-hartze handirik ez badaude, beraz, egoera aldekoa da.

Bere habitata aldakor samarra izaten da klima eta aldapengatik. Horrek laguntzen du harkaitzetan deskarnadurak agertzen eta populazioak naturalki berritzen. Dinamika naturalak mantentzen badira, habitata jarraituko da ingurune honetan, aurkitzen diren aldakortasun gorabeherak izan arren.

Etorkizunerako aurreikuspenak aldekoak dira populazio zein habitata egonkortasun handikoak baitira, batiere pistak eratu edo azpiegiturak ipini ez badira.

Kd. EB -	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Armeria arenaria* subsp. *burgalensis

Espezie hau lehor eta harritsu diren bazkalekuetan aurki daiteke, harkaitz arrunten erlaitzetan kokatzen diren eremuetan. Autore batzuen arabera taxon hau gutxi gorabeherako *A. arenaria* subsp. *arenaria*ko lekuko forma gisa hartzen dute.

Burgosen dauden Obarenes Mendietatik Cameros Mendilerroraino (Errioxa) aukitzen da. Nafarroako zenbait puntuetan ere badago. Kotsiderazio taxonomikoaren arabera, banaketa-eremu originala aldatu daiteke baina, printzipioz, egonkorra da eta beraz, KBE/HBBEan aldekotzat hartzen da.

Espezie honen populazioak Kantauri eta Kodes mendilerroen puntu batzuetan agertzen dira bakarrik, baita Izki mendietan ere (San Cristobal muino aldetik, bereziki). Izki KBE/HBBEan hartzen duen azalera egonkorra da, baina populazioa desegokitzen hartu behar da populazio bakana baldintza delako eta populazioengandik isolatuta dagoelako.

Gailurren bazkalekuak (habitat egokia) aldeko baldintzetan mantentzen dira, eremuaren beste puntuetan espeziea ez agertu arren, klimari esker dirudi.

Populazioaren aldeko estatusa mantentzeko etorkizunerako aurreikuspenak mehatxatuta egon daitezke hurrengo arrazoiengatik: bizi diren bazkalekuetan gertatzen ari diren abeltzaintza erabilera estensiboaren aldaketak, baita instalakuntzak edo azpiegiturak, edo faktore klimatikoaren aldaketak; horiei aurka egiteko, bere isolamendua eta zatikako banaketa eragozpena izango direlarik. Nahiz eta momentuz faktore hauek erabakigarriak ez izan, aurreikuspenak desegokiak dira arrisku horien loturagatik.

Kd. EB -	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Ebaluazio globala		X		

Coeloglossum viride

Kantauri erlaitz osotik eta Iberiar Sistemaren garaienak diren zenbait mendiguneetan zabaltzen den orkidea txikia eta apala. Zelai fresko eta ospeletan aurkitzen dira.

EAEko banaketa Gipuzkoa eta Araba aldetik banatzen da. Araban Valderejo eta Izki aldeetan mugatzen da (bere presentzia 1 x 1 UTM bi saretan ezagutzen da). Honen ondorioz, banaketa desegokia dela esan daiteke.

Ale gutxi batzuek osatzen dute ezagutzen diren populazio hauek, ondorioz, ezin da baieztatu populazioaren babeseta eta desegokitzat hartzen da.

Espezie honen habitata eratzen duten mendiko, heze eta ospeleko larreak gutxi dira eta hauetako populazio batzuk gorabehera arriskuan egon daiteke pista baten alboan kokatuta daudelako. Beraz, habitata desegokia da.

Espeziearentzako etorkizunerako aurreikuspenak onak ezin dira izan, oso populazio gutxi eta txikiak direlako, eta abeltzaintza- zein baso-eremuetan hazten direlako (Izki Parke Naturalaren zonifikazioaren arabera).

Kd. EB -	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Ebaluazio globala		X		

Genista eliasseanenii

Kareharri eta harkaitz haizetsuetan, eta kontinentaltasun samarreko eremuetan kuxin-antzeko muluak sortzen dituen endemismo iberikoa.

Burgos, Nafarroa eta Arabako keharri mendietan eta paramoak dauden lekuetan aurkitzen da ohiko presentziarekin, baina Izki KBE/HBBEan kareharri-mendiko puntu batzuetan kokatzen da. Beraz, bere banaketa aldekoa da.

Ezagunak diren populaziok ale gutxi dituzte eta aldaketa antropikoen kanpo daudenez, aldekoak jo daiteke.

Zabalkuntza zein kalitatearen arabera, egonkorra da habitat hau (kareharrizko harkaitz eta lauzekoa) baita aldekoa ere.

Etorkizunerako aurreikuspenak aldekoak ere badira, bizi den guneetan kanpoko eragin askorik ez baita.

Kd. EB -	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			

Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Potentilla fruticosa

Mendi garaietan zein kareharrizko eta harritsu diren iturburu-eremuetan aurkitzen den mulu txikia.

Penintsulan zehar iparraldeko banaketa du, Pirinioetako eta Kantauriko mendi garaietan, Izki mendietan bezalako lekuak. Aldeko banaketa dauka, betiko lekuak mantentzen baititu eta "Banaketa-Eremu Aldeko Erreferentzia" delako.

Potentilla fruticosa bakarrik aurkitzen da Molino de Arluzeako sakanean, arazo eta mehatxurik gabe bizi ohi diren ale batzuen populazioa dagoen eremua. Alabaina, "Aldeko Populazio-Erreferentzia"-ra ailegatzen ez denez, desegokia jotzen da.

IzkiKBE/HBBEan espezie hau dagoen habitata ohikoak diren altitudeetan baino askoz ere beherago dago. Horrek esan nahi du kokapenak ez direla egokiak eta, beraz, trabak daude populazioa mantentzeko eta garatzeko: zabalera txikiko habitata, egonkorra baina handitzeko posibilitaterik gabe. Gainera, bertan mantentzea eta biziraupena baldintza mikroklamatikoen menpe daude, erabat. Beraz, habitat desegokia dela esan behar da.

Etorkizunerako aurreikuspenak desegokitzat hartzen dira: nahiz eta gaur egungo kokapenak biziraupenarako behar diren baldintzak mantendu, eta erabilera publikoak eragindako presio eta arazo nagusiak kontrolpean irudi eta garrantzitsuak ez izan, ustekabeko gertaerak zein klima-baldintzen eraginaren posibilitatea ezin da eliminatu.

Kd. EB -	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala		X		

Sai zuria (*Neophron percnopterus*) – A077

Sai zuria Izki eremuko udaldiko migrazio-hegazti nekrofagoa da. Bere negualdi-eremuak Saharaz hegoaldeko

Afrikan daude.

Habia bakarka egiten du, ebakiduretako erlaitz eta hutsuneetan, mota guztietako inguruneetan. Ez du baldintza zorrotzik ugalketarako ebakiduraren inguruko habitataren ezaugarriei dagokienez.

Bere elikadura etxeko ganaduaren sarrasketan eta tamaina ertain eta txikiko ornodunetan oinarritzen da batez ere. Baldintza ekologiko horiek kontuan hartuta, espezie honentzako Izki KBE/HBBEko habitat potentziala aldekotzat hartzen da.

Populazio-mailei dagokienez, Izkin dagoen sai zuri bikote bakarra La Muela-Soila eremuan dago. Arluzea eta Markinezeko aldean, bestalde, ale helduak ikusten ohi dira, non iraganean beste bikote batek egiten zuen habia. Azken hamar urte hauetan, populazioa egonkorra izan da eta Natura 2000 eremuan multzoan aldekoa baloratzen da.

Izkin kokatzen den espeziearen banaketari dagokionez, espeziearen habiagintza zein bizi-eremuko habitataren erabilgarritasunagatik, aldekotzat hartzen da.

Penintsulan bere kontserbazio-egoera larria da (Liburu Gorriaren arabera, "Arriskuan dago"), eta hegazti migratzailea denez gero, sai zuriaren etorkizunerako aurreikuspenak ezin dira baloratu.

Kd. EB A077	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala	X			

Sai arrea (*Gyps fulvus*) – A078

Sai arrea edozein litologiatako ebakidura harritsuetan ugaltzen den hegaztia da, baina nahiago izaten ditu kareharrizko inguruneak, bai mendiguneetakoak bai korronte termiko askoko ibai-arroiletakoak. Eremu irekietatik gertu kokatzen da, sarraskia bilatzeko; bereziki, hilotz handi eta ertainak. Izki KBE/HBBEko habitataren ezaugarriak onak dira espezie honentzat.

Izki aldean sai arrearen populazioa gutxi gorabehera 36 bikotekoa dela kalkulatu da. Populazio hau % 30 baino gehiago areagotu da azken 5 urteetan, 0,67 inguruko produktibitate-tasarekin; beraz, populazioaren egoera aldekoa dela esan daiteke.

Eremuan duen kokapenari dagokionez, ugalkolonia nagusiak Korres, La Muela eta Soila sakanetan daude kokatuta. Dena den, ohikoa da ugaltzaileak ez diren beste ale batzuk ikustea beste gune batzuetan, Arluzea sakanean, besteak beste. Beraz, espeziaren kokapen-eremua aldeko gisa baloratu da.

Euskal Autonomia Erkidegoan espezieari mugak jartzen dizkioten faktore nagusi gisa, giza-jazarpena eta linea elektrikoekin izandako istripuak aipatu behar dira. Zenbait argitalpenetan elikagaiaren murrizketa ere aipatzen da, simaurtegiak itxi izanaren edo etxeko ganaduaren hilotzak ingurunetik kendu izanaren ondorioz. Alabaina, egungo populazio-egoera kontuan hartuta, badirudi ez dagoela elikagai faltarik, beraz, logikoa da argudiatzea saiek behar adina elikagai aurkitzen dutela kendu gabe dauden ganadu-hilotzetan, unglatu basatien sarraskietan eta beste elikadura-iturri artifizial batzuetan (esaterako, Gardelegiko udal-zabortegean). Beraz, espezieak eremu honetan dituen etorkizunerako aurreikuspenak aldekoak dira.

Kd. EB A078	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Arrano beltza (*Aquila chrysaetos*) – A091

Arrano beltzak amildegiak behar ditu habiak egiteko eta gune irekiak ehizatzeke. Askotariko habitatak izaten ditu, laborantza-eremuetatik sastrakadietara, baina badirudi paisaia irekiak nahiago dituela, baso-eremu zabalak saihestuz. Habiak egiteko lekuak gune lasaiak izaten dira, gizakiaren esku-hartze txikia dutenak. Hau dela eta, Izki KBE/HBBEko habitataren ezaugarriak aldekoak direla ez dakigu.

Populazioari dagokionez, 1990 urtetik bikote bat edo bi egiaztatu dira Los Molinos sakanean eta Korres haitzartean. 2010. urtean populazioa bakarrik bikote batekoa zen eta 2013an ez ziren aurkitu Parke Naturalen Zerbitzuak jarraipenak egin zituzten bitartean. Beraz, Natura 2000 eremu honetan arrano beltzaren populazioa desegokia da.

Lehen adierazi den bezala, Los Molinos eta Korren sakanetan aurkitzen dira historikoki habiagintzako eremuak, Santa Pezarra muinoak eta Durruma eta Buxanda eremuak ohiko bizi-eremuak izan dira, ordea. Gaur egun eremuan daukan banaketa ez da ezagutzen.

Aurreko guztia kontuan hartuta, espezieak Izki KBE/HBBEan dituen etorkizunerako aurreikuspenak ez dira ezagutzen.

Kd. EB A091	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa		X		

Espeziearen habitata				X
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala		X		

Belatz handia (*Falco peregrinus*) – A103

Belatz handia hainbat habitatan ugaltzeko, baina habia egiteko leku egokiak eta harrapakinak lortzeko aukera izan behar du; horregatik, gehienetan eremu irekietatik gertuko harkaitz-guneak aukeratu dituzte. Izki KBE/HBBEan espeziearentzako dauden habitat-baldintzak egokiak dira.

Izki KBE/HBBEan 1996an belatz handiko 3 bikote aipatzen ziren, baina 2001etik La Muela eta Soila eremuan, eta noizbehinkan Markinez eta Arluze harkaitzetan egin diren behaketetan, bakarrik 2 bikote ugaltzaile zenbatzen dira.

Natura 2000 eremuko baldintza ekologikoak direla eta, Izki KBE/HBBEan dagoen banaketa eta populazio mailak egokiak dira zuhaitzi area asko eta harkaitz gutxi daudelako.

Hauek dira adierazitako eragin nagusiak: ezkutuko ehiza, pozoia eta azpiegituren ondoriozko elektrokuizioa edo talka. Hontz handiarekin lehia izan dezakeela ere aipatzen da, nahiz eta adierazgarria ez izan.

Kd. EB A103	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Hontz handia (*Bubo bubo*) – A215

Gaueko harrapari hau hainbat habitatatara egokitzen da, baldin eta baliabide trofikoak eta ehizarako eremu irekiak baditu. Normalean harkaitzetan eta ebakiduretan egiten du habia, baita zuhaitzen gainean ere, giza-jarduera askoko eremuak saihestuz. Izki KBE/HBBEko bere habitat potentzialaren ezaugarriak aldeko gisa hartzen dira.

2001ean hontz handiaren ugalketako lurralde bat aurkitu zen Izki KBE/HBBEan, eta 2012an bi detektatu ziren: bata ipar-medebaldeko aldean eta bestea eremuaren hego-ekialdeko aldean.

Beraz, hontz handiaren kokapena eta populazio-mailak ontzat jotzen dira. Bestalde, etorkizunerako aurreikuspenak erealdekoak dira habitatan aldaketak gertatzen ez badira.

Kd. EB A215	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*) - A346

Korbido honek batez ere mendiguneetako haitzuloetan, arrailetan eta hutsuneetan eta ibaien ebakiduretan egiten du habia, baina giza-eraikuntzetan ere ikus daiteke. Elikatzeko gune gisa mendiko larreak edo nekazaritza- eta artzaintza-sistema tradizionalak erabiltzen ditu, landaredia urrikoarekin. Deskribapen honi esker, Izki KBE/HBBEko habitat potentziala aldekoa da espeziearentzat.

Eremu hauetan oso zabalduta dagoen hegaztia da, 49 bikote zenbatzen dira eta Soila eremuan, Korres, La Muela, Peña Santos, Markinez-Arluzea eta El Molino sakanetan elkartzen dira. Beraz, belatxinga mokogorriaren banaketa zein populazioa aldekoak dira.

Etorkizunerako aurreikuspenak dagokienez, Natura 2000 eremu honetan ez da eraginik aipatu; beraz, aldekoak direla baloratzen dira, baldin eta habitatean aldaketarik gertatzen ez bada.

Kd. EB A346	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Ebaluazio globala	X			

Ferra-saguzar handia (*Rhinolopus ferrumequinum*) - 1304

Espezie hau ubikista hau mota guztietako inguruneetan egoten da, baina nahiago ditu gune irekiekin tartekatutako zuhaitz-eremuak. Babeslekuei dagokienez, haitzuloak eta eraikin antropikoak erabiltzen ditu,

baina azken horiek ugalkolonia gisa hautatzen ditu gehienbat. Bizi-eremuak babeslekuetatik 3-4 km ingurura izaten ditu, basoen eta hesien ertzetan, eta horietan gauerako egonlekuak bilatzen ditu, bertatik harrapakinak lokalizatzeko. Hori kontuan hartuta, habitata on gisa baloratzen da espezie honentzat Natura 2000 eremu honetan.

Eremuan duen kokapenari dagokionez, hainbat kolonia aurkitu dira inguru hauetan; beraz, parametro hau ere ontzat jotzen da.

Ez dira ezagutzen Izki KBE/HBBEko populazio-mailak, ezta etorkizunerako aurreikuspenak ere.

Kd. EB 1304	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Ferra-saguzar txikia (*Rhinolophus hipposideros*) - 1303

Ferra-saguzar txikia nagusiki haitzulotarra da hilabete hotzetan, baina ugalkoloniak abandonatutako eraikinetan eta ganbaretan egoten dira. Babesleku horiek bizi-eremuetatik gertu egoten dira; bizi-eremu gisa baso-guneak erabiltzen ditu, batez ere hostogalkorrekoak, baita gune horien ertzak, hesiak eta baso erriparioak ere, baldin eta gainazaleko ur-masak barne hartzen badituzte. Beraz, Izki KBE/HBBEko habitata ontzat hartzen da espezie honentzat.

Izkin zenbait haitzulo eta tunel zenbatu dira, beraz, espeziearen kokapen-eremua on gisa baloratzen da.

Populazio-mailei eta etorkizunerako aurreikuspenei dagokienez, ezin izan da horien balorazioa egin, horretarako informaziorik ez dugulako.

Kd. EB 1303	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Arratoi-belarria (*Myotis myotis*) - 1324

Kiroptero hau baso irekiekin eta larre zuhaitzuekin lotzen da. Batez ere haitzuloak eta meatzeak erabiltzen ditu babesleku gisa, baina baita eraikin antropikoak ere. Bizi-eremua baso askoko guneeetan izaten du, eta horietan ehizatzen du, gunee irekietan edo landutako lurretan. Hori kontuan hartuta, Izkin dagoen habitata espezie honentzat aldekoa dela esan daiteke.

Markinez eremuan eta haitzulo batzuetan aurkitu dira, baina bere ugalketa eremu honen barruan alde batera uzten da lurpeko babesleku naturalak ez daudelako. Hau guztia dela eta, espezieak Portillo de Gesal koloniatik datoz, 7 km-tara dagoena. Natura 2000 eremu honen potentzialtasuna oinarritzat hartuta, espezieak bertan duen kokapena aldekotzat hartzen da.

Bestalde, Izkin ez dira ezagutzen eremuetako populazio-mailak, ezta etorkizunerako aurreikuspenak ere.

Kd. EB 1324	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Geoffroy saguzarra (*Myotis emarginatus*) - 1321

Saguzar hau habitat askotan egoten da, baina nahiago izaten ditu orografia malkartsuko eremuak, baso-estaldura eta ur-ibilera egonkorak dituztenak. Dena den, badirudi baso oso itxiak saihestu egiten dituela. Neguan, espeziearen babesleku nagusiak haitzulo beroak eta eraikinak izaten dira; udan, aldiz, indibiduo isolatuek pitzadurak, zuhaitzetako hutsuneak eta, batzuetan, zubiak ere erabiltzen dituzte. Beraz, Izki KBE/HBBEko habitata ontzat hartzen da espezie honentzat.

Eremuan duen kokapena egokia dela jotzen da, La Dehesa putzuak eta Bardalen (Kintana) laginketa-puntu batzuk aurkitu direlako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, espezieak Izki KBE/HBBEan dituen etorkizunerako aurreikuspenak eta populazio-mailak ez dira ezagutzen.

Kd. EB 1321	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna

Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Pipistrello arrunta (*Pipistrellus pipistrellus*) - 1309

Espezie hau fisurikola da; harkaitzen arrailetan, zuhaitzen hutsuneetan, habia-kutxetan eta eraikinetan izaten du babeslekua. Hainbat inguruetan aurki daiteke, hiriguneetatik hasi eta goi-mendietaraino. Izki KBE/HBBEko habitata espeziearentzat aldekoa dela uste da.

Izki oso ugaria dela uste badugu ere, ez ditugu bere populazio-mailak ezagutzen, ezta etorkizunerako aurreikuspenak ere, beraz, ezinezkoa da horien ebaluazioa egitea.

Bere kokapen-eremua zabala da KBE/HBBEan, hau da, parametro hau aldekotzat baloratu da.

Kd. EB 1309	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Kuhl pipistrelloa (*Pipistrellus kuhlii*) - 2016

Espezie hau oso sinantropikoa da eta hiriguneetan gehien aurki daitekeena da, baina nahiago ditu behe-mendiko guneak eta haran-hondoak.

Izaera fisurikola izanik, babesleku desberdinak erabiltzen ditu: harkaitzak, zuhaitzetako zuloak, habia-kutxak, egurrezko, harrizko edo hormigoizko eraikinak, etab. Baldintza horiek kontutan hartuta, Izki KBE/HBBEko habitat potentziala espeziearentzat aldekoa dela baloratu da.

Saguzar honek kokapen egokia du eremuan, baina ez dira Natura 2000 eremu honen dituen populazio-mailak ezagutzen, ezta etorkizunerako aurreikuspenak ere.

Kd. EB 2016	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Baratze-saguzarra (*Eptesicus serotinus*) - 1327

Espezie litofilo eta antropofilo hau mota guztietako giza-eraikuntzetara egokitu da: zabalkuntza-junturak, pertsianen kutxak, etab. Halaber, azaleratutako harkaitzen pitzadura eta arrailetan eta, gutxiagotan bada ere, zuhaitzen hutsuneetan agertzen da. Bere bizitzeko habitata askotarikoa da, hiriguneak, basoak eta ibai-guneak barne hartzen baititu. Izki KBE/HBBEko habitata espeziearentzat aldekoa dela uste da.

KBE/HBBEko espeziearen kokapena aldekoa dela jotzen da, barne hartzen dituen eremu guztietan ohikoa baita.

Ez dugu populazio-mailei eta etorkizunerako aurreikuspeneei buruzko informaziorik, beraz, ezin ditugu parametro hauek ebaluatu.

Kd. EB 1327	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Hegoaldeko belarrihandi grisa (*Plecotus austriacus*) - 1329

Habitat ugariarekin lotzen da, hasi gune ireki edo erdibasokoetatik eta gune basotsuetaraino; alabaina, nahiago izaten ditu orografia irregularreko eremuak. Babeslekuak haitzuloetan, meatzeetan, eraikinetan edo zuhaitzetan izaten ditu, eta ugalkoloniak eta udaldirako egonlekuak, aldiz, teilatupeetan edo isolatutako haitzuloetan egoten dira. Hori kontuan hartuta, Izki KBE/HBBEko habitata espeziearentzako ona dela uste da.

Espezieak eremu hauetan duen kokapena ere aldekoa da. Alabaina, ez ditugu populazio-mailak eta etorkizunerako aurreikuspenak ezagutzen, ez baitugu horiek aztertzeko behar besteko informaziorik.

Kd. EB 1329	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Shreibers saguzarra (*Miniopterus schreibersii*) - 1310

Espezie haitzulotar honek haitzuloetan eta meatzeetan izaten du bere babesleku nagusia, baina baita teilatupeetan, harkaitzetako pitzaduretan, tuneletan edo zubietan ere. Ehizarako habitata ibaietatik edo urmaeletatik gertu izaten du, baina baita herrietan ere. Izkiko habitat potentziala ona da espeziearentzat.

Bere kokapena aldekoa dela baloratzen da, ohikoa baita eremuan, eta KBE/HBBetik kanpo, baina oso gertu, kolonia nagusienetako dago.

Ez dugu populazioari buruzko informaziorik, beraz, ezin izan dugu ebaluatu; eta gauza bera gertatu da etorkizunerako aurreikuspenekin.

Kd. EB 1310	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Saguzar buztanluzea (*Tadarida teniotis*) - 1333

Saguzar buztanluzeak leku irekiak aukeratzen ditu bizi-eremu gisa; esaterako, herriak, argiguneak dituzten basoak, bazkalekuak edo larreak. Babeslekuak, aldiz, ia helezinak diren harkaitzen pitzaduretan kokatzen

dira normalean, baina baita beste leku batzuetan ere, esaterako, ebakidura eta amildegietan, haitzuloetan, osinetan, zubietan, etab. Izkin saguzar buztanluzearen habitat potentziala ona da.

Espezie honek KBE/HBBEan kokapen egokia du. Dena den, egungo populazio-mailak ezezagunak dira eta ez dugu espezieak eremu honetan izango dituen etorkizunerako aurreikuspenak ebaluatzeko informaziorik.

Kd. EB 1333	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Ebaluazio globala				X

Presioak eta mehatxuak

- Biozidak, hormonak eta produktu kimikoen erabilera (A07): hegazti errupikolen eta kiropteroen populazioarentzako mehatxu nagusienetako bat da, elikadura- eta bizi-eremuei eragiten baitie.

- Harea eta legarraren erausketa (C01.01): Izki eremuan bi meatze-baliabideen ustiatzeko emakidak daude. Alde batetik, Esther ustiaketarena, gaur egun berrizte igarobidean dagoena, eta bestetik, Maestuko asfaltoen ustiaketarena, Atauri inguruneetan, gaur egun ustiaketa fasean ez dagoena, baina baimena mantentzen duena.

Esther ustiaketaren baimena 100 lauki meatze-lauki baino gutxiagoko hiru zatiketan banatu zen eta hauetako bi (Esther II eta III) KBE/HBBE barruan aurkitzen ziren. 2010ean Ingurumen-Inpaktuaren Adierazpen negatiboak jaso zituzten Parke Naturaleko ondorio kaltegarri posibleengatik eta eremu honen NBAParen bateraezintasunagatik.

Natura 2000 Sareko harkaitzegietako erausketa-jarduera berrien ezarpena edo zeudenen hedapena, kontserbazio helburuekin elkarrezina da, ekosistema hauetan sartzen diren aldaketak balabide hauen erausketagatik habitat hauetan eragin garrantzitsuak sortarazten baitute. Alabaina, balio natural guztietako ondorio kaltegarriekin, hau da, Funtsezko Elementu honetan ezin dira helbururik lortu.

- Linea elektrikoak eta telefono-lineak (D02.01): linea elektrikoek kontra egindako talka harrapari errupikoen populazioarentzako mehatxu bat da.

- Animaliak tranpen bidez eta pozioen bidez harrapatzea; isileko ehiza (F03.02.03): pozo bidezko intoxikazioa da harrapari errupikolen populazioaren mehatxua da, nahiz eta Natura 2000 Izkin oso ohikoa ez izan.

- Kanpoan egindako kirola, aisialdiko jarduerak eta jolaserako antolatutako jarduerak (G01): xendazaletasuna izan daiteke *Potentilla frutikosa* populazioarentzako eremu honetan praktikatzen den

mehatxu nagusia, populazioaren kontserbazioa zein jarraipena lortzeko eta ingurune baldintzak mantendu eta zaintzeko.

- Alpinismoa, eskalada, espeleologia (G01.04): hegazti errupikolen eta kiropteroen populazioarentzako arrisku-faktore nagusienetako bat ugalketa-eremuetako eragozpenek osatzen dute, eskaladaren, mendizaletasunaren eta halako beste jarduera batzuen ondorioz.

- Harrapakinen eskuragarritasunaren murrizketa (sarraskia barne) (J03.01.01): ikertzaile batzuek hegazti errupikolentzako elikagaien eskuragarritasuna murriztu dela aipatzen dute.

- Habitaten konektibitatearen murrizketa antropogenikoa (J03.02): multzo honetan sartutako flora-espezie gehienentzat, beren populazioei eusteko baldintzatzaile nagusiak jasan behar dituzten baldintza biogeografikoekin dute lotura: espezieak kokapen-eremu txikiak eta habitat edo ingurune oso zehatzetara mugatuta egotea, egokitzapen espezifikoak eskatzen dituzten ingurumen-baldintzatzaile sendoeekin; eta habitat ezaugarrien ondorioz (urriak eta azalera txikiak), espezie horiek lurralde potentzial oso txikiak eta zatikatuak izatea, espezieek distantzia handiko konektibitate-fenomenoekiko eta klima- eta inguru-aldaketekiko menpekotasun handia izan dezatela eraginez.

- Klima-aldaketa (M): mendietan garatzen diren klima-aldaketatik ondorioztatzen diren klima-aldakuntzak espezie batzuen populazioa eta eremuen murrizketa nabarmenak izan ditzakete.

Potentilla fruticosaren kasu konkretuan, espezie honen reliktualitate baldintza, eta beraz, bere kokapenarena, garrantzizko balioabideak dira bere presentzia eta hauskortasuna balioztatzeko, bizi diren tokian, gertatzen diren baldintza mikroklamatikoen aldaketak populazioa hunkitu dezakete.

Baldintzatzaileak

Mendeetan zehar espezie hauek giza jarduetik at mantendu dira hurrengo arrazoei esker: kokalekuko fisiko eta ingurumen-ezaugarriak izateagatik, klimatologiaren babesgabea izateagatik eta kokaleku gehienak helezinak izateagatik. Gaur egun, gizakiaren eragin zuzenen posibilitateak edo inguruko baldintzak nahiko txikiak dira populazio honentzat.

Baldintzatzaile positiboan artean, urteroko jarraipena aipatu behar da, Izki Parke Naturean dauden atxikitako langileak *Potentilla fruticosa* espeziearen inguruan garatzen dutena. Hau guztia dela eta, Parke Naturalen Zerbitzua 2000. urtetik hona sai arrea, arrano beltza, sai zuria eta belatz handiaren informazioa biltzen ari da.

Bestalde, 2009an, Arabako Foru Aldundia «Interreg Necropir: Biodibertsitate Jasangarria Pirinioetan» proiektuaren onuradun suertatu zen. Proiektu horren baitan, sai arreen 10 kolonia piloturen jarraipen egiteko programa ezarri da; hauetatik bat Izki KBE/HBBEan aurkitzen dena.

Bestalde, onartzeko bidean da «Euskal Autonomia Erkidegoko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana, Euskadiko Administrazio Orokorra eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak sinatua». Planak Interes Berezikoko Eremutzat hartzen du Izki Natura 2000ko eremua hegazti nekrofago batzuentzat: ugatza, sai zuria eta sai arrea. Horretaz gain, zenbait jarraibide, debeku eta neurriak ezartzen ditu espezie

hauek kontserbatzeko eta kudeatzeko.

Baterako Kudeaketa Planak, halaber, Espezie Nekrofagoak Elikatzeko Babesguneen Inbentario Ofiziala sortzen du, eta bertan sartzen da Izki KBE/HBBEa.

Elikagune artifizialei dagokienez, gaur egun, Arabako Foru Aldundiak kudeatzen du Analamendiko simaurtegia, Natura 2000 eremuaren ipar-ekialdean kokatuta dagoena.

Linea elektrikoen zuzenketa ere badago baldintzatzaile positibo bezala, 2004an burututako LIFE Natura Araban Bonelli Arranoaren proiektuaren barruan, Korreseko bidean 1,8 km-etan zehar egin diren 13,2 kv-tako lanekin.

6. KE.- Hareatzak

Kontserbazio-egoera

Halimium lasianthum subsp. alyssoides

Estrepadi, txilardi eta otadi atlantikoen parte izaten diren mulu txikiak dira, lurzoru azido edo hareatsuetan, giro hezeekin, daudenak.

Penintsularen ipar-mendebaldeko aldetik ekialdera aurki daiteke, hau da, Kantauri mendikatetik Demanda, Urbion eta Cebollera mendilerroetaraino.

Izkiko kokalekua Kintanako aldean 1x1 UTMko bi laukietan bakarrik dago, espeziearen ekialdeko kokapen-mugan dagoen puntu batean. Kokapena gorabeheratsuenetarikoren bat da, lehen ezagutzen ziren hurbileko kokapenak desagertu direlarik. Beraz, banaketa txarra dirudi.

Egungo populazioa nahiko zehatza da gunean eta gutxi aurkitzen dira. Bakarrik bi populazio txikiak aurkitzen dira lurzoru hareatsu batzuetan eta KBE/HBBEko barrualdeko ameztien soilguneak ixteko. Datuen arabera hurbil dauden beste guneetako desagertzea eta bere presentziako murrizketa handiarekin eremua txarra dela esan daiteke.

Izkin hartzen duen habitata ez da egokia *Ulex*eko otadien artean aurkitzen delako. Beste alde batetik, ez da hain zabala espeziearen presentzia epe luzera ziurtatzeko. Arrazoi horien arabera Izkin dagoen espeziearen habitat potentziala txarra da.

Espeziearentzako etorkizunerako aurreikuspenak desagokiak dira aipatu diren arrazoiengatik: populazio txikia, eremu oso txikia eta banaketaren gunean isolatutako kokalekua.

Kd. EB	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
--------	---------	-----------	--------	-----------

Kokapen-eremua edo tartea			X	
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizuneako aurreikuspenak		X		
Ebaluazio globala			X	

Presioak eta mehatxuak

- Klima-aldaketa (M): urtetik urterako klima-aldaketak bere presentzia murriztu dezake. Denboran zehar ager daitekeen klima-aldaketa txikiak eragin txarra izan daiteke banaketa eremuan dagoen presentziaren oreka makalean.

Baldintzatzaileak

Edozein bat-bateko fenomenoren ondorioz, galtzeko arriskuan egon daiteke, ezagunak diren populazio-entitateak eta bizi diren hareatsu-soilgune azalera txikiak direlako, eta espeziearen egoera biogeografikoagatik, banaketa-eremuaren ekialdeko mugan dagoelako.

Babesak eta eremu hurbilean eta lehiakideak diren espezieetan egin daitezkeen jaraipen eta kontrol neurriek bere kontserbazioa erraztu dezakete epe luzera. Zentzu honetan, pentsa dezakegu txilardiak osatzen duten habitata eta Izkin bizi den otadiek, komunitate pirofitoak direla *Halimium lasianthum* bezala. Baldintza hau agertzen da formazioen endekapenagatik eta su falta dagoenean, elementu hau komunitatearen berritzailea baita.

Halaber, Izki Parke Naturalaren zaintza zerbitzuak eremuan urtero espeziearen ebaluaketaren jarraipen nabarmena garatzen du.

7. KE.- Konektibitatea

Kontserbazio-egoera

Arabako Lurralde Historikoko Korridore Ekologikoen Sareak KBE/HBBEaren mendebaldeko muturretik eta Trebiñuko konderraren (Burgos) mugara doa, baita Azazeta, Berrozi, Okina mendiak (iparraldeko gunean), Galditu erreka ere (KBE/HBBEaren ekildean).

Bestalde, EAEko Korridore Ekologikoen Sareak lotu beharreko eremu nagusi gisa ezartzen du Izki KBE/HBBE osoa, ibai-sarearen garrantzia nabarmenduz.

Beraz, Izki batasun-lotura handi bat da Erdiko mendi sistemen (Valderejo HBBEa, Arkamo-Gibijo-Arrastaria HBBEa, Gasteizko Mendi Garaiak HBBEa eta Entzia KBBEa) eta hegoaldeko mendien artean (Arabako

hegoaldeko mendilerroak KBEEa, Kodes mendilerroa BGLa (Nafarroa) eta Miranda de Ebro eta Ameyugo (Burgos) mendiak KBEEa).

Presioak eta mehatxuak

- Nekazaritza indartzea (A02.01): Izki KBE/HBBEko gunea aldaketa handia jasan du azken hamarkadetan, nekazaritza indartu izanaren ondorioz, eta larre-, sastraka- eta baso-eremu asko lehorreko laborantzak eta mahastiak barne hartzen dituzten nekazaritzako lur bilakatu dira.

- Errepideak, bideak eta trenbideak (D01): Izki KBE/HBBEan ia ez dago faunari espazio honetatik inguruko beste batzuetara mugitzea eragozten dion oztopo artifizialik; honako bi errepide hauek bakarrik aipatu behar dira: A-132 eta A-126. Lehena, gunearen ekialdeko muturrean dago kokatuta, honen eta Entzia HBBEaren artean, non 2003. eta 2011. artean agertu zen 5,82 instripu kilometroko, eta 16 instriputik 15 basurdeekin izan zirenak.

- Habitaten konektibitatearen murrizketa antropogenikoa (J03.02): nekazaritza-areagotzearen ondorioz, espezie asko, batez ere flora-espezieak, eremuko ertz txiki batzuetara mugatu dira.

Baldintzatzaileak

Izki KBE/HBBEko gunean egitura espezifikoa bat bakarrik dago faunarentzat, nahiko txikia eta desegokia dena ungalatu ertaintzat zein oso handientzat.

Jarraian, Izki KBE/HBBE eremuak jasaten dituen presio eta mehatxu nagusiak laburbiltzen dira.

Erantsitako taula eremu horri dagozkion presioen balorazio orokorrekoa matrizea da; horretarako, izan daitezkeen mehatzuak identifikatu dira, gaur egun eremuko funtsezko elementuei eta presio bakoitzaren eragina jasaten duten inguruneko aldagaiei eragin diezaieketenak.

Kontuan hartutako ingurumen-aldagai bakoitzak jasaten dituen presioak identifikatzeaz gain, presio horien balorazio orokor bat egin da, lan hau gauzatu duen talde teknikoaren irizpideei jarraituz:

Presio handia	Inguruneak eragina jasateko aukera handia dago
Neurrizko presioa	Inguruneak eragina jasateko aukera ertaina dago.
Presio txikia	Inguruneak eragina ez jasateko aukera handia dago.

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

14. taula. Izki KBE/HBBeKo presioen eta mehatxuen laburpena.

		LUR-KORRIDOREA	UR-KORRIDOREA	AIRE-KORRIDOREA		
		ELKARTUTAKO ELEMENTUAK				
		Basoak, larreak, zohikaztegiak, habitat arrokatuak eta haizuloak, mehatxatutako flora, baso-ornogabeak, narrastiak eta anfibioak, baso-hegaztiak eta errupikolak, mesougaztunak, kiropteroak...	Ibai-sistemako ur-habitata, odonatoak, anfibioak, ibai-karramarro autoktonoa, bisoi europarra eta beste mustelido erdiakuatiko batzuk.	Hegazti-fauna eta kiropteroak		
		ERAGINPEKO ALDAGAIAK				
Presio-mota	Presioa	Estaldura	Konektibitatea	Uraren kalitatea	Iragazkortasuna	Jarraitasuna
Nekazaritza	Laborantza	Handia	Handia	Handia	-	-
	Nekazaritza jardueren aldaketa	Handia	Neurrizkoa	-	-	-
	Larreen mozketa/sasiz garbiketa	Neurrizkoa	Neurrizkoa	-	-	-
	Artzaintza	Handia	-	-	-	-
	Bioziden, hormonon eta produktu	Handia	Neurrizkoa	Handia	Handia	-

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

		LUR-KORRIDOREA	UR-KORRIDOREA	AIRE-KORRIDOREA		
ELKARTUTAKO ELEMENTUAK						
		Basoak, larreak, zohikaztegiak, habitat arroksatuak eta haizuloak, mehatxatutako flora, baso-ornogabeak, narrastiak eta anfibioak, baso-hegaztiak eta errupikolak, mesougaztunak, kiropteroak...	Ibai-sistemako ur-habitata, odonatoak, anfibioak, ibai-karramarro autoktonoa, bisoi europarra eta beste mustelido erdiakuatiko batzuk.	Hegazti-fauna eta kiropteroak		
ERAGINPEKO ALDAGIAK						
Presio-mota	Presioa	Estaldura	Konektibitatea	Uraren kalitatea	Iragazkortasuna	Jarraitasuna
	kimikoen erabilera					
	Ongarrien erabilera	Handia	Neurrizkoa	Handia	-	-
	Lurzati-kontzentrazioak	Handia	Handia	-	-	-
	Eremu irekien oihaneztapena	Handia	Handia	-	-	-
Basogintza, baso-zientziak	Basoen eta plantazioen kudeaketa	Handia	Handia	-	-	-
	Bioziden, hormonon eta produktu	Handia	Handia	-	-	-

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

	LUR-KORRIDOREA	UR-KORRIDOREA	AIRE-KORRIDOREA		
	ELKARTUTAKO ELEMENTUAK				
Izki KBE/HBBEan aurkitutako presioak	Basoak, larreak, zohikaztegiak, habitat arroksatuak eta haitzuloak, mehatxatutako flora, baso-ornogabeak, narrastiak eta anfibioak, baso-hegaztiak eta errupikolak, mesougaztunak, kiropteroak...	Ibai-sistemako ur-habitata, odonatoak, anfibioak, ibai-karramarro autoktonoa, bisoi europarra eta beste mustelido erdiakuatiko batzuk.	Hegazti-fauna eta kiropteroak		
	ERAGINPEKO ALDAGIAK				
Presio-mota	Estaldura	Konektibitatea	Uraren kalitatea	Iragazkotasuna	Jarraitasuna
	kimikoen erabilera (basogintza)				
Meatzetza-erazketa-jarduera, energiaren ekoizpena	Harea eta legarraren eruzketa	Neurrizkoa	Neurrizkoa		Neurrizkoa
	Energia berriztagarri abiotikoen erabilera	Txikia	Txikia	-	Txikia
Garraioak eta komunikazio-sareak	Errepideak, bideak eta trenbideak	Handia	Handia	Neurrizkoa	-
	Zerbitzu publikoko azpiegitura linealak	Neurrizkoa	Neurrizkoa	-	Handia

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

		LUR-KORRIDOREA	UR-KORRIDOREA	AIRE-KORRIDOREA		
ELKARTUTAKO ELEMENTUAK						
		Basoak, larreak, zohikaztegiak, habitat arroksatuak eta haitzuloak, mehatxatutako flora, baso-ornogabeak, narrastiak eta anfibioak, baso-hegaztiak eta errupikolak, mesougaztunak, kiropteroak...	Ibai-sistemako ur-habitata, odonatoak, anfibioak, ibai-karramarro autoktonoa, bisoi europarra eta beste mustelido erdiakuatiko batzuk.	Hegazti-fauna eta kiropteroak		
ERAGINPEKO ALDAGIAK						
Presio-mota	Presioa	Estaldura	Konektibitatea	Uraren kalitatea	Iragazkotasuna	Jarraitasuna
Hirigintza, eta egoitza- eta merkataritza-garapena	Hondakinak	Neurrizkoa	Neurrizkoa	Neurrizkoa	-	-
Nekazaritza eta basozaintzatik bereizten diren baliabide biologikoen erabilera	Animalia basatien ehiza eta harrapaketa Lehorreko landareak biltzea eta kentzea Legez kanpoko harrapaketa	Neurrizkoa	-	-	-	-
Gizakiaren intrusioa eta nahasmenduak	Aire zabaleko kirolak eta aisialdiko jarduerak	Handia	Handia	-	-	-

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

	LUR-KORRIDOREA	UR-KORRIDOREA	AIRE-KORRIDOREA			
	ELKARTUTAKO ELEMENTUAK					
Izki KBE/HBBEan aurkitutako presioak	Basoak, larreak, zohikaztegiak, habitat arroksatuak eta haitzuloak, mehatxatutako flora, baso-ornogabeak, narrastiak eta anfibioak, baso-hegaztiak eta errupikolak, mesougaztunak, kiropteroak...	Ibai-sistemako ur-habitata, odonatoak, anfibioak, ibai-karramarro autoktonoa, bisoi europarra eta beste mustelido erdiakuatiko batzuk.	Hegazti-fauna eta kiropteroak			
	ERAGINPEKO ALDAGIAK					
Presio-mota	Presioa	Estaldura	Konektibitatea	Uraren kalitatea	Iragazkotasuna	Jarraitasuna
	Gizakiaren beste nahasmendu eta intrusio batzuk	Handia	Handia	-	-	-
Espezie inbaditzaileak	Espezie inbaditzaileak	Handia	Handia	Handia	-	-
	Suteak eta itzaltzeko lanak	Handia	Handia	-	-	-
Sistema naturalaren aldaketak	Egoera hidraulikoetan egindako aldaketak	-	-	Neurrizkoa	Neurrizkoa	-
	Ekosistemetako beste aldaketa batzuk	Handia	Handia	-	-	Neurrizkoa

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

		LUR-KORRIDOREA	UR-KORRIDOREA	AIRE-KORRIDOREA		
ELKARTUTAKO ELEMENTUAK						
Izki KBE/HBBEan aurkitutako presioak		Basoak, larreak, zohikaztegiak, habitat arrokatuak eta haizuloak, mehatxatutako flora, baso-ornogabeak, narrastiak eta anfibioak, baso-hegaztiak eta errupikolak, mesougaztunak, kiropteroak...	Ibai-sistemako ur-habitata, odonatoak, anfibioak, ibai-karramarro autoktonoa, bisoi europarra eta beste mustelido erdiakuatiko batzuk.	Hegazti-fauna eta kiropteroak		
		ERAGINPEKO ALDAGAIAK				
Presio-mota	Presioa	Estaldura	Konektibitatea	Uraren kalitatea	Iragazkor-tasuna	Jarraitasuna
Prozesu natural biotikoak eta abiotikoak	Prozesu abiotiko naturalak (motelak)	Handia	Handia	-	-	-
	Espeziearteko fauna-harremanak	Handia	Handia	Handia	-	-
	Aldakortasun genetikoaren murrizketa	Handia	Handia	Handia	-	-

6.- KONTSERBAZIORAKO HELBURU ETA ARAUAK

6.1.- ERREGULAZIO OROKORRAK

1.- Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren arabera, eremuaren kudeaketarekin zerikusi zuzenik ez duen edo kudeaketarako beharrezkoa ez den edozein plan, programa edo egitasmok nabarmen eragiten baldin bada aipatutako lekuen gainean, banaka edo beste proiektu edo planekin batera bada ere, tokiko ondorioen gaineko ebaluazio egokia egin beharko zaio, kontuan hartuta toki horren kontserbazio-helburuak. Esandako ebaluazio ondorioak ikusita eta 45. artikulua 5. atalean xedatutakoak baldintzatuta, planak, programak edo proiektuak onartzeko edo baimentzeko eskumena duten organoek bakarrik haiekiko adostasuna adierazi ahal izango dute, aipatutako gunearen osotasunari kalterik eragiten ez diotela ziurtatu ondoren eta, hala badagokio, jendaurrean jarri ondoren.

Aipatutako 45. artikulua ezarritako ondorioetarako, ebaluazio egokia indarreko ingurumen-ebaluazioari buruzko araudiak, ezarritako prozeduraren arabera bideratuko da, kontuan hartuta tokiaren kontserbazio-helburuak.

2.- Eraginaren ebaluaziotik ondorio negatiboak atera arren jarduketaren bat egin behar bada Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen ezarritako salbuespen-baldintzak betetzen direlako, beharrezko neurri osagarriak hartu beharko dira Natura 2000 Sarearen koherentzia orokorra bermatzeko eta babes bereziko erregimenean dauden eta jardueraren eragina izan duten elementu guztiak kontserbazio-egoera onean daudela ziurtatzeko.

3.- Kalterik ez eragiteko neurriak hartu arren kalteak eragiten bazaizkie kontserbatu beharreko elementuei, behar bezala konpondu beharko dira, eta kostu guztiak ordaindu, Ingurumen Erantzukizunari buruzko 26/2007 Legearen ezarritako baldintzetan.

4.- Kaltea kasuan kasuko elementuaren erreferentziako kontserbazio-egoeraren arabera ebaluatu ahal izateko, egin beharreko leheneratze-lanek zer arrakasta izan dezaketen aztertzeko, eta babes bereziko erregimenean dauden elementuak kontserbazio-egoera onera iristen direla edo egoera horri eusten zaiola ziurtatzeko, kasuan kasu ezarritako helburu neurgarriak aintzat hartuta, aurrez elementuen uneko edo oinarrizko egoera zehaztu beharko da, metodo kuantitatiboen bidez edo, bestela, balioespen kualitatibo fidagarrien bidez.

5.- Ondoren, aldian-aldian ebaluatu beharko da, prozedura estandarizatuen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura 2000 Sareko beste toki batzuetan lortutako emaitzekin alderatu ahal izateko eta, horrela, sare osoaren kontserbazio-egoera balioetsi ahal izateko. Prozedurok kudeaketa-tresnaren jarraipen-programan txertatuko dira, eta hainbat alderdi ebaluatzeko erabili ahal izango dira (espezieak edo habitatak, talde taxonomikoak edo beste taxon-talde batzuk), betiere, geroago espezieak banan-banan baloratzeko aukera ematen badute.

6.- «Babes bereziko erregimenean dagoen habitat edo espezie» bat egoera ez-aldekoa (txarrean edo desegokian) dagoela erabakitzen bada, funtsezkoa edo kudeatzekoa den elementutzat ere hartuko da. Ondorioz, kontserbazio-neurriak, neurri espezifikoak eta beharrezko neurriak hartu beharko dira berehala,

salbu eta halako neurriak ezarrita badaude funtsezko beste elementu baterako kudeaketa-tresnan eta nahikotzat jotzen badira kasuan kasuko habitata edo espeziea kontserbazio-egoera onera iristeko. Kasu honetan, neurriak aurreko ataleko taulan zehaztuko dira.

7.- Kontserbatzekoak diren habitat eta espezieen kontserbazio-egoeran aldaketa esanguratsuak eginez gero, eremu bakoitzaren jarraipen-programaren baitan egiten diren aldizkako txostenetan adierazi beharko dira. Era berean, ebaluatu egin beharko da zer ondorio dituzten aldaketa horiek EAEko Natura 2000 Sarearen kontserbazio-egoera orokorrean. Bestalde, ebaluazioaren emaitzak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari jakinaraziko zaizkio, 42/2007 Legearen 47. eta 53.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Izki KBE/HBBEaren barruan EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren II. Eranskineko Olandina urmaela B6A1 hezegunea dagoen eremuan aplikagarriak izango dira bai dokumentu honetan jasotako KBE/HBBEari buruzko erregulazioak, baita uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuak esandako eremuarentzako ezarritako helburuak eta erregulazioak ere.

Aplikagarri den araudi sektoriala gorabehera (bereziki mendiei eta urei buruzko araudia), egoki irizten zaio honako arau hauek nabarmentzeari:

6.1.1.- Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerari buruzko arau orokorrak

- 1.-** Izki KBE/HBBEan aplikagarri izango da Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea, ekainaren 7ko 12/2011 Dekretuak onartuta.
- 2.-** Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak bateragarriak izango dira habitat naturalen kontserbazioarekin, espezieek habiak jartzeko eta babes hartzeko erabiltzen dituzten paisaia-elementuekin, eta populazioen dispersioan eta haien arteko kontaktuan laguntzen duten lotura-elementuekin.
- 3.-** Abeltzaintza-itxiturak egitean baso-faunaren dispertsioa eta mugimenduak bermatzeko eta haien heriotza ekiditeko behar besteko baldintzekin. Horretarako, derrigorrezkoa izango da Organo Kudeatzailearen baimena izatea.

6.1.2.- Ehizari eta arrantzari buruzko arau orokorrak

- 1.-** Debekatuta dago ehiza- edo arrain-faunako espezieak edota bariatateak birpopulatzea, ekimena pribatua zein publikoa izan, baldin eta mehatxua izan badaiteke Izki KBE/HBBEan dauden animalia eta landare basatien espezieetarako.
- 2.-** Fauna Izki KBE/HBBEan halabeharrez edo legez kanpo sartuz gero, oro har, ez da ehiza- edo arrain-aprobetxamendua baimenduko eta, hala badagokio, espezieak kontrolatzeko neurri egokiak sustatuko dira, espezie horiek desagerrarazteko asmoz.
- 3.-** Izki KBE/HBBEan, debekatuta dago ale zinegetikoak askatzea.

6.1.3.- Ura erabiltzeari buruzko arau orokorrak

- 1.-** Gainazaleko eta lurpeko ur-hartune eta -aprobetxamendu berrien harira, kontserbazioaren xede diren KBE/HBBEko elementuetan izan ditzaketen ondorioak ebaluatuko dira aurrez, bakarrik edo beste

aprobetxamendu batzuekin konbinatuta emari ekologikoen erregimena alda badezakete edo hezeguneei eta haien babesguneei eragin badiezaiekete. Ebaluazio horretan, besteren artean, teknikoki bideragarriak diren aukerak aztertuko dira, eta emakida egin behar dela eta erabakitako irtenbidea ingurumen-mailan egokia dela justifikatuko da behar den moduan; orobat, ziurtatuko da ez dela afekzio nabarmenik eragingo guneetan kontserbatzekoak diren elementuetan. Edozein kasutan ere, ziurtatuko da emarien erregimena bateragarria dela kontserbatzekoak diren habitaten edo espezieen aldeko kontserbazio-egoerari eustearekin edo berau berrezartzearekin.

6.1.4.- Hirigintza-araubideari, hirigintzako erabilerei eta eraikuntzari buruzko arau orokorrak

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginak (apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak) 13. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Natura 2000 Sareko tokiak babestutako naturaguneak dira. Lurralde-antolamenduko tresnek eta hirigintza-plangintzak egoera hori islatuko dute, eta ziurtatuko dute toki horietan eremu horietako natura-habitaten motak eta espezieak kontserbatuko direla, dokumentu honetan finkatzen diren xedeen arabera.

6.1.5.- Azpiegiturei eta ekipamendu handiei buruzko arau orokorrak

1.- Saihestu egingo da Izki KBE/HBBEaren barruan azpiegiturak (bideak, trenbideak, energia ekoitzi eta garraiatzekoak, etab.) eta ekipamendu handiak eraikitzea.

Hala ere, ebaluazio egokia egin eta KBE/HBBEaren baimentzen diren lurpeko azpiegitura linealak (kolektoreak, ur-hodiak, gasbideak, telekomunikazio-sareak, linea elektrikoak, etab.) lehendik dauden azpiegituretan eta zortasunetan oinarrituko dira, ahal dela.

2.- Izki KBE/HBBEan ez da Gauzatuko Kontserbatzekoak diren Elementuak muga ditzakeen industria-proiekturik, are gutxiago flora- eta fauna-espezieetarako sentikorrenak diren guneetan (mehatxatutako florarako banaketa mugatuko guneak, hegazti errupikolen eta basokoen habia egiteko tokiak eta ehiza-guneak) gara daitekeenik.

3.- Teknikoki bideragarria bada, zutoinak eta dorre elektrikoak Habitategi buruzko Zuzentarauak habitat gisa sailkatutakoei ez eragiteko moduan kokatuko dira. Edonola ere, instalazio horiek talken aurkako eta elektrokuzioaren aurkako gailuak izango dituzte, hegazti-fauna ez hiltzeko.

6.1.6.- Beste erabilera eta jarduera batzuei buruzko erregulazio orokorrak

1.- Izki KBE/HBBEaren barruan, taldeentzako kirol- edo aisia-jarduerak egin ahal izateko, Organo Kudeatzailearen baimena behar da, eta hark baldintzak jar ditzake Kontserbatzeko Elementuek kalte nabarmenik jasan ez dezaten.

6.1.7.- Babeserako Eremu Periferikoaren erregulazio orokorrak

1.- Babeserako Eremu Periferikoan honako araubide hau aplikatu behar da: Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentzauren 6. artikuluko 2, 3 eta 4. zenbakietako prebentzio-araubidea (92/43/EEE Zuzentzaurea habitat naturalak eta basa-fauna eta -flora kontserbatzeari buruzkoa da).

6.2.- FUNTSEZKO ELEMENTUETARAKO HELBURUAK ETA ERREGULAZIOAK**1. KE.- Basoak**

Helburuak eta Erregulazioak	
1. azken helburua	Basoen egoera estrukturala eta funtzionala hobetzea, eta haiekin lotutako flora- eta fauna-populazioen tokiko banaketa mantentzea.
1.1 helburu operatiboa	Izki KBE/HBBEan banaketa-gunearen aldeko egoera mantentzea.
Erregulazioak	<p>1. Oro har, Izki KBE/HBBEko Erabilera Publikoko Mendietan geldialdi begetatiboa ezartzen da, eta abereek handik kanpora egon behar dute, abeltegietan edo lursail partikularretan; salbu eta Organo Kudeatzaileak bestelako baimen espresu bat ematen badu. Geldialdi begetatibo hori gunee horretako klimaren batez besteko datuetan oinarritu da, eta azaroaren 16tik martxoaren 31ra arte iraungo du. Abereak gunee horretako EPMen barruan egon daitezke apirilaren 1etik azaroaren 15era. Eguraldia edo bestelako arrazoi justifikatu batzuk direla medio, Organo Kudeatzaileak aldatu ditzake data horiek, bai guneari dagokionez, bai abere-motari dagokionez.</p> <p>Erregulazio honen mende dauden ustiategiek 3 urte dituzte hartara moldatzeko, guneeak izendatzen diren unetik aurrera.</p> <p>2. Debekatuta dago abereei aparteko mantenugaiak ematea Izki KBE/HBBEko Erabilera Publikoko Mendietan. Nolanahi ere, Organo Kudeatzaileak baimen dezake aparteko mantenugaiak ematea abereak hobeto kudeatzeko tresna gisa— horrek lagun lezakeelako dokumentu honetan adierazitako helburuak lortzen— edo bestelako arrazoi batzuk daudelako, eta egoki iruditzen zaizkion baldintzak ezarri ahal izango ditu.</p> <p>3. Su-itzaltzeko jardueren eraginkortasuna hobetzeko, dagoen bide-sareko ertzeak aprobetxatuko dira ahal izango den neurrian baso helduko suaren aurkako eremuak jartzeko, erregaiaren jarraitzea moztuz.</p> <p>4. Debekatuta dago baso-espezie aloktonoak landatzea, salbu eta organo kudeatzaileak baimena ematen duenean, eta, betiere, Batasunaren intereseko habitatak kontserbazioa arriskuan jartzen ez bada.</p> <p>5. Debekatuta dago KBE/HBBEan luberritzeak sortzea, salbu eta organo kudeatzaileak baimena ematen duenean, eta, betiere, Batasunaren intereseko habitatak kontserbazioa arriskuan jartzen ez bada.</p>

1.2 helburu operatiboa	Izki KBE/HBBEko basoetan estratifikazioa, dibertsitate espezifikoak, zur hilaren presentzia eta beste balio estruktural eta funtzional batzuk handitzea.
Erregulazioak	<p>6. Sutarako egurra markatzeko kontuan hartuko dira Organo Kudeatzaileak Izkiko ameztiaren Baso-Kudeaketa Planean ezartzen dituen irizpide tekniko eta ingurumenekoak, unadaren kontserbazio-egoera hobetzen laguntzeko.</p> <p>7. Basoak zatitzen diren prozesuak saihestu, eta kanpoko zein barneko konektibitatea lagundu behar dira. Horretarako beste habitat batzuen presentziaz (haltzadiak, urkidiak, etab) edo intereseko espeziez (<i>Quercus robur</i>) baliatu beharko da.</p> <p>8. Debekatuta dago lurrera eroritako zur hila erauztea, salbu eta organo kudeatzaileak baimena ematen duenean, eta, betiere, Batasunaren intereseko habitatak kontserbatzeko lanak arriskuan jartzen ez badira.</p>
1.3 helburu operatiboa	Aziendaren presio negatiboa eliminatzea, eta horrekin hagin-basoaren adinen egitura hobetzea eta bere hedapena handitzea.
1.4 helburu operatiboa	Baso-habitatetan kontserbatu nahi diren flora-espezieen populazioak eta banaketa hobetzea eta mantentzea, eta bere dibertsitatearen kontserbazioaren garrantzia hedatzea.
Erregulazioak	9. <i>Sorbus latifoliako</i> aleak mozketa debekatuta dago.
1.5 helburu operatiboa	Baso-habitatetan kontserbatu nahi diren fauna-espezieen populazioak eta banaketa hobetzea eta mantentzea.
Erregulazioak	<p>10. Debekatuta dago <i>Lucanus cervus</i>, <i>Cerambyx cerdo</i>, <i>Rosalia alpina</i> eta <i>Euphydryas aurinia</i> espezieetako aleak harrapatzea, salbu eta helburu zientifikoetarako bada eta Organo kudeatzailea berriazko baimena badago.</p> <p>11. Debekatuta dago Izki KBE/HBBEko baso-masetan produktu fitosanitarioak edota pestizidak erabiltzea, salbu eta berriazko baimen arrazoitua badago eta aurretiaz emandako Natura 2000 gunearen Organo Kudeatzaileak txostena egiten badu, KBE/HBBEan kontserbatzekoak diren helburuetan eraginik ez dutela izango esanez. Inola ere, ezin da erabili fitosanitariorik eta/edo pestizidarik, izurriarentzat edo dena delako efektuarentzat berriazkoa ez denik.</p> <p>12. Debekatuta dago poliporoak dituzten zuhaitzak erauztea, betiere, zuhaitzietan hektareako 20 oin baino gehiago ez badira edo aleak zuhaitz handiz inguratuta badaude.</p>

	<p>13. Debekatuta dago markak egitea zuhaitz motzak ebakitzeko, baita 36 zm-tik gorako diametroa duten eta hiltorian edo zahartuta dauden zuhaitzak ebakitzeko ere, salbu eta Organo Kudeatzaileak berariazko baimena ematen badu, betiere Funtsezko Elementuen kontserbazioa bermatzen baldin bada.</p> <p>14. Debekatuta dago basoko faunako espezieek habia egiteko plataforma edo kofa ezin hobeak dituzten zuhaitz-aleak ebakitzea edo ipurditik moztea.</p> <p>15. Organo Kudeatzaileak aurrez justifikatzen ez badu ez zaiela eragiten Funtsezko Elementuei, Izki KBE/HBBEan honako hau debekatuta dago: umatzeko lekuen eta babeslekuen inguruan nekazaritzako, abeltzaintzako, basoko, aisiako eta bestelako lanak edo jarduerak egitea martxotik uztaileira baldin eta kalte egin ahal bazaie eremu horretako populazioei. Inguru horiek 100 m-ko babes-perimetroa izango dute. Jarduera horietarako, Organo Kudeatzailearen baimena behar da, zeinean adieraziko baita zein eremutan egin daitezkeen jarduera horiek, kontuan hartuta, betiere, ezarritako babes-perimetroa.</p>
1.6 helburu operatiboa	Artzaintzako eta basogintzako aprobetxamenduekin bateragarriak diren edo biodibertsitatea kontserbatzen laguntzen duten aprobetxamenduen aukerak bateratzea eta hobetzea, produktibitate ekonomikoa, eskualdearen nortasuna eta inguruko biztanleen bizikaltatea hobetzeko bide gisa.

2. KE.- Larreak

Helburuak eta Erregulazioak	
2. azken helburua	Batasunaren intereseko larreak (berezi lehentasunezkoak) kontserbatzea, baita haiekin erlacionatutako intereseko flora- eta fauna-espezieen banaketa-eremua eta populazioak ere.
2.1 helburu operatiboa	6210*, 6220* eta 6230* habitatak kontserbazio-egoera onean mantentzea eta bere ezagutza hobetzea.
Erregulazioak	<p>16. Debekatuta dago larreak medeatzea, harrotzea, ongarritzea edo ereitea baldin eta habitat horien egitura eta landaredia aldatu ahal bada; salbu eta Kontserbatzeko Elementuen egoerak ez duela kalterik jasango justifikatu, eta Organo Kudeatzaileak baimena ematen badu.</p> <p>17. Suteak edo herbizidak erabili orde, soiltzeak lehenetsiko dira sastraka ugari dagoen larreetako sastrakak kontrolatzeko. Larre berriak ezin izango dira</p>

	<p>landu malda %30 baino handiagoa denean, ezta txilardi hezeek hartutako eremuetan, eremu higroturbosoetan eta mehatxatutako flora eta fauna duten gunetan ere, euren babespeko perimetroa barne. Soiltze mekanikoak malda %20 baino txikiagoa denean bakarrik egin ahal izango dira egin, malda handiagoetan eskuz egin behar izango dira.</p> <p>18. Debekatuta dago eremuan ezer isurtzea eta materialak edo ibilgailuak biltzea, berariaz horretarako prestatutako tokietan izan ezik; inoiz ez, ordea, Kontserbatzekoak diren Habitaketan.</p>
2.2 helburu operatiboa	Intereseko flora-espezieen banaketa-eremua mantentzen dela ziurtatzea, eta bertako populazioak eta haien ezagutza handitzea.
2.3 helburu operatiboa	Kontserbazio-interes handiena duten eremu irekietako harraparien populazioen banaketa eta bilakaera ezagutzea eta mantentzea.

3. KE.- Zohikaztegiak

Helburuak eta Erregulazioak	
3. azken helburua	Izki KBE/HBBEaren higro-zohikatzen multzoen kontserbazio-egoera orokorra mantentzea, baita haiekin erlazionatutako floraren populazioena ere.
3.1 helburu operatiboa	Higro-zohikatzeko habitatek osatutako mosaikoen kontserbazio-egoera onari eustea.
Erregulazioak	19. Eremuaren baso-artzaintza planifikatzean kontuan hartuko dira larremota desberdinen ezaugarri eta behar bereziak; baita hezeguneen eta higro-zohikatzen eskakizun ekologikoak ere.
3.2 helburu operatiboa	4020* txilardi-habitatego funtzio ekologikoak eta kontserbazio-egoera hobetu.
Erregulazioak	20. Multzoen azalera eta haien arteko konektibitatea handitzea indartuko da, batez ere komunitatearen azalera eta dentsitateak multzo handi samarrak errekuiperatzeko aukera ematen dutenean.
3.3 helburu operatiboa	Zohikatzeko inguruneetako flora-espezie guztien banaketa-eremua mantentzen dela ziurtatzea, eta bertako populazioak eta haien ezagutza handitzea.

4. KE.- Ibaiak eta ingurune erriparioak

Helburuak eta Erregulazioak	
4. azken helburua	Habitat erriparioen eta haiekin erlazionatutako flora eta fauna-espezieak hobetzea eta kontserbatzea, baita iturburu petrifikanteetako ohiko habitataren ezaugarriak eta dinamika mantentzea (erregimen hidrologikoa eta uraren ezaugarri fisiko eta kimikoak).
4.1 helburu operatiboa	Uretako gorputzen ezaugarri biologiko, fisiokimiko eta hidromorgologikoak hobetzea eta haien ertzak berrezarpenaren bultzatzea.
Erregulazioak	<p>21. Debehatuta dago produktu fitosanitarioak eta ongarririk erabiltzea (bai sintetikoak bai naturalak) KBE/HBBEko ibai- eta hezegune-sarean, eta haietara iritsi aurreko 30 metroetan, salbu eta ezinbestean bada eta, betiere, Organo Kudeatzaileak baimena ematen badu.</p> <p>22. Bertako ibaietako eta hezeguneetako jarduera batek Konfederazio Hidrografikoaren edo Uraren Euskal Agentziaren baimena eskatzen badu, Organo Kudeatzailearen txostena beharko da aurretik. Tramitazioaren garaian egingo zaio kontsulta aipaturiko organoari. Ibaietako eta hezeguneetako jarduera bat ur-jabari publikotik eta haren babes-eremuetatik kanpora badago, kontserbatzeko elementuen gaineko eragina ebaluatu eta Organo Kudeatzailearen baimena beharko da.</p> <p>23. Hariztia berezko eboluzioa utziko da Olandina urmaelaren inguruko 50 m-ko zerrendan, bera errekupeatzeko eta landare-korridoreak, errepideko zangarekin eta hurbileko zuhaitziekin komunikatzen dituztenak, eratzeko.</p> <p>24. Debehatuta dago -Organo Kudeatzaileak baimendu ezean eta betiere Funtsezko Elementuen kontserbazioa bermatuz- urertzeko zuhaitzak moztea Izki KBE/HBBEan.</p>
4.2 helburu operatiboa	Aldi baterako urmael mediterraneoak 3170*habitatak betetzen duen azalerari buruzko ezagupena hobetzea, eta bere banaketa-eremuaren mugetan egonda, landare-komunitatearen problematikarena ere.
4.3 helburu operatiboa	7220* habitata barne hartzen duten guneen azalerari eta kalitateari eustea; zehazki, ur-jauzira doan errekarako uraren kalitatea kontrolatzea, baita izan ditzakeen afekzioak eta aldaketa faktoreak ere.
Erregulazioak	25. 7220* habitatetik hurbil dagoen zonaldearen ingurumen-ezaugarrien mantenua ziurtatuko da, bereziki bertako landarediari dagokionez.

4.4 helburu operatiboa	Haltzadiak eta sahasiaren estalitako azalera eta haien egitura mantendu edo handitzea, batez ere zohikatz-haltzadiak, haien bakantasuna, flora-aberastasuna eta zaurgarritasunagatik.
Erregulazioak	<p>26. Ibaiertzeko landaredia eta baso naturalak eta erdi-naturalak zaindu eta indartuko dira, inguruko baso-masetako erabileren eta aprobetxamenduen aurrean.</p> <p>27. Beharrezkoak suertatuko diren baimenetan, ibai-ibilguak, ibaiertzak eta hezeguneak zaintzea ziurtatuko da, baita hondatutako ibaiertzak berreskuratzea eta emari ekologikoak zaintzea ere.</p> <p>28. Zur hilaren presentzia ziurtatu eta, posible bada, areagotu egingo da. Horrek haltzadien egitura eta funtzioak hobetuko dituelako.</p> <p>29. Mugatze-lerrotik gutxienez 50 m-ko urruntze-tartea, ibai-ibilguneak babestekoa, ezarriko da. Gune horretan ezin izango da lursail naturala aldatzen duen inolako esku-hartzerik egin, salbu eta nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak eta erakunde eskudunak edo naturagune babestuaren Organo Kudeatzaileak eremu horietatik kanpo baimentzen dituenak jabari publiko hidraulikoan eta lotutako babes-guneetan izanez gero.</p>
4.5 helburu operatiboa	Egoera txarrean dauden ibai-tarteetako landareak estalitako azalera handitzea, eta landarearen egitura eta funtzioak hobetzea, batez ere mediterraneoko sahasienak eta makaldienak (92A0 habitat)
4.6 helburu operatiboa	Ahal den moduan banaketa-eremua eta flora-espezieen ur-toki populazioak hobetzea eta mantentzea.
Erregulazioak	30. <i>Nymphaea alba</i> Errekuperatzeko Plan-proposamenak ezarritako xedapenak eta jarduerak aplikatuko dira.
4.7 helburu operatiboa	Ibai-karramarro autoktonoen espezieen egungo kokapena ezagutzea, eta beren kokapen-eremua handitzea.
4.8 helburu operatiboa	Karramarro aloktonoen populazio berriak ezar daitezela saihestea, baita karramarro autoktonoaren nukleotarantz heda daitezela ere.
4.9 helburu operatiboa	Izki eremuko odonatoren populazioaren banaketa eta bilakaera ezagutzea, eta horien habitata hedatzea.
Erregulazioak	31. Debekatzen dira Luneta edo Peña Ancha, La Dehesa, Las Rozas eta Las Huertas istiluetan ura hartzeko emakida berriak, salbu egoerari eta balizko alternatibei buruzko azterlana egin ondoren Organo Kudeatzaileak arazoituztat eta beharrezkotzat jotzen baditu, eta baldintzatzen baditu urei

	buruzko araudia eta baimentzeko araubidea betetzera.
4.10 helburu operatiboa	Kontserbazio-interes handiena duten anfibio- eta narrasti-populazioen banaketa eta bilakaera, eta haien populazioen babesia.
4.11 helburu operatiboa	Izki KBE/HBBEko bisoi europarraren eta igarabaren populazioaren banaketa eta bilakaera ezagutzea, eta haien habitata kontserbatzea.
Erregulazioak	32. Bisoi europarrentzat eta igarabarentzat baliabide nagusiak izanik, Izkiko ibai-sarearen arrain- eta karramarro-aberastasunaren mantentzea segurtatuko da.

5. KE.- Harkaitzak eta antzeko inguruneak

Helburuak eta Erregulazioak	
5. azken helburua	Harkaitzetako eta antzeko inguruneetako habitatei loturiko flora- eta fauna-espezieen banaketa-eremu ezagunei eta populazioei eustea, hauen jarraipena ezarriz.
5.1 helburu operatiboa	Harkaitzetako eta antzeko inguruneetako habitatei loturiko flora-espezieen banaketa-eremu ezagunei eta populazioei eustea.
Erregulazioak	<p>33. Molino de Arluzea sakan aldeko ibilbidetik debekatuta dago publizitatea eta balizajea ipintzea.</p> <p>34. Debekatuta daude erauzketa-jarduerak, baita isurketak eta espezie hauetako habitataren hondatzeko beste jarduerak ere.</p> <p>35. Eremuan larreratutako ez dagoen ahuntz-aziendaren presentzia Arabako Mendien Foru Arauarekin bat etorri behar da.</p>
5.2 helburu operatiboa	Egungo kudeaketari jarraipena ematea, alegia, harrapari errupikolak aztertzen jarraitzea; eta harrapari horien habia egiteko eta ehizatzeo habitata kontserbatzea.
Erregulazioak	<p>36. Faunaren pozoidura gertatzen bada, Pozoidura Kasuenetako Jarduera Protokoloa ezarriko da, Natura Babesteko Batzorde Nazionalak onartutakoa.</p> <p>37. Urtarrilaren 1etatik eta abuztuaren 15era debekatuta dago errupikolen eremuetan sartzen eta erabilera publikoa; La Muelan, Aginen eta Arluzeako kresteetan.</p> <p>38. Urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era, 800 m-ko eremuan debekatuta</p>

	<p>daude harrapari errupikolen habiei enbarazu egin diezaieketen jarduerak (delta hegala, parapentea, ultrarinak eta antzekoak, baso-jarduerak, obrak, ibilgailuak igarotzea, Ehiza larriko uxaldia, etab.), salbu eta Organo Kudeatzaileak baimena ematen badu eta Funtsezko Elementuen kontserbazioa bermatzen bada. Jarduera horiek Organo Kudeatzailearen baimena eskatzen dute, zeinean adieraziko baita zein eremutan garatuko diren, kontuan hartuta, betiere, babes-perimetroa.</p> <p>39. Debekatuta dago eskalatzeko bideak zabaltzea, baita eskalatzeko jarritako tokietatik kanpo eskalitzen aritzea.</p> <p>40. Debekatuta dago behaketak eta grabazio grafiko edo soinu-grabazioak egitea postu finakoak jarrita, hegazti errupikolen aleetatik 250 m-ra baino gutxiagora eta ugaltokietatik, ohiko pausalekueetatik, hezurak apurtzeko tokietatik eta janlekueetatik 500 m-ra baino gutxiagora badaude, salbu eta organo kudeatzaileak berariazko baimena ematen badu. Jarduera horiek Organo Kudeatzailearen baimena eskatzen dute, zeinean adieraziko baita zein eremutan garatuko diren, kontuan hartuta, betiere, babes-perimetroa.</p> <p>41. Debekatuta dago instalazioak eta ibilgailuentzako bideak egitea, edo hegazti errupikolen ugaltokietatik 250 m-ra baino gutxiagora edo ohiko egonguneetatik hurbil pasatzen diren edo haietara daramaten ibilbideak sustatzea, salbu eta beharra badago eta Organo Kudeatzaileak baimenduta badaude. Jarduera horiek Organo Kudeatzailearen baimena eskatzen dute, zeinean adieraziko baita zein eremutan garatuko diren, kontuan hartuta, betiere, babes-perimetroa.</p> <p>42. Debekatuta dago postu finko edota txabola gehiago jartzea pagausoak edo birigarroak ehizatzeke 1.000 m-ko eremuan eta sai zuriaren habia egiteko tokietatik eta gainerako hegazti errupikolen habia egiteko tokietatik 500 m-koan. Jarduera horiek Organo Kudeatzailearen baimena eskatzen dute, zeinean adieraziko baita zein eremutan garatuko diren, kontuan hartuta, betiere, babes-perimetroa.</p>
5.3 helburu operatiboa	Izki KBE/HBBEan kontserbazio-interes handiena duten leizeetako kiropteroen eta antropiloen populazioen banaketa eta bilakaera ezagutzea, eta haien habitata kontserbatzea.
Erregulazioak	<p>43. Debekatuta dago teilatuetako zura intsektizidekin tratatzea, baldin eta intsektizidek organokloratuak edo organofosforatuak badituzte. Permetrinak erabili ahal izango dira, babestutako Ereku Naturalaren Kudeaketa Organoko baimenarekin, maiatza eta abuztuaren arteko beste hilabeteetan, biak barne.</p> <p>44. Kiropteroen babesleku bihurtu diren Izki KBE/HBBEko eremuko</p>

	<p>zubietan edo beste azpiegitura batzuetan lanak egiteko, Organo Kudeatzaileak baimena eman beharko du, eta une oro bermatu beharko da kiropteroen koloniaren kontserbazioa.</p> <p>45. Ustez kiropteroen babesleku bihurtu diren Izki KBE/HBBEko eremuko eraikin publikoen zurezko egiturazko teilatuak konpontzeko edota birgaitzeko lanak ez dira inoiz maiatzean, ekainean, uztailan edo abuztuan egingo, salbu Organo Kudeatzaileak berariazko baimena ematen badu. Horretarako, alternatibak eta azpiegiturak kontserbatzeko beharrak aztertuko ditu.</p> <p>46. Kiropteroen babeslekuak dituzten Izki KBE/HBBEko eremuko eraikin publiko eta proibatua birgaitzeko edo estalkiak konpontzeko lanetarako baimenek berariaz aipatuko dituzte kiropteroak babesteko aplikatu beharreko baldintzak.</p> <p>47. Izki KBE/HBBEko kobazuloetan sartzeko beharrezkoa izango da Organo Kudeatzailearen berariazko baimena, eta kiropteroen koloniei eraginik ez dagoela segurtatuko da.</p>
--	--

6. KE. Hareatzak

Helburuak eta Erregulazioak	
6. azken helburua	<i>Halimium lasianthun</i> subsp. <i>alyssoides</i>aren presentzia mantentzea gaur egungo hartutako eremuan.
6.1 helburu operatiboa	<i>Halimium lasianthun</i> subsp. <i>alyssoides</i> garatzen den sastrakadiaren hedapena mantentzea.
Erregulazioak	48. Espeziak hedatzen den sastrakadi-orbak babestuko dira hedapen aldaketak gertatzen baldin badira, basoaren aurrerapenagatik zein gertuko laborantzaren inbasioagatik.

7. KE.- Konektibitatea

Helburuak eta Erregulazioak	
7. azken helburua	Konektibitate ekologikoa zaintzea eta hobetzea, bai Izki KBE/HBBEaren barruan, bai Natura 2000 Sareko beste gune batzuekin.

7.1 helburu operatiboa	Izki KBE/HBBEko konektibitate ekologikoa hobetzea.
Erregulazioak	<p>49. Debekatuta dago ibaiertzetan zatikatze-prozesuak sustatzea, baita zuhaitz-zerrendak estutzeagatik edo artifizial bihurtzeagatik konektatzeko eraginkortasuna galtzea.</p> <p>50. Ibaiertzen jarraipena eta konektibitatea berreskuratzea sustatuko da, ibaiertzekoak ez diren habitaten arteko komunikazio-bide nagusi gisa, basokoak izan ala ez.</p> <p>51. Beste baso-masa batzuen barruan dagoen ibaiertzeko landaredia indartu eta zabalduko da, biodibertsitatearen sustatzaile, barneko konektore eta suebaki natural gisa.</p>

6.3.- KUDEAKETA LAGUNTZARAKO TRESNEI BURUZKO HELBURUAK ETA ERREGULAZIOAK

8. KE.- Biodibertsitateari buruzko ezaguera eta informazioa

Helburuak eta Erregulazioak	
8. azken helburua	Izki KBE/HBBEko biodibertsitatearen kontserbazio-egoera behar besteko zehaztasunez ezagutzea, baita biodibertsitatea galtzea edo hondatzea ekar ditzaketen kausak ere epe luzera mantentzeko behar diren jarduerak berriro diseinatu ahal izateko etorkizunean.
8.1 helburu operatiboa	Kontserbaziorako-interesa duten habitat guztien kartografia eguneratua izatea, eremuaren dibertsitate biologikorako eta osotasun ekologikorako garrantzitsuak diren gune edo elementu naturalak edo kulturalak ere sartuta.
8.2 helburu operatiboa	Funtsezko elementutzat hartutako prozesuen, habitaten eta baso-espezieen kontserbazio-egoera ezagutzea.
Erregulazioak	<p>52. Izki KBE/HBBEan gauzatzen diren jarduera zientifikoak eta ikerketak eremuaren kudeatzeaz Organo kudeatzaileari berri eman behar zaio. Era berean, materiala biltzeko, Administrazioari baimena eskatu behar izango zaio.</p> <p>53. Jarduera zientifikoetan eta ikerketetan lortzen diren emaitzak eremu-kudeaketaren Administrazioari jakinarazi beharko zaio.</p>
8.3 helburu operatiboa	Izki KBE/HBBEko biodibertsitatearen mantenua epe luzera

	bermatzeko behar diren beharrak diseinatzea.
Erregulazioak	<p>54. «Basa-fauna eta -florarentzat baliotsuak diren elementu naturalen, kulturalen eta geomorfologikoen inbentario ireki geolokalizatuko» elementuak babesturik egongo dira eta, jarduera batek eragin ahal badie, haien kontserbazioa bermatu behar da.</p> <p>55. Ezinbestean, eta behar bezala arrazoitu ondoren, «Fauna eta flora basatirako balio handiko elementu natural, kultural eta geomorfologiakoen inbentario ireki geoerreferentziatua» izeneko inbentarioan jasotako elementuren bat galtzea edo hondatzea eragin dezakeen jardunen bat baimentzen bada, kaltea aurrez konpentsatu beharko da, funtzio ekologiko bera duten elementuak sortuta edo leheneratuta, kaltetutakotik ahalik eta hurbilen.</p> <p>56. KBE/HBBEko 'kudeaketa-baldintza minimoa' izango da «Basa-fauna eta -florarentzat baliotsuak diren elementu naturalen, kulturalen eta geomorfologikoen inbentario ireki geolokalizatuko» elementu guztiak mantentzea, eta, egoki denean, konpentsazio-prozedurak egin, edo kontserbazio- edo zaintza-akordioak sinatuko dira jabeekin.</p> <p>57. Basoko Suteen Aurkako Plana prestatuko da Izkiko Babestutako Eremu Naturalarentzat.</p>
8.4 helburu operatiboa	Izki KBE/HBBEko dibertsitate biologikoak, bai bertako espezieen eta ekosistemen ingurumen-ondasunek eta zerbitzuek, guztira zer balio ekonomiko duten kalkulatzeko.
8.5 helburu operatiboa	Izki KBE/HBBEko fauna-basatiaren naturalak ez diren hilkortasunak adierazten duen istripu ugariko bide-zatien mapa bat egitea.

9. KE.- Herritarren hezkuntza, partaidetza, kontzientziaketa eta komunikazioa

Helburuak eta Erregulazioak	
9. azken helburua	Izki KBE/HBBEari eragiten dioten erabakiak hartzeko prozesuetan herritarrek parte har dezaten sustatzea, baita hura kontserbatzeko herritarrek inplika daitezkeen ere.
9.1 helburu operatiboa	Aldian-aldian herritarrei jakinaraztea zer kontserbazio-egoeratan dagoen Izki KBE/HBBEko biodibertsitatea, zer ingurumen-laguntza eska

	daitezkeen, zerk sortzen dituen egoera txarrak, zer politika publiko aplikatzen diren eta zer emaitza dituzten.
Erregulazioak	58. KBE/HBBEari buruzko lan zientifiko eta tekniko guztiak eta dokumentu honen helburuekin zerikusirik badute eta baliabide publikoekin kontratatuak eta finantzatuak badaude, herritarrentzat ulertzeko erraza izan behar den dibulgaziozko laburpen dokumentua eduki beharko dute.

10. KE.- Gobernantza

elburuak eta Erregulazioak	
10. azken helburua	Organo publiko eskudun guztien arteko koordinazio instituzionala hobetzea, egungo ingurumen- eta sektore-arauak egokitzea, eta babes-elementu gehiago eskaintzea babes-elementurik ez duten katalogatutako espezieei.
10.1 helburu operatiboa	Batzorde tekniko iraunkorra sortzea, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak Izki KBE/HBBEan gauzatzen dituzten jarduerak koordinatzeko.
Erregulazioak	59. Izki KBE/HBBEko Administrazio Kudeatzaileak behar diren koordinazio atal edo atalak sortuko ditu dokumentu honetan ezarri diren betetzeak ziurtatzeko.
10.2 helburu operatiboa	Izki KBE/HBBEko espezieen babes-maila handitzea, eta habitaten eta populazioen arteko lotura hobetzea.
Erregulazioak	60. Dokumentu honen aplikazio-eremuari eragiten dioten plan sektorialek barnean hartu beharko dituzte betebeharrak eta inpaktuei aurre egiteko eta minimizatzeko neurriak, Izki KBE/HBBEko biodibertsitatean ondorio positiboak eta ebaluagarriak dituzten beste neurriak eta dokumentu honetako helburuak betetzen laguntzen duten beste batzuk.

7.- KONTSERBATU BEHARREKO BASO-HABITAT ETA ESPEZIE GUZTIENTZAKO ARUAUAK ETA KONTSERBATIO ERREGULAZIOAK

Jarraian, Izki KBE/HBBEko Kontserbatu Beharreko erregulazioak laburtzen dira.

15. taula. Kontserbatu Beharreko Habitat guztientzako arauak eta kontserbazio-erregulazioak.

BIH/EUNI S kod.	Deitura	Ordezkaparratasuna	Kontserbazio- egoera	Arau egokiak
2330	Zelai irekiko duna kontinentalak (<i>Corynephorus</i> eta <i>Agrostis</i>)	A	Aldekoa	1, 2, 3, 18, 48, 49, 50, 51
3150	<i>Magnopotamion</i> edo <i>Hydrocharition</i> landareak dituzten laku eutrofiko naturalak.	A	Desegokia	1, 2, 3, 18, 21, 22, 23, 24, 26, 27, 31, 49, 50, 51
3170*	Aldi baterako urmael mediterraneokoak.	D	Txarra	1, 2, 3, 18, 21, 22, 24, 26, 27, 31, 49, 50, 51
4020*	Zona epeletako txilardi heze atlantikoak (<i>Erica ciliaris</i> eta <i>Erica tetralix</i>)	C	Txarra	1, 2, 3, 18, 19, 20, 49, 50, 51
4030	Txilardi lehor europarrak.	A	Desegokia	1, 2, 3, 5, 16, 17, 18, 19, 49, 50, 51
4090	Elorri-triska duten txilardi oromediterraneo endemikoak	B	Desegokia	1, 2, 3, 5, 16, 17, 18, 19, 49, 50, 51
5110	Malda arrokatsuetako <i>Buxus sempervirens</i> espeziearen formazio egonkor xertermofiloak	C	Aldekoa	1, 2, 3, 5, 16, 17, 18, 19, 49, 50, 51
6170	Kare-belardi alpetar eta azpialpetarrak	A	Aldekoa	1, 2, 3, 5, 16, 17, 18, 19, 49, 50, 51
6210 (*)	Soropil lehor erdinaturalak eta sasi txikiko faziesak karekizko	B	Desegokia	1, 2, 3, 5, 16, 17, 18, 19, 49, 50, 51

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

BIH/EUNI S kod.	Deitura	Ordezkaparratasuna	Kontserbazio- egoera	Arau egokiak
	lurretan (Festuco-Brometalia)			49, 50, 51
6210	Belardi erdi-natural lehorrak eta kare-substratuetakoko sastraka-faziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>)	C	Desegokia	1, 2, 3, 5, 16, 17, 18, 19, 49, 50, 51
6220 (*)	Gramineo-larre subestepikoak eta Thero-Brachypodietearen urteko larreak, Brachypodium retusumen larreekin nahasita	B	Aldekoa	1, 2, 3, 5, 16, 17, 18, 19, 49, 50, 51
6230*	Belar-formazioak Nardusekin, espezie ugariekin, mendialdeko (eta Europa kontinentaleko eremu azpi-menditsuetakoko) silize-substratuetan	C	Desegokia	1, 2, 3, 5, 16, 17, 18, 19, 49, 50, 51
7140	Trantsizio-zohikaztegiak	A	Desegokia	1, 2, 3, 5, 18, 19, 49, 50, 51
7150	Zohikatz-substratuen gaineko sakonuneak (Rhynchosporion)	A	Desegokia	1, 2, 3, 5, 18, 19, 49, 50, 51
7210*	Kare-zohikaztegiak (<i>Cladium mariscus</i>) eta Caricion davallinae espezieak	B	Aldekoa	1, 2, 3, 5, 18, 19, 49, 50, 51
7220*	Tofikoletako formazioak dituzten iturburu petrifikanteak (<i>Cratoneurion</i>)	A	Desegokia	18, 19, 21, 22, 24, 25, 26, 27, 29, 49, 50, 51
7230*	Lintzura alkalinoak	A	Desegokia	1, 2, 3, 5, 18, 19, 49, 50, 51
8130	Mendebaldeko Mediterraneoko lur-jausi termofiloak	D	Aldekoa	18, 33, 34, 35, 49, 50, 51

2016ko maiatzaren 25a, asteazkena

BIH/EUNI S kod.	Deitura	Ordezkaparratasuna	Kontserbazio- egoera	Arau egokiak
8210	Landaredi kasmofitikoaren duten kareharrizko malkar arroksuak	C	Aldekoa	18, 33, 34, 35, 49, 50, 51
8310	Turistikoki ustiatu gabeko kobazuloak	C	Aldekoa	18, 33, 34, 35, 49, 50, 51
9120	Pagadi azidofilo atlantikoak, oihanpeak dituztenak: <i>Ilex</i> eta batzuetan <i>Taxus</i> (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici fagenion</i>).	B	Desegokia	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 12, 13, 18, 49, 50, 51
9150	Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (<i>Cephalanthero-Fagion</i>)	B	Desegokia	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 12, 13, 18, 49, 50, 51
91D0*	Zohikaiztegi oihantsuak	B	Aldekoa	1, 2, 3, 18, 19, 21, 22, 24, 26, 27, 49, 50, 51
